



+

Txomin Perurena
ziklista ohiari
elkarriketa

Etorkizuna Eraikiz
programaren
baitako proiektuak

Ertzak gerturatzen

Olatz Etxabek eta Sandra Carrascok euren eta senideen bizipenak partekatu dituzte Memoriaren Plazan, Arrasaten / 4

DATORREN ASTEKO 'PUNTUA' ALDIZKARIAN SANDRA CARRASCORI ELKARRIZKETA


Olatz Etxabe eta Sandra Carrasco, Memoriaren Plazan, atzo, eguna, hitzaldia hasi aurretik.

XABIER URZELAI



**ETXEBIZITZA ETA
DEKORAZIOA** / 33

SINADURAK



BERNARDO
KORTABARRIA / 8



JAIONE
CARPINTERO / 20



ELIAS
ZUMALDE / 27



MIKEL
IRIZAR / 48

NEREA
MAKAZAGA / 10

www.multiópticasgipuzkoa.com



gama altuko
2 mó betaurreko
progresibo
197€

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRENTERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Kontuitza itzazu zure optikariaren ezagueratik. Ezingo da beste eskaintza batzuekin erabili.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Etxebizitza hobetzeko diru laguntzarik nahi?

IKER URBINA SURADESAKO GERENTEA

Suradesak etxebizitza eta eraikinak hobetzeko doako aholkularitza tekniko zein juridikoa eta diru laguntzen kudeaketa eskaintzen ditu Debagoieneko herrietan

Suradesako gerente Iker Urbinarekin elkartu gara, eskaintzen duten zerbitzua sakonago eza-gutzeko.

Zer da Suradesa?

Debagoieneko herritarrei zuzendutako zerbitzu publiko bat da. Alde batetik, etxebizitza eta eraikinen birgaitzeetarako aholkularitza eta diru laguntzen informazioa eta tramitazioak arduratzen da. Bestetik, eraikitako etxebizitzaren ondarearen birgaitzea sustatzen du.

Ze zerbitzu eskaintzen dituzue?

Komunitate edo pertsonen eraikinak edo etxebizitzak egokitzeko zein obra egitea komeni zaien erabakitzen laguntzen diegu, betiere, alde tekniko eta ekonomikoa kontutan izanda. Zerbitzu honekin lortu nahi duguna da Debagoieneko etxebizitza eta eraikinen segurtasuna, kalitatea, irisgarritasuna eta eraginkortasuna bermatzea. Horrez gain, eskualdean hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzen dituen Eusko Jaurlaritzako Bi-

zigune programa ere kudeatzen dugu.

Komunitate batek obrak egiteko asmoa badauka, zer egin beharko luke?

Ezinbestekoa da obrak hasi aurretik diru laguntzak eskatzea; beraz, ezer egin aurretik, Suradesarekin kontaktuan jartzea komeni da. Guk beraien egoera

aztertzen dugu, eta, beharrezko kasuetan, bizilagun guztiekin bilera informatiboak egiten ditugu jarraitu beharrezko pauso zehatzen informazioa emateko. **Zein motatako birgaitze edo obrak izan daitezke?**

Ohikoenak fatxadak berriztatzea eta igogailua jartzea izaten dira, nahiz eta beste batzuk ere ego-

ten diren. Adibidez, orain denon ahotan dagoen EITren (Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa) ondorioz egin beharrezko egokitzapenak izan daitezke diru laguntzak jaso ditzaketen beste lanetako batzuk.

Aipatu duzun EIT aurrerantzean derrigorrezkoa izango da. Noiztik aurrera?

2017ko ekainetik aurrera 50 urte beteta dituzten eraikinek, komunitateek zein unifamiliarrek, urtebete izango dute EIT egiteko. Azterketa horretan azaltzen diren arazo nagusiak epe labur baten konpondu beharko dituzte bizilagunek. Adibidez, azterketan fatxadak hezetasunak eta pitzadurak dituela ondorioztatzen bada, Suradesak komunitateari jakinaraziko lioke fatxada konpontzearekin batera fatxadaren isolamendu termikoa

ere egiten badute eskuratu ditzaketen diru laguntzak askoz handiagoak direla.

Beraz, fatxada bat margotzea kostatzen den diruarekin, posible litzateke fatxada isolatzea, EITra egokitzea eta hura margotzea?

Bai. Fatxadak isolatuz gero, energia galerak saihesten dira, eta honetarako bideratutako diru laguntzei esker bizilagunek bere gain hartu beharrezko kostua antzerakoa izan daiteke. Gainera, berogailuan aurrezteko eta etxebizitza barruan sortzen diren kondentsazio hezetasunak kentzeko bide egokiena da isolamendua.

Eta komunitate horrek igogailua jartzea ere beharko balu?

Kasu horretan, beste diru laguntza batzuk ere badaude, *Renove* izeneko programaren barruan. Horri esker, obren %50 baino gehiagoko diru laguntza zuzena jaso daiteke. Horien adibide dira Arrasateko Makatzena eta Bergarako Martokoa auzoetan egindako lanak.

Pertsona batek edo familia batek etxebizitza egokitzeko laguntzarik eskatu dezake?

Bai; birgaitze obra guztiek, komunitatekoek zein partikularrek, diru laguntza zuzenez gain onura fiskalak edo maileguak eskura ditzakete. Betiere, 1.000 eurotik gorako aurrekontuetan eta EIT eginda badute. Hala ere, interesatuek gure bulegora etorrita edo www.suradesa.eus webgunean sartuta informazio zehatzagoa eskura dezakete.

"LORTZEN DITUGUN DIRU LAGUNTZEI ESKER OBRA GARRANTZITSUAK EGIN DAITEZKE"



Fatxada, isolatu eta margotu aurretik. SURADESA



Fatxada, isolatu eta margotu ondoren. SURADESA

OBRAK ETXEAN?

BADAKIZU LAGUNTZAK LOR DITZAKEZULA?

KOMUNITATEAN edo ETXEAN egiten diren obrek hainbat laguntza eskura ditzakete: onura fiskalak, mailegu kualifikatuak eta zuzeneko diru-laguntzak.

GUK LAGUNTZEN BERRI EMATEN DIZUGU ETA TRAMITATU EGITEN DITUGU.

INFORMATU

Nafarroa etorbidea, 17, Arrasate-Mondragón {7:30-14:00}
suradesa@suradesa.eus / 943793399 / twitter: @suradesa

WEB BERRIA
www.suradesa.eus

SURADESA
 Hirri birgaitzea • Rehabilitación urbana

"Iazko maila bera" lortu da elikagai bilketan

"Uste dugu joan zen urteko maila bete dugula"; Jose Antonio Agirrebeñak, Bergarako elikagai bankuko boluntarioak, elikagai bilketaren gainean egindako hasierako balorazioa da; bestela esanda, debagoiendarrek laguntza eskaerari ederki erantzun diote, atzera ere

Ubane Madera BERGARA

Elkartasun handia erakutsi dute, beste behin, debagoiendarrek. Joan den asteburuko elikagai bilketako eta egunotan Bergarako elikagai bankura ailegatzen dabiltzan kamioikada bete edukiontzien pertzepzioan oinarrituta, iazko datuekiko "nahiko hurrean gabiltza". Hala adierazi du Jose Antonio Agirrebeñak, Gipuzkoako elikagaien bankuak Bergaran duen biltegiako boluntarioak. Iaz, Bergarako elikagai bankuak kudeatzen dituen lau bailaretan 125.000 kilo elikagai batu zituzten eta bonutan 72.000 euro jaso zituzten.



Boluntarioak Bergarako biltegiaren lanean, eguaztenean. IBON CARMONA

Kalitatean eta bonutan, hobeto

Are gehiago, handitu egin da debagoiendarren laguntza maila, bi zentzutan: "Elikagaietan joan zen urtetik hona igo egin da produktuen kalitatea. Pasta, arroza eta lentejak dira gehien etortzen direnak. Baina ikusten da beste produktu batzuetan asko igo dela kalitatea: babarrunak, garbanzuak... horiek kristalezko potetan eman dutenen kopurua asko gehitu da. Eta bonu bilketa hobeto joan da. Badaude toki batzuk joan zen urtean asko saldu zituztela, eta aurten gehiago. Denda batek 11.000 euro egin zituen, eta aurten 13.000 euro

pasa egin ditu. Badaude beste denda asko joan zen urtean ez zituztenak bonurik egin eta aurten bonutan ere sartu direnak. BMk joan zen urtean ez zuen indar handirik egin horretan, eta aurten askoz ere indar handiagoa egin du. Azken datuak ez dakizkigu detaileekin oraindik, baina...", dio Agirrebeñak.

Edozein kasutan, bonuen erabilerak asko laguntzen diela azpimarratu du hark: "Dirua ez dugu ukitzen. Batutakoa kontu batera doa. Gero, zerrenda bidaltzen digute kopuruaren berri

emanez, eta kreditu bezala gure alde geratzen da, ze baditugu produktu batzuk lehenbailehen eman behar direnak: esnea, adibidez. Bonu horien bitartez, kontrola dezakegu noiz komeni zaigun esnea eskatzea. Hilero 4.000 esne litro pasa ematen ditugu, eta horrela ez dugu arriskurik iraungitze epea galtzeko".

200 boluntariok gora jardun zuten bilketan laguntzen. Asteotan hori guztia antolatzen dabilta Bergarako biltegiaren. Ze batutakoarekin urte guztiko eskaerari erantzutea lortzen dute.

600 eragile pasak bat egin du euskararen defentsan

'Zer egin dezaket nik euskararen alde?' manifestuarekin bat egin dutenen artean da Goiena Komunikazio Taldea

U.M. DEBAGOIENA

Bihar, abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta, orain arteko batasunik handia eskuratu duen adierazpen bateratua plazaratuko dute Bilboko Guggenheim museoan.

Zer egin dezaket nik euskararen alde? izenburua du Hakoba erakundeak –Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko aldundiek, Uemak, Eudelek eta Donostiako, Gasteizko eta Bilboko udalek osatutako erakunde– proposatu eta Nafarroako Parlamentuak ere bere egiteaz gainera, 600 atxikimendutik gora jaso dituen manifestuak.

Sinatzaileen artean dira euskalgintzako ordezkariak, Euskaltzaleen Topagunea, Kontseilua, Udal Euskaltegiak eta AEK tarteak; hedabideak –edo elkarteak–, Goiena Komunikazio Taldea, Berria, EITB, Hekimen, Tokikom,

Kazetarien Euskal Elkargoa...; alderdi politikoak, idazleak, enpresak, kirolariak eta unibertsitateak ...; –guztiak ikusteko, eta manifestua irakurtzeko: euskararentxantxangorria.com–.

"Hizkuntza erabilia eta bizia" nahi

Manifestuak, besteak beste, euskarak 40 urteotan izan duen hazkunde nabarmentzen du "hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera" iritsi dela esanez; hala ere, gaineratzen du "helburu izaten" jarraitzen duela, "gizartean hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristek" (...) "Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoa eta ahalegina eskatzen dituen helburua (...) Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna".

35-43 langile artean kaleratzeko beharra du Fagor CNAk

Fagor CNAko zuzendaritzak bertako Enpresa Batzordeari jakinarazi dio 35-43 langile kaleratzeko beharra duela. 11 langile gertu daude zuzendaritzak eskainitako baldintzetan kaleratzeko onartzeko, urteko 25 eguneko kalte-ordainarekin.

Enpresak "boluntario gehiago bilatzeko beste epe bat zabalduko du baldintza berrieekin. Da-

toren ostiralera arteko (abenduak 9) epea ezarri du erabakiak hartzeko", jakinarazi du Enpresa Batzordeak.

Edesako eta Geyserko enpresa batzordeek eta Basauriko langileen ordezkariak ez dute "inolaz onartzen proposamen hau, ez baititu kaleratzeak ordezkatzeko", eta uste dute badaudela "beste neurri batzuk behin eta berririo zuzendaritzari aurkeztu zaizkionak". Gaur, barikua, batzarrera deitu dituzte langileak, 15:30ean.



BAZKIDE ERRETIRATUEI OMENALDIA

Fagor Elektronikaren 50. urteurrena dela eta bazkide erretiratuei merezi duten omenaldia egitea pentsatu dugu. Horretarako, bazkari-jaialdi bat antolatuko dugu **urtarrilaren 14rako**, non erretiratuak eta egungo langileak biltzea nahiko genukeen. Ekitaldia Arrasateko Uarkape pilotalekuan izango da, 13:00etan hasita. Etortzeko asmoa dutenek abenduaren 7rako izena eman beharko dute, horretarako **943 71 25 26** telefonora deituta edota Fagor Elektronikako harreratik pasatuta.

Animatu eta parte hartu!



Testigantza hunkigarriak

Arrasateko Herriko Plaza Memoriaren Plaza bilakatu da astebetez, eta hainbat herritar gerturatu dira eta parte hartu dute ekitaldietan. Sandra Carrasco eta Olatz Etxabe arrasatearren testigantzak entzuteko lepo bete zen karpa atzo, eguena

J. Bilbao / U. Madera ARRASATE

Arrasateko Herriko Plaza Memoriaren Plaza bilakatu da asteon, eta oraindik, abenduaren 4ra arte, domekara arte, erakusketak zabalik jarraituko du. Biolentziaren eraginak jasan dituzten testigantzak gizarteratzea eta herritarrekin batera memoria osatzeko aurrerapausoak ematea dira Memoriaren Plazaren helburu nagusiak. Horretarako, ekitaldiak, hitzaldiak eta tailerrak bildu ditu Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubi-

deen Gogora Institutuak Eusko Jaurlaritzarekin eta Arrasateko Udalarekin batera antolatu duen erakusketak.

Atzo, bi biktima arrasatearren testigantzak bertatik bertara jarraitzeko, lepo bete ziren herriko plazako karpako bi aretoak. Gainera, beste biktima batzuk ere izan ziren testigantzak entzuten. Izan ere, Olatz Etxabek eta Sandra Carrascok euren testigantzak, jendaurrean, aurrenekoz partekatu zituzten, batera, Gogora Institutuko zuzendari Aintzane

Ezenarrok zuzendutako hizketaldi hunkigarrian.

Arrasateko biktimen hitzak

Aintzane Ezenarrok hartu zuen hitza aurrena, biktimak aurkezteko: "Indarkeriak aitarik gabe utzi zituen bi emakumeren istorioak dira. Indarkeriaren ondorioak norainokoak izan daitezkeen ezagutzea da helburua. Giza ikuspegitik aztertzea gure herrialdean azken hamarkadetan gertatu dena. Gurasoek eta hiru seme-alabak osatutako bi fami-

lia ziren. Biek entzun zituzten tiro hotsak eta biek ikusi zituzten euren aitak lurtean. Guk euren ausardia eta eskuzabaltasuna eskertu nahi diegu, bizitakoa kontatzeagatik. Elkarbizitza posiblea da".

Olatz Etxaberen aita, Iñaki Etxabe Orobengoa, Batallon Vasco Español (BVE) hil zuen Kanpazar tabernan, armaz eta gas-isuriz egindako atentatu baten, 1975eko urriaren 5ean. Iñaki Etxabek 39 urte zituen, eta hiru seme-alaba. "Aita ez zen politikoa, baina bi anaia ETako kideak zituen. Mehatxu eta atentatu dezente sufritu genituen aita hil baino hilabeteak aurretik. Azkena, aita hil bezperan. Aita hil baino egun bat lehengo bi guardia zibil hil zituzten Arantzazun, eta beti pentsatu izan dugu mendekua izan zela. Hiru gizon kaputxekin sartu ziren tabernan, eta gasa bota zieten bertan zeudenei. 'Zuon bila gatzotz', oihukatu zuten. Nire aita irten zen, eta 38 tiro eman zizkioten. Zarata entzutean sukaldera jaitsi nintzen eta lurtean ikusi nuen. Gogoratzen dudana azkena hilkutzan agurtu nuela

izan zen", adierazi zuen Olatz Etxabek.

"Herritarren babesa izan dugu, baina ez erakundeena. Espainiako Gobernuak terrorismoaren biktimendako diru laguntzak atera zituen, baina gurea ez zuten onartu. Lege berria atera zuten, baina berriro ere ez ziguten onartu. Esan ziguten ezin daitekeela demostratu atentatu terrorista bat izan zela. Ez gaituzte biktimatzat jotzen Espainiako Gobernutik", nabarmendu zuen Etxabek.

"Egia, justizia eta erreparazioa beharrezkoak dira. Aurrera egitako zauriak sendatu behar dira. Nire ustez, biktimok ez dugu politikarik egin behar. Gure paperak pedagogikoa izan behar du. Datozenei erakutsi behar diegu zer gertatu den", azaldu zuen Olatz Etxabek.

Sandra Carrascoren aita, Isaias Carrasco Miguel, PSE-EEko zinegotzia izan zen Arrasaten 2003 eta 2007. urteen artean. Arrasateko San Andres auzoko Navas de Tolosa kalean hil zuen ETak, bost tiro botata, 2008ko martxoaren 8an. Isaias Carrascok 42 urte zituen eta hiru seme-alaba. "Er-lazio berezia nuen aitarekin.

ERNE

“SD EIBAR” BIRUSA HEDATZEN ARI DA...

EIBARRERA ABONATU

Eta PRIMERAKO AFIZIO BAT kutsatu

Informatu zaitetz: www.sdeibar.com/abonatuak edo 943 201 831

SDEIBAR

kutsatuzureafizioa



Memoriaren Plaza, taula gainean dauden Olatz Etxabe, Aintzane Ezenarro eta Sandra Carrasco entzuten. XABIER URZELAI

Gizon ona zen, jatorra, bere lagun oso laguna. Bizkartzaina-ekin zegoenean, ea beldurrik zuen galdetzen nion, eta hark ezetz esaten zidan. Martxoaren 7an, lanera joan aurretik irten egin zen eta ondoren etxera bueltatu zen. Etxe barrutik hiru tiroak entzun genituen, eta gure ama segituan irten zen. Kalera begiratu nuen eta bertan ikusi nuen aita. Hark leihora begiratu zuen eta odoleztatuta zegoela konturatu nintzen. Korrikan jaitsi nintzen, eta gure ama aitarekin zegoen jada. Haren ondoan egon ginen. Ez zigun inork lagundu. Lepoan zuen zauria sakatu nion eta guztira bost tiro eman zizkiotela ikusi nuen. Egia esan, bertan agurtu nuen. Ez dut ezer gehiago gogoratzen, ezta anbulantzia ere, ezer ez", azaldu zuen Sandra Carrascok.

"Nire bizitza goitik behera aldatu zen. Lagunak galdu nituen, ez nuen norekin hitz egiterik edo negar egiterik. Konfiantza barik bizi ginen. 'Nork traizionatu gaitu?', galdetzen genion gure buruari. Garai hartan, beldur handia sentitu nuen. Nigan gorrotoa besterik ez zegoen", aipatu zuen Carrascok.

"Nik nuen gorroto sentimendua aldatu egin da. Lehen, ETArekin biktimak bakarrik ikusten nituen. Beste aldeko biktimez ez nuen ezer jakin nahi. Baina ezker abertzaleko batekin hitz egiten hasi nintzen eta lehen ulertzen ez nituen edo nahi ez nituenak ulertzen hasi nintzen. Nik orain ez dut gorroto hori. Gaur egun, aurrera egin dut, ez dut gorroto-rik eta zoriontsu naiz", esan zuen Sandra Carrascok.

Memoriarako eskubidea

Atzoko ekitaldia esanguratsua izan bazen, esanguratsua izan



Garai, Monge eta Etxeberria, memoria historikoaren gaineko hitzaldian. GOIENA

Ikasleendako tailerrak

Memoriaren Plazan egin dituzten ekitaldien artean, bailarako zortzi ikastetxetako 391 ikaslek tailer berezietan parte hartu ahal izan dute. Biktima ezberdinen testigantzak jasotzen dituzten hainbat bideo ikusi eta entzuteko aukera izan dute ikasleek, eta, gainera, gogoeta egin ostean, euren mezuak horma baten idatzita utzi dituzte, denendako ikusgai.

"ETArekin eta GALEn biktimen testigantzek harritu naute gehien. Batzuk entzutea oso gogorra egin zait. Poliziaren indarkeriaren ere oso gogorrak izan dira. Gainera, askok ez dute jarraipenik ezta kondenarik", azaldu du Ainhoa Azpiazu ikasleak. Xabi Gezalaga ikasleak ere esperientzia gogorra dela azpimarratu du: "Ordubete betea eta gogorra izan da. Hemen jorratzen diren gaien inguruan berba egitea, duela hamar urte, sinestezina izango zen".



Arizmendi Ikastolako ikasleak, Memoriaren Plazako tailer baten. JOSU BILBAO

zen, baita ere, martitzenekoa; memoria historikoa hizpide, Memoriaren Plaza txiki geratu zen Paco Etxeberria auzi medikua eta Julia Monge eta Juan Ramon Garai Intxorta 1937 Kultura Elkarteko kideak entzuteko. Besteak beste, aitortza instituzionalean eta sozialean urratsak egin diren arren arlo judiziala hankamotz geratzen dela nabarmendu zuten hiru hizlariak.

Intxorta 1937 elkartearen ize-nean, eta babes orokorraren faltaren adierazle, Juan Ramon Garaik agerian utzi zuen frankismoak eragindako kaltea salatzeke Arrasateko Oktubre taldea sortzean (1986) izan zuten babes instituzional falta. Geroago heldu zen babes hori; horren erakusle da 2003an Laubiden jarritako gerrako fusilatuen oroimen plaka. Hala ere, 1986an, babes hori beharrezkoagoa zela azpimarratu zuen, "gerra zibil-eko lekuko askoz gehiago zeudelako bizirik". Aurrera begira jarrita, berriz, Julia Monge elkarteko kideak etorkizunean egiteko dauden urratsak izan zituen hizpide.

Paco Etxeberria auzi medikuak, bestalde, memoriarako eskubidea "denona" dela defendatu zuen, besteak beste: "Ikasten ari garela nabarmendu behar da. Ez dugu memoria eraikitzeke aurrekaririk eta ez gara gure artean haserretu behar. Definizioek nahastu egin gaituzten arren, gizarte bezala gertatu zaigunari buruz hitz egiteko prest gaude la nabaritzen dut. (...) Biktimak badaude, memoriarako eskubidea dute. Eskubide hori duten neurrian, gizarteak, instituzioek, udalek eta unibertsitateek memoria hori gauzatzeko beharra dugu. Beraz, bakoitzak egin dezala dagokion lana".

Alderdi guztien babesa

Astelehenean zabaldu zituen atea Memoriaren Plazak Arrasaten. Pentsamendu guztietako ordezkari politikoek eta herritarrek bat egin zuten irekiera ekitaldian. Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak babes hori eskertu egin du. "Alderdi poli-

tiko guztien babesa edukitzeak lagundu egiten du jendea gerturatzeko eta ez egotea inongo errezelarik hor ikusiko edo entzungo denaren inguruan. Herri bakoitzak bere historia dauka. Arrasatek baditu oso historia gogorrak. Memoriaren Plaza Arrasate moduko herri batera ekartzeak bazuen atzean hausnarketa, ea momentu egokia zen... baina, beste alde batetik, esaten genuen, horrelako aukera edukita, noizbait izan behar da momentua, eta goazen egitera proba. Jendearen harrera kontuan izanda, orokorrean, ona izan da, eta aurrerapausoak emateko beharrezko ekimen bezala proposatu dugu", esan zuen Arrasate Irratian.

EH Bilduren izenean, Eneko Barberenak ekimenaren garrantzia aipatu eta "aurrerapausoa" dela esan zuen: "Aurrerapausoa da Herriko Plazan, gure herrian gertatu denari buruz hitz egitea. Ulertzen dugu ere bai, zerbait irekia dela, hau da, etorkizunean hobekuntzak onartu ahal dituen, herritarren ekarpenak... Ibilaldi guztiak urrats batekin hasten dira; kasu honetan, hau urrats bat izan daiteke. Bidea egitea denon esku dago eta ahalginduko gara indarrak jartzen bide hau denon artean egin dezagun. Zalantza barik, gaiak eskatzen du ibiltzen hastea".

Bestalde, Arrasateko Sortuk hau esan zuen Memoriaren Plazaz: "Arrasateko hainbat gertakari eta horien ondorioz sufritu duten hainbat pertsona ez dira aitortuak izan. Bost hildako, torturatuak, eta astero errepi-dean ehunka kilometro egin behar izaten dituzten pertsonak falta dira". Edozelan ere, arrasatearrak Memoriaren Plazan parte hartzerantz animatu dituzte: "Bertan ikusi edo entzun dezaketengatik, baina baita egin dezaketengatik ere".

Memoriaren Plazan, biolentzia jasan dutenen testigantzak entzuteaz gainera, norberarenak ere partekatu daitezke: ikus-entzunezkoa grabatzeko kabina baliatuta, edo bertan idatzi eta bertako paretetan itsatsita.

"HERRITARRON BABESA IZAN DUGU, BAINA EZ ERAKUNDEENA"

OLATZ ETXABE

"LEHEN, ETA-REN BIKTIMAK BAKARRIK IKUSTEN NITUEN; EZ BESTE ALDEKOAK"

SANDRA CARRASCO

"Hondakinen kudeaketan Debagoiena eredu da"

AINHOA ARROZPIDE ZERO ZABOR ELKARTEKO KIDEA

Zero Waste Europek antolatutako jardunaldietako parte hartzaileak eskualdean izan dira egunotan, bertako herrietako bilketa sistema desberdinak ezagutzen

T.M./M.T. DEBAGOIENA

Ekonomia zirkularrari buruzko jardunaldiak egin dituzte egunotan Gasteizen, Zero Waste Europek eta EHUK antolatuta. Jardunaldi horien baitan, Debagoieneko herriak bisitatu dituzte, bertako zabor kudeaketa eredu desberdinak ezagutzeko.

Zer da ekonomia zirkularra?

Arazo larri bat dugu gaur egungo sisteman: eredu lineal batean bizi garela. Natur baliabideak ustiatzen ditugu produktuak sortzeko, eta, ondoren, produktuok bota egiten ditugu. Guk aldarrikatzen dugu lerro zuzen hori hautsi egin behar dela eta eredu zirkular batean funtzio-



Ainhua Arrozpide Zero Zaborreko kidea. TXOMIN MADINA

natu behar dugula; hau da, sortutako materialek ahalik eta iraupen luzeena izan behar dutela zabor bihurtu aurretik. Ekonomia zirkularra hori bera da, baina ekonomiara eramanda. **Leintz Gatzagan, Arrasaten eta Antzuolan izan zarete.**

Bai. Debagoienara etorri gara hondakinen gaia lantzeraz; izan ere, hainbat bilketa sistema eredu martxan jarri dugu eta frogatu dugu bat baino gehiago izan daitekeela eraginkorra. Gakoak argi dituzue; errefusaren edukiontzia mugak jartzea eta bilketak unibertsalak izatea. Horregatik, Leintz Gatzagara joan ginen ikusteko herri txiki batean materiala nola kudeatu daitekeen; gero, Arrasatera, Mankomunitatera; Oñatira ere joan nahi genuen, atez ateko eredu ezagutzera, baina, denbora faltagatik, ezin izan dugu. Dena den, Antzuolakoa ezagutu dugu.

Zer iruditu zaizkie sistemok jardunaldietako parte hartzaileei?

Txundituta daude Gipuzkoan zein mailatan zaudeten ikusita, eta erakundeek eta herritarrek azken urteotan hartutako kon-

promisoarekin, baita horien ondorioz noraino iritsi zireten ikusita ere. Eredugarriak iruditu zaizkie egungo sistemak eta daukaguna hobetzeko asmoak. Mankomunitateko %60tik gorako bilketa tasarekin eta hainbat herritan %80 gainditu izanarekin ere txundituta gelditu dira. **Bergarako Rebattery enpresan ere izan zarete.**

Birziklatzeaz gain, murriztea, prebenitzea eta berrerabilitzea landu behar ditugu. Diseinuan eragin behar da, aztertu behar da sortutako materialei nola eman diezaiokegun bigarren bizitza bat... eta Rebattery bete-betean dago sartuta ekonomia zirkularraren filosofia horretan. Bateriek jada funtzionatzen ez dutenean, beraiek ahalegintzen dira konpontzen eta berriro ere merkaturatzen.

"FROGATU DUZUE BILKETA SISTEMA BAT BAINO GEHIAGO IZAN DAITEKEELA ERAGINKORRA"



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
Bergara

FABRIKAZIO AURRERATUA 4.0: PERIFERIKOEN PROGRAMAZIOA

DATAK: 2016-12-22 – 2017-02-13
Astelehenetik ostegunera (17:00 – 20:00)



HELBURUA: Fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren sistema periferikoak analizatzea eta programak garatzea (robotak – manipulatzailak)

- Roboten programazioa (30 ordu)
- Ikusmen artifizialdun makina (30 ordu)
- Sentsoreak (25 ordu)
- Metrologia (35 ordu)



www.lanbide.net • www.imaltuna.com • Tel.: 943 76 70 49

Goienaren 'app'-a, saritua

Goienaren aplikazio berria saritu dute GipuzkoAPPs 2016 lehiaketan, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurtan laugarrenez antolatu duen lehiaketan. Eguaztenean izan zen sari banaketa. Eskuko telefono zein tabletetarako aurtan garatutako aplikazioak aipamen berezia lortu du: garaikurra, 3D inprimagailu baten egina, eta 2.500 euroko saria.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Datorren astean ez dituzte traste zaharrak batuko

Debagoieneko Mankomunitateak eskualde osoan martxan daukan Bolumen Handiko Trasteak kalean jasotzeko zerbitzuak datorren abenduaren 5etik 9ra ez du hondakinik bilduko, aste horretako martitzena eta eguna jaiegunak direlako. Eta hain zuzen ere, bi egun horietan batzen dituzte etxeetan sortutako tamaina handiko hondakinak De-

bagoieneko udalerrietan, 20:00etatik 22:00etara: egunetan herri guztietan, Arrasaten izan ezik –martitzenetan batzen dituzte Arrasaten eta Aramaio ez da sartzen zerbitzu horretan, Zuia-ko Koadrilan dagoelako–.

Zerbitzu honen aldaketak "sortu ditzakeen arazoei aurre egiteko eta inongo eragozpenik egon ez dadin", abisua kontuan hartzeko eskatu dute. Hala egin ezean, eragozpen handiak sortzen dituzte-eta kalean utzitako traste zaharrek.

Arrasaten urteko hilabete guztietan eman ahalko da odola

Urtarriletik aurrera, Arrasateko odol-emaleek urteko hilabete guztietan eman ahal izango dute odola, eta aukeratu ahal izango dute hileko lehenengo martitzenean ematea, ambulatorioan, 16:30-20:00, edo hileko azkenengo egunean, Laubide plazako autobusean, 16:30-20:00. Beti bezala, oharra jasoko dute emailaz, gutunez eta SMSz.

Osasuna eta adostasuna

GARIKOITZ ITURBE

ARETXABALETA

Publikoa. Denon eskura eta denontzat. Hori da nik *publiko* kontzeptuaz dudan iritzia. Hala ere, konturatzen naiz sarri, gure agintariek, *publiko* hitza interesen arabera mozorrotzen dutela.

Pasa den asteburuan, Donostian erraustegiaren lizitazioa gelditu eta hondakinen gaian adostasuna lortzeko oraindik garaiz gaudela adierazteko 15.000 pertsona inguru batu ziren. Iritzi publikorako albiste izen beharko luke, ezta? Nire ezusterako, ordea, ETBko gaueko notizietan ez zioten minutu bakar bat ere eskaini albisteari. Hori gutxi balitz, Gipuzkoako Diputazioak, hau ere publikoa, intentzionalitate guztiz, hurrengo egunean prentsan jarritako publizitate handi batean, zaborteziaren edo irudi eder baten agertzen zen errauskailuaren artean aukeratzeko planteamendua egiten zigun. Beste aukerarik egongo ez balitz bezala! Diru publikoaz gustuko ez dutena ezkutatu eta gero manipulatu. Hau da egungo agintariek eskaintzen dutena? Zergatik ez duzue kontatzen non jarriko duzuen errauskailuak sortuko duen hondakin toxikoak batuko dituen zabortegia?

Eskua sutan jarriko al zenukete errauskailuak gure osasunean kalterik egingo ez duela adierazten duzuean? Zergatik ez dugu gaia eztabaida politikotik ateratzen, adituen esku utzi ondoren, herritarrok gaiaren inguruan erabakitzeo aukera izateko? Zeren beldur zarete?

Bukatzeko, datu bat norberak hausnartu dezan. Tecnaliak 2015ean egin zuen neurketaren arabera, artsenikoa hirukoiztu egin da Bizkaiko Zabalgarbi errauskailuaren inguruan. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, hamar osagai kimiko toxikorik arriskutsuenen artean dago, eta minbizia eragiten du.

Nola azaltzen duzue hau?

Politikari batzuen esku utzi behar al dugu erabaki potolo hau?

Beñardo Kortabarriari, Antzuolako alkatiari

XABIER LEGORBURU IGARZA

ANTZUOLA

Bai, Beñardo Kortabarriari, Antzuolako alkatiari, eta ez nere atari bereko bigarren pisuan bizi dan bizilagunari idazten jat eskutitz hau, aurrekuan egin neban berdin; izan be, gure etxera iritsi zan idatzixa Antzuolako alkatiak sinatze zeban eta ez bigarren pisuko bizilagunak.

Antzuolako zikinkerixari eta errespetu faltiari buruzko nere idatzixa esparru publikora bideratu nahi izan dot, bigarren eta hirugarren pisuko bizilagunen arteko eztabaidaz haratago joateko eta alkatiak bere idatzixan eskatzen zeban eztabaida eta hausnarketa herri mailara bideratzeko.

Eztabaida eta hausnarketia herriko zikinkerixa eta errespetu falta guztiei buruz, baitta pintadei buruz be.

Alkatiak pintadek zikindu egitten dabela onartzen dau, baiña pintada gehixenen asmua zikintzia ez dala aipatzen dau, baizik salatzia, ezkutuan dagon zerbait azaleratzia, aldarrikatzia... eta arrazoi honegaittik beste zikinkerixekin aldaratzeko modukuak ez dila aitortzen dau.

Adierazpen hau alkatiak egittia oso arriskutsua iruditzen jat gure herrixa garbi euki nahi badogu; izan be, edonork edozein gairi buruzko salaketa, zerbait azaleratzeko daukainian, aldarrikatzeo... herrixa pintadez zikintzeko beta izan leikiela interpretau leike. Zentzu honetan, gai honi buruz alkatiak herrira begira egitten dittuen adierazpenak argixaguak eta nahasmenerako aukerarik eskaintzen ez dabenak izatia eskertuko nuke.

Bestalde, oso zaila egitten jat bereiztia herriko ondarian gainian egitten dien erasuak noiz dian zikinkerixa eta

errespetu falta bat eta noiz salaketa eta aldarrikapen bat.

Ez naiz ni izango herritarren salaketa eta aldarrikapen nahixak mugatuko dittuena, baiña pentsatzen dot danon eskubidia dan adierazpen askatasuna gauzatzeo makiña bat bide dittugula herrixa zikindu barik.

Gure alkatiaren hitzak berreskuratuz, danok eztabaidatu eta hausnartu daigun Antzuolako zikinkerixari eta errespetu faltiari buruz eta helburua zein dan ez daigun ahaztu; herri txukun, garbi eta erakargarria edukitzia.

Euskararen Nazioarteko Eguna (2016)

AMAIA EROSTARBE LETAMENDI

EAJ-REN ZINEGOTZIA

OÑATI

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da, eta, aurtengo Adierazpenean (Hakoba-Eudel), galdera hau luzatu digute herritar bakoitzari: *Zer egin dezaket nik euskararen alde?*

Gogoeta egiten hasita, euskaraz jakin ez, eta ikasten ibili direnak eduki ditut buruan. Makina bat aldiz hasi dira euskaraz berbetan euskaldunen aurrean, baina gaztelaniaz jarraitu dute. Zer dela eta? Euskaldunon diskurtsoa hiperzuzentzailea delako ote da?

Horren harira, EGOD (Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoaren Lanketa) egitasmoa aipatu nahi dut (Iñaki Martínez de Luna, 2015). Bertako zortzigarren ardatz estrategikoak dio atzean utzi behar dela hiperzuzentasuna eta hizkuntza bizia, komunikatzailea, adierazkorra eta multifuntzionala bultzatu behar dela. Izan ere, hiztun berriak ezin du bere burua deseroso ikusi.

Akatsak izeneko zutabea (*Berria*, 2015-04), hizkera bizia eta naturala aldarrikatzen du Anjel Lertxundik: "Hizkuntzaren bizkartzainak, arauaren itzal luzea, akatsen

aurkako gurutzada... Hori guztia bizi izan dugu, bizi dugu. Ez beti hizkuntzaren bizipozezko etekinen faboretan. (...) 'Behin batez, dio Montale poetak, izan zen hutsik gabe mintzatu zen bat eta ez zion inork ulertu. Azken hiztuna zela pentsatu zuen'. Baina gertatu zen jendeak natural-natural segitu zuela hizketan. Akatsekin noski".

Euskararen erabilerak gora egingo badu, euskaldunok sustatzaileak izan beharko dugu, beraz; ezin gara hiperzuzentzaileak izan.

Fidel, zure borroka jarraituko dugu

SALVADOR GONZALEZ

EUSKADI-CUBA ELKARTEAREN IZENEAN DEBAGOIENA

Euskadi-Cuba elkartetik gure dolumin sentituenak bidaltzen dizkiegu Kubako herriari, Kubarekiko Elkartasun Mugimenduari eta munduko pertsona iraultzaile guztiei.

Eskerrik asko, Fidel, zure borroka adibidearengatik, gorputz eta ariman aritzeagatik, zure elkartasun internazionalistarengatik... eta beste hainbat gauzarengatik.

Zure egintza, ideiak eta legatuak, mundu libreago, justuago, berdintsuago eta gizatiarrago baten alde borrokan jarraituko duten datozen belaunaldiengan betiko bizi iraungo du.

Garaipena arte beti, komandante buru! Gora Fidel eta gora iraultza kubatarra!

Borrokan segituko dugu: ez dizugu huts egingo.

Zaharkitzapen programatua

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Orain, Gabon jaien zoroaldi kontsumistan sartzear gaudela, erosteko orduan kontuan izan zer behar duzun, ez erosi erosteagatik, eta lehentasuna eman bertako produktuei, eta, ekologikoak badira, hobeto; erosteko beste

irizpide bat erantsi nahi dizuet: iraunkorrak izan daitezela.

XX. mende hasierako lehen krisialdi ekonomikoei irtenbidea emateko, nahita hasi ziren produktu txarragoak fabrikatzen, gutxiago iraun zezaten, horrela, berriz ekonomiaren gorpila martxan jartzeko; hau da, gehiago erosiz gero, gehiago fabrikatu behar dira. Horretarako, lanpostu gehiago sortzen dira eta pertsona gehiago dago diruarekin berriz ere gehiago erosteko.

Horren adibidea da bonbilla, gizarte modernoaren sinboloa. Edison-ek asmatu zuen lehenak 1.500 ordu inguru iraun zezakeen piztuta; geroago, fabrikatzaileek adostu zuten 1.000 ordu iraunda nahikoa zela. Kontzeptu horri zaharkitzapen programatua esaten zaio.

Orain, mende bat pasatu eta gero, krisi ekonomikoari krisi ekologikoa erantsi behar zaio, planetak baliabide gutxiago ditu eta hondakin gehiago; gure jarduera eta pentsaera ez badugu aldatzen, arazoa areagotzen joango da.

Ez dakizula zer erosi oparitzeko? Izan ere, gaur egun, denetik daukagu, eta, askotan, zaharkitzapen programatua baino azkarrago botatzen ditugu oparitu dizkiguten gauzak.

Nire aholkua: oparitu zuhaitz bat.

Udalak egiten dituen obrak ez ditugu kritikatu beti

IÑAKI ORIA

ARRASATE

Oraingoan, eskerrak emateko da, San Andres auzoko Alfontso VIII kaleko eta Gipuzkoako Foruen plazako obrak oso ondo geratu direlako.

Eskerrik asko Udaleko teknikariei eta, bereziki, Maria Ubarretxena alkateari, agindu moduan, oztopo arkitektonikoak deuseztatzeagatik.

Eskerrik asko, Maria, eta segi aurrera!



ZABALIK

BEÑARDO KORTABARRIA

Ni bizi naiz baserrian...

Aiherran izan nintzen aurreko larunbatean. Eta poz-pozik itzuli nintzen, handik joan-etorria eginda. Ez da harritzekoa, baina oraingo honetan ez nintzen ospakizunetara joan, lan-bisita izan zen.

Herriko ostatuan kafea hartu ondoren, autobus txikian sartuta, Etxegarai baserrira joan ginen. Etxaldean Jean Mariek eta Patrick-ek egin ziguten harrera. Iker Elozegi aihertarraren laguntzarekin, bi ordutik gorako solasaldia egin genuen beraiekin baserriko arditegian.

Etxegarai Jean-Marieren familiaren baserria da; bera da jabea, baina arditegiaren negozioaren jabetza erdizka dauka Patrick-ekin. Gazte honek ez zuen bere jabetzako lurrik, eta lurra eskuratzea zein beharrezko azpiegiturak eraikitzea zaila eta garestia izanik, Jean-Marieri elkartzea proposatu zion. Ordurako, Patrick freelance moduan ari

IKASI DUGU BETIKOA EGINDA EZ DAGOELA ZER EGINIK, ETA IRUDIMENEZ JOKATU BEHARKO DUGULA

zen, hainbat baserritako lanak aldi berean eginez. Beraz, lanerako gogoia eta baserriko lanerako gogoia suposatzen zitzaizkion. Jean-Mariek, berriz, etxean ez zuen baserri-lanerako segidarik.

Aihertar bien artean dute

eratua elkartea, biek banatzen dituzte lanak zein lanaren mozkinak. Modu horretan baserriaren etorkizuna zein beraien familiena ziurtatu dute. Lurraren transmisioaren adibidetxo bat da.

Bisita Antzuolan baserriaren etorkizunaren inguruan egiten ari garen proiektu pilotuaren barruan antolatu zen. Oso oker ez banago, guztiok etorri ginen joandako sentsazio eta bizipen hobearekin.

Izan ere, hemen lurraren transmisioaren gaia arazo handia da, industriari begira bizi gara eta. Horrek ez du esan nahi baserritik bizitzeko ahaleaginean jartzeko jenderik ez dagoela. Herrian bertan badugu adibideren bat. Horren aurrean, Udalekooi baserria ez galtzeko urrats sendoak egitea egokitzen zaigu. Aiherrako bisitak ez gaitu beltzetik zurira eramango, baina zerbait bada. Hasteko, ikasi dugu betikoa eginda ez dagoela zer eginik, eta irudimenez jokatu beharko dugula.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



ZEUK ESANA

Modan jarri diren 'mannequin challenge'-ak etorkizun hurbileko publizitate erreminta berriak izango dira?

ANE

ESKORIATZA

Publizitatea egiteko ohiko moldeak laster desagertuko direlakoan nago ni. Hau da, zaharkituta geratu dira, eta beste buelta bat eman behar zaio gaiari.

Mannequin challenge-ak eta halakoak? Tira, garbi dago oso bisualak direla eta azkenaldian, behintzat, arrakasta itzela izan dutela sare sozialetan eta.

Hori gauza bat; beste bat da zenbat iraungo duen modak.

ARLOTE EDER

ARRASATE

Nik neuk ikusi ditudanak oso eraginkorrak direla uste dut.

Hedatzen eta zabaltzen ari den moda antzeko bat da: batek egin, guztiok kopia. Gainera, ezagunek edo famatuak egiten badute, gero eta indar handiagoa hartuko dute, eta, halako batean, Internet josiko dute *challenge*-ekin.

Hori bai, Espainiako Selekzioak egin zuena negargarria izan zen...

Arma ona iruditzen zaizkit publizitatea egiteko.

IRITZIHON

ARRASATE

Buaaa... klaro dau moda bat baiño ez dala hori. Neri, behintzet, tontokerixe hutse pentsetan jat. Ze publizidade atara leike *mannequin* edo dana dalako hori egindde, ba? Benetan, hillabete bateko edo biko kontue izengo da. Jentie paillasuarena egitxen sare sozialetan, retuit bat han, retuit bat hamen, eta lixto!

HURRENGO ZENBAKIAN: BASURDE KOPURUA BIKOIZTU EGIN DA ETA HAIEN EHIZA DENBORALDIA HILABETE LUZATUKO DU FORU ALDUNDIAK. ZE DERITZOZU? Iritzia emateko: berriak@goiena.eus / goiena.eus.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Goliatz Arana.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura),
Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Jokin Uribeetxeberria.
Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PROTAGONISTA

"Boluntarioek egiten duten lana aitortzen duen saria da"

ALAIA PEREZ HURKOA FUNDAZIOKO LANGILEA

Mireia Bikuña ARRASATE

Hurkoa Fundazioak 2016ko Gipuzkoako Boluntarioen Saria jaso zuen eguaztenean, azaroaren 30ean. Fundazioak hirugarren sektoreko entitate sarean parte hartzen du eta hiru bulego ditu lurraldean. Horietako bat, Arrasaten. Hango langilea da Alaia Perez.

Zorionak sariarengatik!

Eskerrik asko. Oso pozik gaude sariarekin. Urte askotako lana aitortzen duen saria da. Bereziki, boluntarioek egiten duten lana.

25 urteko lana saritu dute, orduan.

Donostiako Elizbarrutiaren barruan, Caritasek sortutako fundazioa da. 1990eko azaroan. Tutoretza fundazio moduan sortu zen.

Ze helbururekin sortu zen?

Mendekotasun edo babes falta egoeran dauden adinekoak eta buruko gaixotasunak dituztenak artatzeko, zaintzeko eta euren



Alaia Perez, Hurkoa Fundazioaren Arrasateko bulegoan. MIREIA BIKUÑA

eskubideak defendatzeko helburuarekin sortu zen.

Beste ekintza batzuk ere egiten ditugu; besteak beste, aisialdiko programak, boluntarioen prestakuntzarako saioak eta

adinekoenganako tratatu txarren kontrako sentsibilizazio kanpainak.

Zein da zuen lanerako dinamika?

Epaileak pertsona baten tutoretza ematen digunean, haren beharrak asetzen eta

babesten ahalegintzen gara. Gainera, euren ondareak babestuta egon daitezen laguntzen diegu. Arlo ezberdinak ukitzen ditugu.

Arrasatez gain, Donostian eta Irunen ere badituzue bulegoak. Guztietan ematen dituzue zerbitzu berberak?

Bai. Gipuzkoa hiru zentro horietan banatzen da. Guk, Arrasaten, lan handia egiten dugu Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleetako gaixoei. Arrasatekoa 2008an zabaldu genuen, eta, bulegoarekin, gertutasuna ematen diegu.

Boluntarioen lana aitortzen duen saria da. Oso inportantea da euren lana Hurkoa Fundazioan.

Hala da. Egun, 125 bat boluntario ditugu Gipuzkoan, eta euren lana ezinbestekoa da. Batez ere, tutoretzan ditugun pertsonen konpainia egiteko, eurekin kafe bat hartzera joateko, medikura laguntzeko... Boluntarioetako batzuek konpromiso finkoa dute astero. Beste batzuk larrialdi kasuetarako daude. **Dituzuen boluntarioendako baino lan handiagoa duzue?**

Boluntario guztiak dira ongietorriak. Lana badaukagu. Boluntarioek diote ematen dutena baino gehiago jasotzen dutela. Eta hori oso aberasgarria da.

HAU BE BADOGU!

Atxabaletako erretiratuak, mugitzen



Atxabalta Mugi egitasmoko kideek deituta, Urkulura oinez joan ziren atzo Basotxo erretiratuen elkarteko hainbat kide. Guztira, 20 erretiratu inguru animatu ziren eta sare sozialetan ere utzi zuten ibilaldiaren berri:

@AthlonKoopE: "Atxabalta Mugi ekimenetik pasada Urkulun zehar. Eguraldi ederra!".

Azken agurra Fidel Castorri

Sare sozialak #FidelCastro traolarekin bete egin dira asteon. Batzuek haren lana goraiatu dute eta beste batzuek gogor kritikatu dute.

@ArnaldoOtegi: "Zure duintasuna, konpromisoa... beti izango zara erreferentzia bat guretzat. Agur eta ohore komandante".

@bsemper: "Ez dago debaterik: Erregimen diktatorial bat ezin daiteke defendatu" (itzulita).

Ekonomia **Suspertzeko** Plana

Gure lurraldeko **ekonomia, enplegua eta ongizatea** indartzeko.

200M€
2015 > 2019

ORAIN EKONOMIA

gipuzkoa.eus/ekonomia

Industria

Lehen Sektorea

Gizarteratzea

Kultura eta Turismoa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

Usadioak babestu nahi, laikotasuna bermatuta

Baleikek eta Irabazik Udalaren laikotasuna eskatzeko mozioa onartu egin zen EH Bilduren eta PSE-EEren babesarekin; EAJk, berriz, herriko ondare bihurtu diren usadioak babestearen aldeko mozioa aurkeztu eta sozialisten botoekin onartu zen

Jokin Bereziartua ARRASATE

Udalak antolatzen dituen ekitaldi ofizialak konnotazio erlijiosorik gabekoak izatea eta agintari publiko edo funtzionarioek ekintza erlijiosotan, Udaleko ordezkari gisa, parte ez hartzea. Bi eskaera horiek egin zituzten Baleikek eta Irabazik, mozio bidez, azken osoko bilkuran. Udalaren laikotasuna jarri zuten mahai gainean.

Erlijioa eta ohiturak aurrez aurre

"Erlijio zehatz bati ematen zaizkion pribilegioak amaitzea eta hiritar guztien eskubideak bermatuko dituen Udalak laikoa izatea nahi dugu", esan zuen Baleikeko Igor Urizarrek. Irabaziko Juan Luis Merinok ere argi egin zuen berba: "Inork ez zuen aspalditik herrian ditugun ohiturei edo kulturari eraso egiteko asmorik. Gure asmoa da Udalak, erakunde moduan, garaiotara egokitzea, garai hauek instituzioen laikotasuna eskatzen delako". Mozioa onartu egin zen, EH Bilduren eta PSE-EEren babesarekin (13) eta EAJren kontrako botoekin (8).

Jeltzaleek, Baleikerak eta Irabaziren mozioari puntu bat gehitzeko ahalegina egin eta "ezezko borobila" jaso ondoren, beste mozio bat aurkeztu zuten Arrasateko usadioak babestearen alde. Horietako asko, herrian ospatzen diren jai gehienak kasu, jatorri erlijiosoa izan arren herrian erroto diren ekintzak eta herriko ondarearen "zati nabarmena" direla uste du EAJk. Horregatik, sozialisten babesarekin onartutako mozioan jasotzen denez, herriko usadio, ohitura edo kultura kontsideratzen diren ekitaldietan parte hartu ahal izango dute udalbatzako kideek. Hori bai, Udalak antolatutako ekitaldi ofizialak erlijio-kutsu gabekoak izango dira eta udal administrazioaren zerbitzura dauden kideek ez dute, orde-



Irabaziren Kontratazio Behatokia eskatzeko mozioaren bozketa unea. J.B.

LAIKOTASUNA ETA KONTRATAZIO BEHATOKIA, OSOKO BILKURAKO GAIK POLEMIKOENAK

kari gisa, erlijio kutsuko ekitaldietan parte hartuko.

EH Bilduk, bestalde, uste du halako debateak izatea beharrezkoa dela: "Udal ordezkari izateagatik parte-hartze pibilegiaturik ez izatea edozein ekimen erlijiosotan. Norbanako moduan joan gura badute horretarako askatasun osoa izatea da sanoena. Bestalde, orain arte ez dela gaia mahai gainean jarri? Bada, agian hau da momentua. Uste dugu gizarteak laikotasunaren bidetik doala eta instituzioetan halako eztabaidak ematen joan behar garela".

Kontratazioei jarraipena egitea

Bilkuran hautsak harrotu zituen beste gai bat izan zen Irabazik proposatutako Kontratazio Behatokiarena: "Udalak behatoki bat izan dezala bermatuko duena azpikontratutako zerbitzuak

zehatz-mehatz betetzen direla eta enpresa horietako langileen eskubideak errespetatzen direla". Gobernuak, baina, ez zuen onartu, gaur egun lan hori Kontratazio Mahaiak egiten duela argudiatuta. "Herriar askok ez dute ezagutzen eta horregatik, Erlojuaren Eraikineko proiektua esleitzen dugunean komunikabideak gonbidatuko zaituztegu ikusteko mahai hori irekia dela, bertan egoten garela alderdi politikoak –nahiz eta mahaia kritikatzaren dutenak ez diren sekula etorri–, idazkari nagusia, kontratazio teknikariak eta enpresak. Existitzen den organo hori hobetzearen alde gaude, baina horretarako bertaratu beharra dago, nola funtzionatzen duen ikusi eta ondoren proposatu", dio Maria Ubarretxena alkateak. EH Bilduk Irabaziren mozioa babestu zuen ekarpen interesgarria dela eta gaiak herriarrei zuzenean eragiten die la iritzita. Bestalde, adierazpen instituzionala ere onartu zuen udalbatzak, Euskararen Eguna- ren harira (ikus 11. orria).

Martitzeneko bilkura osorik ikusi ahal da bihar, zapatua, Goiena telebistan (21:00).



NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

Oroitzapena Sarri

Egunak atzoz bete zaizkit, poema haiek lehenengoz irakurtzen nituen sentimendu bertsuaz. Egunkariko zure argazkiak piztu ditu garai bateko pentsatzeak; eta oroitzapenak, bata besteari jarraian, gorputzean gora hasi zaizkit igotzen (neguko kearen antzera). Erlojuak ez du atzoko ordu bera markatzen, baina begira orratzak uneka ari direla herdoiltzen! Eta jarraituko dutela trenek estazioak zeharkatzen.

Euria erortzen da, kristala bustiaz, bagoiak bustiaz, trenbideak bustiaz. Zenbat aldiz galdu izan naizen behe-lainotan ... Beti dago bihotz zatitu bat erdiz trenean doana eta erdiz estazioan geratzen dena.

Eta amestutako paisaiak kantu bihurtzen zaizkit leihotik bestaldera begira; larre berdeak, etxe zuriak eta teilak ... gerezien kolorekoak! Auskalo gereziondoak hazi eta loratuko diren urtaro honetan.

Ez iezadazu nondarra naizen galdetu, aitzitik, nik ere poltsiko zulatuetako harri bustiak besterik ez dizkizut erakutsiko; hau baita izan, ene ondasun guzia.

Gabonak: argiak eta izotz-pista aurten ere, "kaleak girotzeko"

Alecop enpresa eta Al-Andalus elkarteak izango dira argiteria pizteko arduradunak; gaur, Portaloian (19:00)

J.B. ARRASATE

Iazko erabakiari eutsiz, Gabonetako argiak eta izotz pista jarriko ditu Udal Gobernuak, azaldu duenez, azken urteetan Arrasateko kaleetan galdutako Gabon giroa berreskuratzeko. Argiak pizteko ekitaldia egingo dute gaur Portaloian (19:00), udal ordezkariekin eta Goikobalu abesbatzako umeekin. Argiak pizteko arduradunak izango dira aurten 50 urte bete dituen Alecop enpresa eta iaz mende laurden bete zuen Al-Andalus elkarteak. Argiak alokatzearen eta jartzearen au-

rrekontua 21.139 euro da (BEZa barne). Bestalde, aurten ere izotz pista jarriko dute Biterin –24x14 metroko azalerarekin–, abenduaren 23tik urtarrilaren 9ra. Pista ordu erdiz erabiltzeagatik umeek euro bat ordaindu beharko dute eta helduek, berriz, bi euro. Aurrekontua 31.100 euro da (BEZa barne). Gainera, abenduaren 6an San Nikolas eguneko boloa egingo dute; erdigunean Herriko plazan izango da (12:00) –euria egin ez gero, Uarkapen–. Musakolan ere egingo dute, Herri Eskolako patioan (12:00).

Amaia Arzamendik irabazi du ArtGazki elkartearen lehiaketa

ArtGazki-ren udazkeneko argazki lehiaketako lehen saria (300 euro) Amaia Arzamendik irabazi du *Perretxikoa* izeneko argazkiarekin. Bigarren saria (200 euro) Andoni Inarraren *Haizearen menpe* argazkiak irabazi du eta hirugarrena (100 euro), azkenik, Inaki Nuñezen *El Bosque*-k. Aspanogi elkartearen aldeko argazki lehiaketa da.

ARRASATE IRRATIA

'Igo autobusera!' saiorik ez da egongo

Datorren astean ez da *Igo autobusera!* saiorik egongo. Hala ere, zozketan parte hartzeak aukera egongo da: *Kooltur Osetgunak*-en barruan Bullet Proof Lovers taldeak abenduaren 8an gaztetxean (22:00) eskainiko duen kontzerturako bi sarrera zozketatuko dira. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo irratia@goiena.eus.

Euskararen Eguna bihar, dantzaz eta abestiz blai

Aurten zapatuan denez, ikastetxe, euskaltegi eta ludotekek lehenago egin dituzte euren ospakizunak. Hala ere, ospakizun eguna izateaz gain, urte osoan zehar euskara erabiltzeko konpromisoa hartzeko eguna izatea nahi du Arrasateko Euskalgintzak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Beste behin, abendua heltzeaz bat, euskaltzaleek bat egingo dute Euskararen Eguna ospatzeko.

Aurtengoak badu berezitasun txiki bat, zapatua izateak ikastetxe, euskaltegi eta ludotekek aldeztu aurretik ospatzea eragin duelako. Ospakizun nagusia 19:30ean izango da Seber Altube plazan. Jose Ramon Vitoriak berriki konposatutako *Batzen* dantza herrikoia baliatuz, kalejira egingo da herriko kaleetan zehar, berriro Seber Altubera itzultzeko. Behin bertan, kanta aski ezagunak abestuko dira Portaloi taldekoen laguntzarekin, eta horren ostean hasiko da ekitaldi nagusia.

‘Pauso bat aurrera, 1.000 pauso!’

Hori izango da aurtengo ekitaldi nagusiaren izenburua, azken lau asteetan martxan izan den *Baietz 1.000* erronka bete dela irudikatzen. “Laburra eta xu-

mea izango da, baina, aldi berean, esanahiz bete. Mosaiko osoa ikusiko dugu bertan, eta, sokadantzaren bitartez, euskara elkarri emateko prest gaudela irudikatuko du. Euskara modu aktibo eta gozoan partekatzen, eskuz esku eta pausoz pauso, *Pauso bat aurrera, mila pauso!* direlako”, adierazi dute AEDtik.

Adierazpen instituzionala

Martitzenean egindako osoko bilkuran, Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala irakurri zuten. Horren harira, zera aipatu zuen Maria Ubarretxena alkateak: “Nik uste dut euskarari dagokionez beste garai batean gaudela, eta horretara egokitzen diskurtsoa eguneratu behar dugula. Instituzioetako eta udaletako inertzia astintzeko garaia da. Zentzu horretan, Gipuzkoa da gehien hitz egiten den probintzia, eta aldaketa horretako motorra izan behar gara”.



Auzokoak egitasmoko kideak Euskararen Eguna babesten. AED

Alkoholaren eta drogen eraginei buruzko saioak tabernariekin

Haien kontsumoarekin lotutako arrisku legal, fisiko zein psikologikoak landu dituzte herriko hamahiru ostalarik

X.G. ARRASATE

Prebentzio Sailaren eskutik herriko tabernariei zuzendutako bi formazio saio egin dituzte azaroan zehar.

Ekimen horren helburu nagusia da tabernariei baliabideak eskaintzea bezeroek egiten duten alkoholaren eta beste droga baten kontsumoarekin lotutako arazoei aurre egiteko. Horren baitan, kontsumoei lotutako arrisku legal, fisiko zein psikologikoak ezagutu eta arrisku horiek murrizteko jarraibideak eman nahi zaizkie ostalariei.

Arrisku egoerak detektatzeko gaitasunetan trebatzea ekimenaren helburuen barruan sartzen da, batez ere, kontsumitzaileak adingabeak diren kasuetan.

Herriko hogeita tabernari eman zaie formazioan parte hartzeko aukera eta hamahiruk onartu dute gonbidapena. Parte hartzaileak pozik azaldu dira Prebentzio Sailaren ekimenarekin: “Drogen inguruko ezagutzan sakondu dut eta eramangarria iruditu zait. Balia garria”.

ARGIA

Zer emateko prest zaude? Eta zer jaso nahi duzu?

**INDARTU DEZAGUN
INDARTZEN GAITUENA**

EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA

www.argia.eus/eginargiakoa #ArgiaJendea



Santamas krosa, 2014an. Korrikalariak Arbolapetara iristen. GOIENA

Santamasetako krosa, 40 urte betetzeko atarian

Arrasate Atletiko Taldea Kantanzarrek antolatzen duen lasterketak –Enrike Kabiketa memoriale– 39 urte beteko ditu abenduaren 18an. Ohi bezala, goizeko lehen orduan gaztetxoendako probak izango dira; koadrilen arteko lasterketa 12:30ean

Xabier Urzelai ARRASATE

Koadrilen arteko Santamas krosa da jaiak gainean dauden iragarle onena. Abenduaren 18an egingo dute aurtengo krosa, ia lau hamarkada lasterketa antolatzen, hasierako helburua zentimetro bat ere mugitu barik: "Askok esaten digute han eta hemen publizitatea egiteko, lasterketa iragartzeko, ea, horrela, esaterako, kostaldeko jendea gerturatzen den. Baina guk ez dugu halakorik gura, kros hau Arrasateko eta inguruko koadrilendako antolatzen dugu, egin dezatela egun batez lagunartean korrika, ez dugu gehiago behar", dio Fernando Zufria Txufi-k.

Iaz, esaterako, 260 lagun batu ziren irteera puntuan, eta due-

la bi urte 300 korrikalari izan ziren krosean: "Aurten ere detailtxo bat egongo da korrikalariendako".

Zirkuitua, iazko berbera

Iaz nobedadea izan zen korrika egiteko zirkuitu berria: "Itzuli bakoitza luzeagoa egin genuen eta guztira 3 itzuli egin zituzten korrikalariak, ia 6 kilometro.

Lehen, bost itzuli egiten genituen, eta jendea nekatu egiten zen; gainera, azkarrenek hainbatetan aurreratzen zaituztela ikusteak ez du graziaz egiten [Barre]".

Hala, aurten ere iazko ibilbideari eutsiko diote. 10:30etatik 12:00etara gaztetxoak ibiliko dira –5 eta 14 urte bitartekoak–, eta koadrilen krosa 12:30ean izango da.

Arnaiz bosgarren maratoi erdian

Azken urteotan Beñat Arnaiz izan da Santamas Krosean azkarrena –iaz Nere Arregirekin batera– eta badirudi aurtengo edizioan ere aurrean ibiltzeko sasoia daukala, joan den astean Donostian egindako maratoi erdian bosgarren sailkatu zen eta (1.11.51). Bitxikeria moduan, esan behar da Stockholm-eko Fredi Uhrbom izan zela azkarrena (1.07.39), 2015eko Torreauroko krosetako irteera puntuan azaldu eta lasterketa erraz irabazi zuen gizona.

Maratoian, berriz, ibarrekoen artean azkarrena Oliver Hernandez izan zen (2.43.03). Eta, hiru orduren laga azpitik ibili ziren, baita ere, Ganix Lasa (2.51.30), Iñaki Vazquez (2.53.22) eta Mikel Lasa (2.59.26) arrasatearrak. Iaz Gipuzkoako txapeldun izan zen Nere Arregik ezin izan zuen txapela defendatu, lesio batengatik.

**IAZKO ZIRKUITU BERA
IZANGO DU KROSAK:
HIRU ITZULI EGIN
BEHARKO DITUZTE, SEI
KILOMETRO GUZTIRA**

"Baskoniatik dator Riki; oso gaztea da eta ikastera dator"

Urretxuarra joan den astean hasi zen Arrasaten entrenatzen; zalantzan dago etzi jokatuko duen

X.U ARRASATE

Ez da sekretua aurten barruko jokoan MUK beste urte batzuetan baino zailtasun handiagoak dituela. Orain arteko hiru garaipenak kanpoko jokoan neurria emanda eta defentsan sekulako lana eginda lortu ditu talde zurimoreak.

Hala, barruko jokoan taldea indartzeko asmoz hasi da Urretxun jaiotako Riki Mendizabal Iturripen entrenatzen: "Baskoniatik dator, baina, libre zegoela jakinda, harremanetan jarri ginen, eta guregana etortzeko proposamena egin genion", adierazi du Josu Larreategik.



Riki Mendizabal, Iturripen. OINTXE.COM

19 urte eta bi metro

Larreategik badaki Mendizabal ez dela barruko jokoan arazo guztiak konponduko dituen gizona: "Ikastera dator; 19 urte baino ez ditu eta gogorra egin-

go zaio kategoria honetan jokatzea".

Baskoniak haren fitxa ordezkatu arte ezingo du MUKekin jokatu: "Ea domekan joka dezakeen. Zarautzen dugu partidua, eta taldeak garaipena behar du".

Mondratek tinko eusten dio lehenengo postuari

Joan den asteburuan Euskaldu- na Andoaindarra taldeari 2-6 irabazi ostean, Mondratek Gipuzkoako Txapelketako sailkapenean lider jarraitzen du, jokatutako 10 partiduetatik 7 irabazi ostean (23 puntu). Oraingo asteburuan, berriz, etxean jokatuko dute, sailkapenean 11. postuan dagoen Jaixki AFT taldearen kontra.

Urdulizen lepotik zuzendu gura du bidea Ford Mugarrik

Azkeneko bi partidua jarraian galdu ostean –urteak dira Ford Mugarri Arrasatek halakorik bizi izaten ez zuela–, asteburuan Urdanetaren bisita izango dute Iturripen (zapatua, 17:00, Iturripe). Bizkaitarrak hirugarren daude sailkapenean, 10 partiduetatik zazpi irabazita, eta mondragotarrek bost irabazi eta bat berdindu dute.

**VILLAR
ILE-APAINDEGIA
SALGAI**

Nire jabearen erretiroagatik saltzen naute. Betiko bezeroek ni erostea eskertuko dizute!

ESKORIATZA
Tel.: 635 72 36 83
943 71 50 42

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Marta eta Ima Ruiz ahizpak. BELUN UNE AHATZTEZINAK

"Eskerrak eman nahi dizkiegu gure bezeroei"

MARTA ETA IMA RUIZ KAPIKUA DENDAKO JABEAK

10 urte bete dira Arrasateko San Andres auzoko Kapikua denda ireki zutenetik, eta bihar, zapatua, erosleentzat abantaila bereziak izango dira, ospakizun modura.

Familia negozioa da Arrasateko San Andres auzoan dagoen Kapikua denda, eta Ima eta Marta Ruiz ahizpak daude haren atzean. Bihar, zapatua, hamargarren urteurrena ospatuko dute. Urte hauetan guztietan eurengan jarritako konfiantza eta babesa eskertu nahi diete bezeroei, eta, horregatik, deskontu eta zozketa bereziak egingo dituzte dendan.

10 urte bete ditu Kapikuak. Nola hasi zen guztia?

Familia negozioa da hau. 1989an, lokal honetan bertan, gure guraseok, Marcelino Ruizek eta Asuncion Oyagak, drogeria bat ireki zuten. Urteetan zehar negozioa aldatzen joan zen, eta duela 10 urte guk biok hartu genuen lokalaren ardura, Kapikua irekita. Beraz, gurea auzo-

ko denda bat da, familiakoa, eta urte luzeko ibilbidea duena.

Bihar, zapatua, izango da ospakizun handia, eta bezeroendako abantaila bereziak izango dira. Zeintzuk?

Dendako produktu guztiek %30eko deskontua izango dute egun osoan. Horrez gain, egun horretan zerbait erosten duten bezeroen artean 100 euroko bonua zozketatuko dugu. Bestalde,

Facebooken beste zozketa bat egingo dugu: publikazio bat elkarbanatzen dutenen artean beste 100 euro zozketatuko ditugu. Sorpresak ere egongo dira; beraz, jendea animatu nahi dugu gerturatu dadin. Horrez gain, gogora ekarri nahi dugu hilero dendako bezeroen artean zozketa bat egiten dugula.

Urteotan bezeroen fideltasuna lortu duzue. Zein izan da sekretua?

Bai, eta hori eskertu nahi dugu zapatuan egingo dugun ospakizunarekin, hamar urteotan eman diguten konfiantza. Horrez gain, noski, bezero berriei ongietorria egin nahi diegu. Zabaldu genuenetik lanean gabiltza, eta urtez urte gure burua berrasmatzen joan gara. Esaterako, hasieran, osagarriak eta opariak ziren dendako produktu nagusiak, eta orain, berriz, arropak hartu du leku hori. Horrez gain, jendearen beharrei egokitzen joan gara. Hala, egubakoitzetan eguerdian ez dugu ixten, lanagatik edo bestelako betebeharrengatik ohiko ordutegian etorri ezin direnei aukera bat eskaintzeko. Aurrerantzean jarrera honekin jarraituko dugu, ikasteko gogoz eta ilusio handiz.

Zer topatuko du Kapikuan sartzen den bezeroak?

Denetariko arropa eta osagarriak, bai okasio berezietarako, baita egunerokoan erabiltzeko ere. Adin guztietako jendearentzako arropak eta osagarriak ditugu. Gehienbat, emakumezkoendako gauzak ditugu, baina gizonezkoendako osagarrien sail bat ere badugu.

Neurri handietako arropetan eskaintza zabala duzue.

Hala da, bai. 42tik 60ra arteko jantziak erabiltzen dituztenek gurean ez dute arazorik izango arropa topatzeko. Guk uste dugu

neurriak ez duela norberaren janzkera mugatu behar. Horregatik, neurri eta gustu guztietarako arropak ditugu Kapikuan. **Hori, produktuei dagokienez. Eta arretaren aldetik?**

Atentzio pertsonalizatua jasoko du hona sartzen denak. Gertutasuna eta aholkularitza eskaintzen dugu. Laguntza nahi duen orori aholkuak emango dizkio, haren gustuak eta nahiak kontuan izanda. Inork ez dezala zalantzarik egin sartu eta galdetzeko orduan, horretarako gaude eta! Etor daitezela konpromiso barik, beraz.

Produktuen kalitatea da zuen lehen-tasunetako bat.

Ekoizle txikiekin egiten dugu lan, eta, halakoetan, kalitatea asko zaintzen da, bai erabilitako materialei dagokienez, baita haiek lantzeari dagokionez ere. Gainera, oso berritzaileak izan ohi dira, eta, sarri, marka eta kate handiei aurreratzen zaie tendentziei dagokienez.

Sare sozialetan aktiboak zarete.

Bai. Facebooken orrialde bat dugu, eta bertan dendan ditugun produktuak erakusten ditugu. Horrez gain, orrialde horren bidez jendearen galderak erantzuten ditugu eta bezeroak artatzen ditugu sarri.

Modeloak Arrasatekoak bertakoak izaten dira gehienetan, gainera.

Hala da, Arrasateko neskak dira. Gure lagun edo bezeroek egiten dute modelo lana, dendan bertan dugun arropa jantzita. Oso eskertuta gaude horregatik.

"GUREA AUZOKO DENDA BAT DA, FAMILIAKOA, ETA URTE LUZEKO IBILBIDEA DUENA"

kapikua
MODA ETA OSAGARRIAK

%30eko

deskontua jantzi eta osagarrietan

ETOR ZAITEZ 10. URTEURRENA GUREKIN OSPATZERA!

ABENDUAK 3

SORPRESAK, ZOZKETAK...

anartxy.

ANITYO

CARISAL FASHION

CENSURED

THE BOUTIQUE

GS

MINIAR

GUIMANDOS

MEISIE

MISSING JOHNNY

Holly BRACKEN

mtm

MUNDI

noa ecco

MODA

pastacuta

PRIVATA

SPG Jemman

Y SURFREY

MAU



Duela urte batzuk Galartaren margolanekin Kulturateko klaustroan egindako erakusketa. GOIENA

Inbentarioa, Galartaren ondarea ezagutzeko

Julio Galarta Pintorearen Lagunak Elkartek aste batzuk daramatza artista arrasatearrak margotutako koadroen gaineko datuak biltzen. Lan kantitatearen gerturatze bat egitearekin batera, margolariaren izena ekarri nahi dute gogora

Ibon Carmona ARRASATE

Julio Galarta pintore arrasatearra koadro asko margotu zituen. Ahalik eta lan gehienak bildu nahian, Julio Galarta Pintorearen Lagunak Elkartea inbentario bat egiten ari da. Arrazoi horregatik, elkarteak dei egiten die etxean Galartaren koadroren bat daukaten partikularrei, horren gaineko datu orokorrak elkartera bidal ditzaten.

Milako zifrara iristen

Alvaro Arregi elkarteko lehendakariak esan du jendeari parte hartzea kosta egiten zaion arren pixkanaka-pixkanaka badoazela margolanak biltzen. "Elkarteak kontatuak zituen 650 lanez gain, Galartaren lanen iazko erakusketekin batera, beste ehun bat gehiago jaso ziren. Orain, milako zifrara iristeko bidean gaude, eta kantitate horretan markatu dugu lehen helburua".

Behin mila koadro bilduta, horien gaineko datu ezberdinak

jasoko dira, baina, aldi berean, elkarteak partikularrei etxeetan dituzten koadroen gaineko datuak eskatzen jarraituko du.

Bi helburu

Inbentarioaren helburuetako bat artista arrasatearraren lan kantitatearen hurbilketa bat egitea da. "Jendeak 3.000 koadro inguru margotu zituela esaten du. Inbentarioarekin, sekula ez dugu jakingo zifra konkretua zenbatekoa izan zen, baina ideia bat egiteko balio izango digu", gaineratu du elkarteko lehendakariak.

Haren lan kopuruaren gerturatze bat egiteko erabiltzeaz gain, inbentarioa Galartaren

DIOTE 3.000 KOADRO INGURU MARGOTU ZITUELA, BAINA ZIFRA KONKRETUA EZ DA INOIZ JAKINGO

izena mantentzeko eta gogoan izateko erabiliko da.

Datorren urtean erakusketa

2017a pintore arrasatearra jaio zeneko mendeurrena izango da, eta, horren harira, elkarteak erakusketa bat egingo du. "Udalarekin kontaktuan gaude, eta udako oporren osterako egitea espero dugu", esan du Arregik. Erakusketa horretan, partikularrek utzitako lanez gain, herriko bazterrak agertzen diren koadroak ikusi ahal izango dira.

Datuak emateko epea zabalik

Inbentarioa egiten jarraitzeko, Galartaren margolan baten gaineko datuak emateko prest dagoenari, elkarteak Arregi Arte dendarra gerturatzea edo galar-taelkartea@gmail.com helbidera idaztea eskatzen dio.

Bidali beharreko datuetan, koadroaren motiboa, data eta neurriak zehaztea komeni da, betiere, jabeak horiek baldin badakizki.

Gorakada konpainiak 'Moby Dick' antzerkia eskainiko du

Emanaldia bihar egingo da Amaia antzokian (17:00), eta sei urtetik gorako ikusleei egingo da zuzendua

I.C. ARRASATE

Konpainia durangarraren antzerki obrak XIX. mendean Herman Melville idazle estatubatuarrek idatziriko literaturako klasikoa izango du oinarri. Sarrerek 5 euroko prezioa izango dute, eta, egunean bertan antzokiko leihatilan eskuratzeko aukera izateaz gainera, Arrasateko Udaleko eta Kutxabankeko *on line* leihatiletan ere eros daitezke.

Julio Salvatierrak moldaturikoa da Gorakadaren *Moby Dick*, eta, Juan Carlos Garciaen zuzendaritzapean, Aritz Rodríguez, Jose Cruz Gurruixaga eta Eriz Alberdi aktoreak arituko dira taula gainean.

Umorea eta fantasia

Antzerkian, umorearen eta fantasiaren bitartez literatura unibertsaleko istorio honen handitasuna islatzen saiatu dira, aktore, musikari eta txotxongilo ezberdinen bitartez.

Antzezlaneko ekoizle eta zuzendari artistiko Alex Diazen esanetan, ez dute eleberria osorik eszenaratzen, baina itsasoaren, kaxaloteen eta pertso-

naien gorabeheretan murgiltzeko aukera ematen diete haurrei, imajinazioa martxan jarrita. "Antzerkian kontatzen denaren bitartez, erakutsi baino gehiago aditzera eman nahi da, imajinazioari bere tarte utzita. Arrazoi horregatik erabaki dugu gutxieneko errekurtsioak erabiltzea", dio Diazek. "Modu horretan, erabiliko diren soinu-elementu ezberdinen bitartez, ikuslea ozeanoaren erdian dagoen sentsazioa sortu nahi izango da", gaineratu du.

Melvillen eleberria oinarri

Ismael marinela *Pequod* baleontzian bizi izango dituenak kontatzen dira antzezlanean. Konpainiak maiz hartzen ditu oinarri literaturako klasikoak, istorioei gaurkotasan puntu bat emanda, baina bertan kontatzen dena aldatu gabe.

Haurrei zuzenduta

Diazen esanetan, edonork ikusi dezakeen antzezlan da, baina, obraren iraupena eta transmititu nahi dena kontuan izanik, sei urtetik gorako haurrei gomendatzen zaie.

Bullet Proof Lovers izango da hurrena Kooltur Ostegunetan

Rock-and-roll leherkorra egiten duen boskotea izango da datorren eguneko Kooltur Ostegunetako gonbidatua.

Taldeak Kurt Baker musikari iparamerikarra du abeslari. Harekin batera, Donostiako punk-rock eszenako hainbat musikarik osatzen dute taldea: Luis Costa, Joseba Arza, Gonzalo Ibañez eta Juan Irazuk. Duela bi urte inguru Arrasateko gaztetxean ere izan ziren lehen diskoa aurkeztzen. Oraingoan, *Shot To The Heart* izeneko bigarren diskoa aurkeztuko dute.

Beti bezala, kontzertua 22:00etan hasiko da, gaztetxean, eta sarrerek 5 euroko prezioa izango dute.

Akordeoi lehiaketak abenduaren 9tik 11ra bitartean egingo dira

Beste urte batez, Kulturateko aretoak eta Amaia antzokiak Arrasateko akordeoi lehiaketak jasoko dituzte.

Egun horietarako, Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkar-teak, Arrasateko Udalarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, Arrasate Hiria Nazioarteko 24. Akordeoi Lehiaketa antolatu du. Bertan, munduko herrialde ezberdinetatik etorritako maila handiko akordeoi-joleek emanaldiak eskainiko dituzte.

Horrez gain, egun horietan zehar, Gipuzkoa mailako akordeoi lehiaketa eta jaialdia ere egingo dira.

Ate joka dator aurtengo Euskararen eguna

Herri lasterketa, luntxa eta euskal ginkanako sari banaketa egingo dira bihar, baina ekintza ugari antolatu dira aurretik. Euskal kantuen jaialdia eta euskararen bueltako hitzaldiak izan dira horietako batzuk eta antolatzaileak pozik daude emaitzarekin

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Aurrekari gisa hainbat ekitaldi antolatu ondoren, bihar ospatuko dute aramaiorrek Euskararen Eguna.

Askotarikoak izan dira aurretik prestatutako ekintzak; musikalak, kanpotik etorritako gonbidatuen esperientzietatik ikasteko baliagarriak edota euskararen etorkizuneko erronkei buruz hausnartzeak edo euskararen ginkana. Euskararen Jarraipen Batzordeko kideek antolatu dituzte, eta ekintza guztiek izandako emaitza ikusita balorazio positiboa egin dute.

Euskararen ginkana amaituta

Pasa den domekan amaitu zen euskararen ginkana. Bi astetan zehar, euskararekin lotutako galderak erantzunez aritu dira herriko gazte eta helduak eta honela geratu da sailkapena. Haurren mailan, Uxue Arana izan da garailea, eta Otxandioko Hontza Extrem abentura parke-joateko bost sarrera jasoko ditu. Leire Arrizabalaga izan da bigarrena eta Iraide Onaindiak jaso du Parte hartze saria. 30 eta 20 euroko erosketa jasoko dute hurrenez hurren.

Helduen ginkanan Bittor Kortabarria izan da irabazlea eta trukean bi pertsonentzako afaria eskuratuko du. Markel Arriola-bengoa izan da bigarrena eta Nora Altuna, aldiz, hirugarrena. Helduen pate hartze saria Mainer Etxebarriak jasoko du.

Sari banaketa bihar izango da, 11:30ean Herriko Plazan.

Bigarren herri lasterketa

Iazko lasterketak izandako harri-ona ikusita, aurtengo jarraipena ematea erabaki eta bigarren herri lasterketa antolatu dute. 12:00etan izango da eta adinka sailkatuta lau modalitate izango ditu. Sei urtetik beherakoek 270 metroko proba



Iazko herri lasterketaren arrakasta ikusita bigarren edizioa antolatu dute. T. MADINA

egingo dute, sei eta hamabi urte bitartekoek 725 metrokoa eta hamabi eta hamasei urte bitartekoek 2 kilometrokoa. Hamasei urtetik gorakoek bi buelta eman beharko dizkiote bi kilometroko ibilbideari.

Aurtengo, berrikuntza bezala kamisetak banatuko dira izena ematearekin batera eta prezioa hiru eurokoa izango da. Lasterketa ostean indarrak hartzeko luntxa izango da arkupean.

"Koloreak hizkuntza behar du existitzeko"

TXEMA PRECIADO
EHU-KO PLASTIKA IRAKASLEA

Euskararen Egunaren baitako azken hitzaldia egin zuten martitzenean. Bertan, Txema Preciadok koloreen euskal ikuskera azaldu zuen. **Hizkuntza bakoitzak koloreen ikuskera propioa al du?**

Hala da. Materia kolore gabekoa da, eta kolorea gure sentazioen interpretazioa da. Hizkuntza bakoitzak errealitatearen interpretazioa propioa egiten du. Adibide bat



XABI GOROSTIDI

jartzearen, hizkuntza batzuetan txakurrek lau hanka dituzte, eta beste batzuetan bi beso eta bi hanka. Ba koloreekin antzeko zerbait gertatzen da.

Non ikus daiteke euskal ikuskera hori?

Gorriarekin adibidez. Hitz askok daukate gorriak ematen duen gordin esanahia; kale gorrian, larru gorritan, gorriak ikusi... horiek ezin daitezke beste hizkuntza batean aplikatu.

Bizente Goikoetxea omentzeko kontzertu berezia gaur

Aramaioko Bizente Goikoetxea abesbatzak eta Arrasateko Parrokiako abesbatzak parte hartuko dute

X.G. ARAMAIO

Kontzertu honekin borobilduko Aramaioko konpositore handiaren heriotzaren 100. urteurreneko ekitaldiak. Kontzertu berezia izango da Aramaioko Bizente Goikoetxea eta Arrasateko Parrokiako abesbatzak batera prestatu dutelako. Bertan Goikoetxearen hainbat obra abesteaz gain, bere garaikideak izan ziren beste konpositore batuen lanak ere taularatuko dituzte.

Aramaiorrek irekiko dute emanaldia. Hiru abestiko kan-

taldia egingo dute, horietako bi Goikoetxearenak. Jarraian, arrasatearrek bost kanta abestuko dituzte, azken biak Goikoetxearenak izango direlarik. Emanaldia borobiltzeko, bi abesbatzek batera abestuko dituzte kontzertuko azken bi kantak.

"Arrasateko Parrokiako abesbatzarekin egin nahi izan dugu, betidanik abestu dituztelako Goikoetxearen obrak, gabon kanta, adibidez. Politza eta berezia izango da" azaldu du Antton Errarte Bizente Goikoetxea abesbatzako zuzendariak.

Lurrikara jasandako Ekuadorreko 126 familiari laguntza

2016ko apirilaren 15ean Ekuadorren izandako lurrikarak eragin larriak izan zituen bertako bizilagunentzat.

Kaltetutako familien premiak asetzeko laguntza kanpaina abiarazi zen, tartean Aramaion. Guztira 17.500 dolar batu ziren eta ditu hori 126 familia laguntzera bideratuko da.

Gureia auzoko lanak esleitzeko ezohiko osoko bilkura

Joan den asteko martitzeneko bilkuran aztertu zituzten aurkeztutako enpresen aurrekontuak eta guztira zortzi izan dira euren proposamenak aurkeztu dituztenak.

Lanak esleitzeko ezohiko bilkura egingo da abenduan, lanen esleipena urtea amaitu baino lehen egin ahal izateko.



CRISTINA ETXENAUSIA

Indarkeria matxista gaitzetsiz

Kontzentrazio jendetsua egin zuten pasa den egubakoitzean Herriko Plazan, indarkeria matxista ozenki gaitzesteko, eta ostean Sexijentziak askatuz bakarrikzeta ikusteko aukera izan zen.

Atzo Oihana Etxebarrietaren hitzaldia egin zuen, eta gaur, neska gazteei zuzendutako *Gure gunie* deituriko tailerra izango da Sastifan 17:00etan.

Ekitaldiz eta promozioz gainezka dator abendua

Aretxarte merkatarien elkarte eta Udala gertu daude Gabonak girotzeko; bigarrenegingo dute azoka, abenduaren 16tik 18ra bitartean, hogeitabat saltzailerekin, eta aurtun, lehenengoz, 10 euro oparituko dituzte merkatariak bonuen bitartez

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak eta Udalak elkarrekin gertatu dute Gabonetako kanpaina. Abenduko egunak girotzeko asmoarekin, eta herriko merkataritzak sustatu, ekitaldi mordo iragarri dituzte: "Esfortzu handia egin da egitarau sendoa gertatzeko aurtun", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak.

Aurtun ere izango da Gabonetako azoka, abenduaren 16tik 20ra bitartean. "Ekoizle zein herritarren aldetik erantzun bikaina izan zuen iaz, eta indartzea erabaki dugu", adierazi du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak. Horretarako, karpa handiagoa jarriko dute, ehun metro koadro handiagoa, hain zuzen ere.

Aretxarteko merkatariak eta herriko taldeek egingo duten desfilearekin zabalduko dute karpa hori, hilaren 16an, eta kaleetako Gabon argiak ere orduantxe piztuko dituzte. Ondorengo bi egunetan, oster, herriko hainbat ekoizle, saltzaile eta eragile elkartzeko dira azokan, hogeit inguru. Abenduaren 19an, oster, egurrezko jolasak izango dituzte han neska-mutikok, eta 20an, Gabonetako kontzertua eskainiko dute Leizarra musika eskolako kideek.



J.M. Uribarren, I. Miguel, M. Alberdi, U. Elkoro eta I. Elexpuru. MAITE TXINTXURRETA

10 euro opari bonuetan

Aretxartek ere dagoneko jarri du abian Gabonetako kanpaina; hain zuzen, Ibai Zangituk eta Mikel Alberdik egindako promozio-bideoak eman du horren berri. Lehenengoz jarri dituzte bonu bereziak herritarren eskura eta dagoeneko Arkupen dauzkate horiek eskuragai: "20 euro ordainduta, 10 euro jasoko dituzte debalde trukean", azaldu du Aretxarteko presidente Idoia Elexpuru. 200 dira guztira eta horiek erabiltzeko epea urtarriaren 5a arte dago.

Bestetik, urtero legez, zigiluen kanpaina egingo dute. Bi txartel emango dituzte: bata, dendetan eskuratutako zigiluarekin betetzeko; eta bestea, tabernetan eskuratutakoekin. Betetako txartelekin, gero, zozketa egingo dute eta sariak banatuko dituzte. Egutegia ere egiten dihardute Gabon bezperatan banatzeko bezeroen artean, eta gaztaina saltzailea ere etorriko bost egunetan. Bestalde, kortesiazko aterkiak eta orgak izango dituzte aurtun, dendetan, bezeroek behar dituztenean erabiltzeko.

Gabonei begirako ekitaldiak

Bonuak

- 20 + 10 euro bonuak; 20 ordaindu eta 10 euro opari.
- 200 dituzte, Arkupen.

Zigiluen kanpaina

- Aretxarteren komertzio eta tabernetan txartelak banatuko dituzte zigiluarekin osatzeko.
- Zozketa egingo dute horiekin urte bukaeran.

Desfilea

- Abenduaren 16an izango da Herriko Plazako karpan.

Azoka

- Abenduaren 17an eta 18an egingo dute karpan.
- Artisauak, ekoizleak eta dendariak izango dira.

Egutegiak

- Aretxarteko bezeroen artean banatuko dituzte.

Erakusleiho lehiaketa

- Erakusleihoak apainduko dituzte merkatariak abenduaren 5etik 30era.
- Bi sari banatuko dituzte onenen artean.

Gaztaina saltzailea

- Bost egunetan etorriko da.
- Herriko Plazan eta Mitarte kalean jarriko du postua.

Orgak eta aterkiak

- Aretxarteko komertzioetan eskainiko dituzte behar direnerako.

Gabonetako azoka

Artisauak

- Izaro Sanchez
- Iban Urreta
- Nerea Maskariano
- Nerea Uribetxebarria
- Joxe Ugarte

Ekoizleak

- Joxe Lonbide
- Amaia Murgiondo
- Mendibitzu
- Jakion

Aretxarte

- Belar Meta
- Mari Merke
- Amaia
- Lie
- Atai
- Tinta Beltza
- Txilarra
- Hankabeltz
- Orly

Beste batzuk

- UDA
- Hiruatx
- Aupa Hi
- Dabid Agirre

Sarrerak salgai antzezlanerako

Abenduko kultura egitaraua ekitaldiz gainezka dator. Kepa Errasti protagonista duen *Mami Lebrun* antzezlan izango da, adibidez, abenduaren 30ean; sarrerak salgai daude Arkupen, 4 eurotan.

Ekuadorko familiei lagundu dietenei eskerrak eman dizkiete

126 familiari lagundu ahal izan diote, besteak beste, Elkarheitzten eta Hiruatx elkarten bidez jasotako diruarekin

M.A. ARETXABALETA

Apirilaren 15ean Ekuadorren izandako lurrikarak sortutako kalteei aurre egiteko laguntza eskatu zuten eta hainbat herritarrek, elkarte eta erakundek erantzun zioten dei horri; besteak

beste, Hiruatxek, Elkarheitztenek eta Aretxabaletako Udalak. Orain, jakinarazi gura izan dute 17.500 dolar erabili direla kalteak jasandakoei laguntzeko eta 126 familiak jaso dutela era bateko edo besteko laguntza: "Zuen so-

lidaritaterari esker, Ekuadorko kostaldeko familia ugari euren bizitzak berregiteko aukera izan dute lurrikararen ondoren", adierazi dute Hiruatxeko kideek.

Jatekoa, ura eta lana

Richter eskalan 7,8 gradura iritsi zen lurrikararen ondorioz 662 herritar hil ziren Ekuadorko kostaldean, eta 28.500 lagun etxe barik geratu ziren; gainera, oinarritzko azpiegiturak –ura, argia, errepideak...– kalte handiak jasan zituzten. Jasotako



Ekuadorren aldeko festa. IÑIGO TRUEBA

diru laguntzarekin horri guztiari aurre egin gura izan zioten, batez ere, bi helbururekin: batetik, jatekoa bermatu eta ur garbia eta sendagaiak helarazi; eta bestetik, *cash for work* (dirua lanaren truke) ekimena bideratu; izan ere, askok galdu zituzten orduan bizirauteko zituzten baliabide apurrak. Ekimen horri esker, 105 laguneko hiru brigada antolatu ahal izan zituzten, baita zaborra biltzen eta birziklatzen diharduen emakume talde bat ere.



Jostailu bilketa deitu duten Guraso Foroak, Udaleko, Hiruatxeko eta ludotekako hainbat ordezkari. MIREIA BIKUÑA

Jostailu batekin irribarrebata sortzeko ekimena

Guraso Foroak, Udalak, Hiruatxeko eta Algara ludotekak bat egin dute jostailu eta diru bilketa egiteko herrian; abenduaren 16an eta 17an elkartuko dira Herriko Plazan eta jasotakoak Greziako eta Saharako kanpamenduetara bideratuko dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Jostailu bat, irribarre bat kanpaina deitu dute Guraso Foroak, Udalak, Hiruatx elkartek eta Algara ludotekak. Batetik, jostailuak jasoko dituzte, eta horiek, gero, Greziako eta Saharako kanpamenduetara bidaliko dituzte Oñatiko Hermansoloña GKEaren laguntzarekin. Eta bestetik, dirua gura dute Gurutze Gorriari emateko eta hemen go umeei jostailuak erosteko.

Dirua Gurutze Gorriari emateko

Abenduaren 16an (17:00-19:30) eta 17an (11:00-13:00) egingo dituzte bilketak Herriko Plazan; hain zuzen, Gabonetako azoka irekiko duten egunetan. Egubakoitzean, hilaren 16an, diru bilketa izango da bi ekintzaren bitartez: batetik, txokolatea eta bizkotxo zati bat eskainiko dituzte 2 euroren truke. Horretarako, herritarrei eskatu diete bizkotxoak egiteko etxean eta Herriko Plazara eramateko gero, 17:00etarako. Eta bestetik, euro

baten truke Gabonetako zuhaitzerako izarrak egin ahal izango dituzte umeei. "Gurutze Gorriak eskualdeko umeei jostailuak erosteko bonu-laguntzak saltzen ditu eta gure asmoa da ahalik eta bonu-laguntza gehien erosteko dirua batzea", jakinarazi dute antolatzaileek.

Jostailuak Greziara eta Saharara

Bi egun horietan, gainera, jostailuak eta eskolako materiala jasoko dituzte: margoak, marrazteko koadernoak, liburuak... Jostailuei dagokienez, egoera onean daudenak eskatu dituzte, eta pilarik gabekoak. "Mahai jolasek, puzzleak eta antzekoak fitxa guztiak dituztela bermatu behar da; hortaz, zenbatu etxean eta osorik ekarri", diote.

Ume bakoitzarendako opari bat jasotzea da asmoa: "Greziako eta Saharako kanpamenduetan dauden umeei bizi duten egoera latzari irribarre bat ipini gura diogu guztion artean", dio Maider Etxanizek, Gazteria teknikariak.

Jostailu eta diru bilketa

Abenduaren 16an dirua batzeko ekintzak egingo dituzte, baita jostailuak jaso ere bi egunetan.

Jostailu eta eskolako material bilketa

- Jostailuak osorik egongo dira eta txukun.
- Pilarik gabekoak.
- Mahai jolasak, puzzleak... fitxa guztiekin.
- Margoak, eskola zorroak, koadernoak, liburuak...

Diru bilketa

- Txokolatada: txokolatea + bizkotxo (2 euro).
- Eskulan mahaia: Gabonetako zuhaitzetan zintzilikatzeko izarrak (euro bat).

Euskararen Eguna aldarrikatu eta ospatuko dute egunotan

Mintzodromoa egingo dute gaur Huhezín eta bihar bertso saioa eta kontzertuak daude Loramendiren eskutik

M.A. ARETXABALETA

Ekitaldi ugari izango dira gaur eta bihar Euskararen Eguna aldarrikatzeko eta ospatzeko. MUn, esaterako, 14 eta 16 urte arteko gazteak elkartuko dira Gazte Mintzodromoa egiteko eta Arizmendi Ikastolako Basabeazpi guneko neska-mutikoak kalejiran irtengo dira Almengo ikasleekin batera.

Kurtzebarri eskolako kideek, ostera, atzo ospatu zuten eguna *Bihur dezagun Iturri gorri, euskararen txantxangorri* leloarekin.

Iristu taldearen egitaraua

Bihar, zapatua, Loramendi elkarteko Iristu gazte taldeak antolatutako ekintzak izango dira: *Gora euskara!* erronka goizean, bertso saioa eguerdian eta kontzertuak gauean. Herriar guztiak gonbidatu dituzte horietara.

Bideo jokoak sortzen eta magia egiten ikasteko saioak

Gaztetxoek -8 urtetik gorakoak- ikastaro bi izango dituzte Gabonetako opor egunetan, Arkupe kultur etxean, Gazteria Sailari esker. Alde batetik, irakatsiko dute bideo jokoak sortzen; abenduaren 26an eta 27an izango da hori, 10:00etatik 13:00etara. Eta nork bere ordenagailu eramangarria beharko du saio horretarako.

Erorikoak saihesteko ikastaroa egingo dute abenduaren 14an

Atxabalta Mugi egitasmoaren barruan, erorikoak prebenitzeko saioa egingo dute, Udalak, osasun zentroak eta Osasun Publikoak antolatuta. Abenduaren 14an izango da, 10:00etatik 12:00etara, Arkupen; 65 urtetik gorakoei bideratu diete, lesio gehien haien artean gertatzen direlako. Aholkuen eta laguntzen berri emango diete han.

Egitaraua

Abenduak 2

• **09:45-12:15**

Mintzodromoa MUn.

Abenduak 3

• **10:00** *Gora euskara!* erronkaren hasiera.

• **12:30** Erronkaren bukaera eta hamaiketakoa.

• **13:00** Bertso saioa, Lekaixoka bertso eskolaren eskutik; bertsolariak: Arkaitz Oñartzabal *Xamoa* eta Oihana Bartra.

• **22:00** Kontzertuak. Taldeak: Idoia eta Sara; Atsekabe; eta Txerrikumeak.

Bestetik, magia egiten irakatsiko du Imanol Ituiño mago bizkaitarrak. Abenduaren 28an izango da, 17:30etik 19:00etara bitartean. Bi ikastaroetarako izen-emate epeak zabalik daude hilaren 21a artean; bideo jokoen kasuan, 10 euro ordaindu behar da eta magia ikastarorako, 5 euro. Bi kasuetan, plaza mugatuak daude.

Bestalde, abenduaren 28an, Ituiñok magia ikuskizuna eskainiko du Arkupen, 22:00etan (sarrera, 4 euro).

'Un monstruo viene a verme' eta 'Zikoinak' filmak aste bukaeran

Ikusmin handia sortu duen *Un monstruo viene a verme* filma (Espainia, 2016, 110 min.) izango dute helduek gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30), astelehenean (16:00) eta hilaren 6an eta 8an (19:30). Umeei, ostera, *Zikoinak* marrazki bizidunen filma (Estatu Batuak, 2016, 90 min.) eskainiko diete bihar, etzi eta hilaren 6an (17:00).

Hasi dituzte bigarren faseko lanak egoitzan

Jose Arana zaharren egoitza eraberritzeko lanen lehen fasea amaituta, bigarrenari ekin diote. Beheko solairuan, jantokia handitu eta egongela, komunak-eta jarriko dituzte. Obrek sei hilabete iraungo dutela aurreikusten dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Hasi dituzte Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitzako bigarren faseko obrak. Azpiko solairuan hainbat lan egingo dituzte: jantokia handitu, aldagelak eta komunak jarri, lorategira irteera duen egongela handi bat sortu, harrera gela... besteak beste. Aurreikuspenen arabera, sei hilabete barru amaituko dituzte lanak, ahal badute lehenago, eta lan horiek guztiak egiteko 150.000 euroko aurrekontua izango dute.

Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitzako patronatuak erakina berritzeko hiru fase planteatu zituen. Lehenengo fasean, 143.000 euroko aurrekontuarekin, banakako lau gela berri jarri zituzten, hiru komunekin, eta horietako bat partekatutakoa, terraza egokitu zuten, igogailua jarri... besteak beste.

Bigarren fasea

Orain, aldiz, bigarren faseari ekin diote. Hainbat egokitzapen egingo dituzte beheko solairuan, zaharren egoitzan aldaketa handiena ekarriko duena. "Bigarren fasean, batez ere, azpiko solairua egokituko dugu. Lehenengo fasean, bigarren solairua egin genuen, eta orain, behean egingo ditugu lanak. Azken finean,



Langileak lanean Jose Arana zaharren egoitzan. I.B

etxean gehien igarriko den aldaketa izango da...", adierazi du Dorleta Sologaitztoak, Jose Arana zaharren egoitzako zuzendariak.

Sei hilabete

150.000 euro inguruko aurrekontuarekin egingo dira bigarren faseko lanak, altzariak barne, eta obraren iraupena sei hilabetekoa izango dela aurreikusten du zaharren egoitzako patronatuak. Lehenengo fasean, egin beharreko lanak egin zituzten, baina, funtzio-

namenduari dagokionez, bigarren faseko obren garrantzia azpimarratu du Dorleta Sologaitztoak, egunerokotasunean aldaketa nabarmena ekarriko duelako.

"Bere egunean, lehenengo fasea zen garrantzitsuena, egin beharrekoa izan zena. Behean zeuden gela batzuk desagertu egin behar zirelako, eta ez zituztelako betetzen beharrezko neurriak. Hori egitea Diputazioak exijitzen zigun, baina behin obretan hasita, etxeak behar batzuk zituela ikusi genuen. Hala, egoi-



Jantokia argitasunez beteta

Jantokia handituko dute, zaharren egoitzako atze aldera ematen duen terrazara irteera ipiniz. Gainera, leiho berriak jartzen ari dira egunotan, argitasuna handitzeko, eta eremu zabalagoarekin, egunerokotasunean erosoago ibiliko dira egoiliarrek zein langileak.

tzaren eraberritzea hiru fasetan egitea erabaki zen. Diputazioak hiru fasetarako baimena eskatzeko esan zigun, eta, lehenengo fasea garrantzitsua izan arren, bigarren fase honetan etxearen funtzionamendua aldatuko da, batez ere".

Pazientzia hurrengo pausorako

Aurrera begira, bigarren fasea amaitzean, lehenengo solairuan egin nahi dituzte lanak -hirugarren fasea deritzona-, baina oraindik pazientzia hartu beharko dutela azaldu du Sologaitztoak. "Bi pasillo ditugu gelekina eta bertako lurra eta komunak egokitu beharko ditugu. Horrez gain, egongela bateko paretak... desagerraraziko ditugu, egoiliarrek erosoago ibili daitezen egoitzan eta oztoporik izan ez dezaten".

Laguntza, ezinbestekoa

Garagardo azokan ateratako dirua, norbanakoena, Diputazioak emandakoa eta Eskoriatzako Udalarena beharrezkoak dira lanak aurrera eramateko. "Beti jasotzen ditugu laguntzak. Horrez gain, Garagardo azokako memoria bat egin gura dugu, parte hartu duen jendeari datuak zeintzuk diren erakusteko".

"BIGARREN FASEAK EGUNEROKOTASUNEAN ERAGINGO DU"

"SEI HILABETEKO LANAK LEHENAGO AMAITU NAHI DITUGU"

DORLETA SOLOGAITZTOA

Euskararen Eguna ekintzaz beteta egongo da Eskoriatzan

Axtroki Merkatarik Elkartek egun berezi horrekin bat egingo du, ekintza propioa antolatuta

I.B ESKORIATZA

Zapatuan, Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta, *Axtrokik ere euskaraz* esaldia eta Axtroki merkatarien logoa daraman ikurra jarriko dute Axtroki Merkatarik Elkartekoek euren 29

saltoki, taberna eta bestelako komertzioetan.

Ekimen horrekin, herritarrek gonbidatu nahi dituzte eguneroko erosketetan euskaraz egitera, eta, bide batez, egunean zehar egongo diren ekintzetan

parte hartzera ere gonbidatu nahi dituzte. Ekimen horrekin jarraitzeko asmotan, ikur horiek komertzioetako sarreretan izango dituzte urte osoan, Euskararen Egunean soilik beharrean, urte osoan euskarari bultzada emateko.

Axtroki Merkatarik Elkarteko Leire Errasti lehendakariak hau adierazi du: "Euskararen Egunean egingo diren ekintzekin bat egin nahi dugu. Hala, ekimen honekin, guk ere euskararen alde gure aletxoak jartzeko..."

Euskarazko jostailuen erakusketaren azken eguna da gaur

Aurten ere, Gabonen atarian, euskarazko produktuen jostailu erakusketa antolatu du Eskoriatzako Udalak.

Kultura etxean dagoen erakusketa eguaztenean ireki zuten, eta gaur izango da azken eguna bisitatzeko. Orduetgia, berriz, 17:30etatik 19:30etara bitartekoa da, eta, bereziki haurrei zuzendutako

jostailuak erakusgai dauden arren, bestelakoak ere egongo dira, adin guztietako jendea-ri zuzendutakoak.

Jostailu erakusketa amaitzeko, gaur, 18:00etatik aurrera, jolas rallya izango da, Herriko Plazan. Probatzeko eta jolasteko aukera izango da eta adin guztietako jendea-ri begira antolatutako egitasmoa da. Rallyko antolakuntzan, Udalaz gain, Tortolis ludotekakoak eta gaztelekukoak ere egongo dira.

Hizkuntza errolda sortu du Eskoriatzako Udalak

Hizkuntza errolda 2017ko urtarrilaren 2tik aurrera jarriko da martxan; Udalarekin harremanetan jartzean, udal jakinarazpenak zein hizkuntzatan jaso nahi diren adierazteko galdeketa egin zen, eta emaitzak atera berri dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak herritarren hizkuntza aukera ezagutzeko galdeketa egin zuen apirillean eta ekainean, hain zuzen ere, herritar bakoitzak Udalarekin harremanak euskaraz edo elebitan nahi ote dituen jakiteko. Hala, eskoriatzar bakoitzak berak aukeratutako hizkuntzaren

arabera jasoko ditu udal jakinarazpenak. Erroldatutako 18 urtetik gorako guztiei egin zaie galdeketa; hau da, guztira, 3.308 herritarri.

Hizkuntza erroldako datu horiek Udalaren datu base guztietan txertatuko dira, eta, urtariletik aurrera, herritarrei bidalitako komunikazioak ba-

koitzak egindako hizkuntza aukeraren arabera jasoko ditu. Gainera, urtero, urtarrilean, aurreko urtean 18 urte bete dituzten eskoriatzarrei galdeketa bera egingo zaie eta hizkuntza errolda eguneratuta izango da.

Erantzun ez dutenek, euskaraz

Azpimarratzekoa da galdeketa erantzun ez dutenei komunikazioak euskaraz bidaliko zaizkela, eta edozeinek, edozein momentutan, hizkuntza hautua egiteko edo aldatzeko aukera izango duela, udaletxeko harreara zerbitzura joanda.

Txantxangorriak komertzioetan

Euskara erabiltzeko gonbidapena egiten duen txantxangorriaren irudiak berriro eskainiko dizkie Udalak komertzioei. Bestalde, azaroaren 28tik abenduaren 9ra bitartean, udal eraikinetan txantxangorriaren pegatina txikiak herritarren esku jarriko dira.

LEINTZ GATZAGA | 19



Zenbait hazi landatu zituzten haurrek domekan, baratzean. GATZ MUSEOA

Hainbat hazi landatu zituzten herriko haurrek baratze berrian

Lehen konpost-gunea zegoen lekuan ortu bat jarri dute, Jakioneko eraikinaren eta transformadorearen artean

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Aurrerantzean, herriko haurrek denbora-pasa entretenigarria izango dute herrian, ortu bat. "Konpost-gunea kendu zutenean, bertan gelditu ziren haziak tomate batzuk irten ziren eta norbaiti bururatu zitzaion ortutxo bat egin zitekeela bertan", azaldu du Aitziber Gorosabelek, Gureleko kideak. Horregatik, Udalak hesitu egin zuen lur-eremu hura eta ortutxo bat egin dute han. Pasa den domekan, ilarrak, baba beltzak eta bera-katzak landatu zituzten, baita zenbait tulipan eta eskarola ere.


Gatzezko bonboiak

Bestalde, Gatz Museoan, gatz-bonboiak egiten aritu ziren zapatuan. Gureleko hamabi haurrek hartu zuten parte ikastaroan eta oso ondo joan zen saioa, bertaratutakoaren arabera.

Arrakasta ikusita, aurrerantzean ere mota horretako ekintzak antolatzea adostu dute gurasoen elkarteak eta Gatz Museoak, Gorosabelen arabera. "Orain, neguan, zaila izango da, eguraldiak ez duelako laguntzen, baina udaberri partean espero dugu elkarlanean ekintza berriak antolatu ahal izatea", onartu du.

Hizkuntza errolda datutan

ITURRIA: ESKORIATZAKO UDALA



GALDETUTAKOAK: 3.308. ERANTZUN DUTENAK: 2.224 (%67)



IMANOL SORIANO

Banden Topaketak arrakasta

San Asentsioko (Errioxa), Orduñako eta Eskoriatzako bandek kalejiran kiroldegirako bidea hartu zuten aurreko domekan. Kiroldegira heldu, eta han kontzertua eskaini zuten. Pelikuletako hainbat filmetako soinu bandak jo zituzten, besteak beste. Herritar ugari gerturatu ziren musikaz gozatzera, eta egun ederra pasa zuten batu ziren musikari guztiek.

Izaki Gardenak taldea akustikoan izango da Inkernu tabernan

Inkernuren hamahirugarren urteurren festa ospatzeko, Izaki Gardenak taldea izango da, akustikoan, Inkernu tabernan. Atxorrotx Kultur Elkartek antolatutako kontzertua abenduaren 9an, egubakoitzean, izango da, 23:00etan hasita.

Izaki Gardenak 2012. urtean Jon Basagurenen bakarkako abestiei forma emateko sorturiko taldea da. Iaz aurkeztu zuten azken lana, *Aurri gara* izeneko. Ordutik, 40 kontzertu eman dituzte, eta hilaren 9an, formatu berezian eskainiko dute emanaldia. Gitarra akustikoa-ekin, elektrikoarekin, teklatur-ekin eta hiru ahotsekin osatutako kontzertua, hain zuzen ere.

Kultura etxeko aretoa beteta, Cristobal Gutierrezen hitzaldian

Arrakastatsua izan zen Cristobal Gutierrez hezitzaileak kultura etxeko aretoan haurren zaintzari buruz eskaini zuen hitzaldia.

"Aretoa bete egin zen. Gai interesgarriak jorratu zituen eta giro polita egon zen", azaldu du Joannes Mendizabalek, Kultura zinegotziak.

Haurren hezkuntzari lotutako ikastaroari dagokionez, 20 pertsona inguruk hartu zuten parte asteburuan eta balorazioa positiboa izan zen. Hamabi saio izango dira guztira, sei asteburutan banatuta. Izan ere, asteburu bakoitzean bi saio egingo dira, zapatuan eta domekan. Hurrengo ikastaro saioa urtarilean izango da.

Ludoteka abenduan ireki dezakete, denbora emanez gero

Asteon egin dute azken bilera Gureleko kideek, eta abenduaren 12ko astean irekitzea gura dutela adierazi du Aitziber Gorosabelek, elkarteak kideak. "Hala ere, gestio batzuk egitea falta zaigu eta ez dakit ahal izango dugun", zehaztu du.

Irekitzeko aukerarik ez bada, urtarilean irekiko dute.

Orain arte bezala, pertsona bat egongo da kontratatuta monitore lanak egiteko eta asteen lau egunetan egongo da irekita: astelehenetan, martitzenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan –egunetan itxita egongo da—. Egunean ordu eta erdi egongo da zabalik, 17:30etik 19:00etara, maiatzera bitartean.

Euskara bultzatzeko ekintzak abenduan

Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta hainbat ekimen antolatu dituzte herrian, gehienak kultur sorkuntzaren bueltan. Besteak beste, tailerrak eta bakarrikizketak izango dira, eta Jardunek irakurzaletasuna bultzatzeko ekimen bereziak iragarri ditu

A.T./M.T. BERGARA

Bihar, abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna da. Horren bueltako hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta lehendabizikoa atzo iluntzean egin zuten: *Pintxo baten bueltan, gure sorkuntza aztertzen* tailer-tertulia.

Bihar, berriz, zapatua, Oxi-rondoko aisialdigunean hizkuntza jolasak izango dira 3-7 eta 8-12 urte bitarteko umeendako eta gaztetxoendako. Lehenengo adin taldekoek 17:00etatik 18:00etara bitartean sormena lantzeko ekintzak egingo dituzte. Nagusienek, berriz, ordu berean antzerki saio ireki bat landuko dute, eta, horren ondoren, bertso-oka jolasa egingo dute. Gero, talde biak batu eta Amaia Arriaranen eta Nerea Ariznabarretaren ipuin kontaketa saioaz gozatuko dute.

Bestalde, Osintxun bertso saioa izango da, 21:00etan, Txur-ringo tabernan, eta Jon Maia



Oihan Vegaren bakarrikizketa: *Zergatik praktikatzen dugu sexua gaztekeraz?* GOIENA

eta Onintza Enbeita gonbidatu dituzte.

Oihan Vegaren bakarrikizketa

Oihan Vega angiozartarrak *Euskararen espektakulue. Zergatik praktikatzen dugu sexua gaztekeraz?* bakarrikizketa eskainiko du,

20:00etan, Zabalotegin. Badirudi espektakulua harrera ona izaten ari dela; izan ere, bost urte daromatza emankizun horrekin, eta Bergarakoa 150. saioa izango da. Vegak "euskarari buruzko hausnarketa sarkastikoa" egitera gonbidatu nahi ditu herritarrek.



Elena Lete alkatea eta Ana Revuelta, Bedelkarko presidentea. M.T.

Bedelkarrek martxan jarri du aurtengo Gabon kanpaina

Merkatarien elkarteak eta Udalak lankidetzan jarraitzeko konpromisoa jasotzen duen hitzarmena sinatu dute

Maite Txintxurreta BERGARA

Bedelkar elkarteak eta Udalak, beste urte batez, hitzarmena sinatu dute. Lankidetzan aritzeko konpromisoaz gain, 12.000 euroko diru laguntza jasotzen du.

Horrez gain, Gabonetako kanpaina hasi du Bedelkarrek; turroi sortak zozketatuko dituzte, baita erosketa-txartelak ere.

Bestalde, umeendako jolas parkea jarriko dute Seminarioan abenduaren 3an, 4an, 10ean, 11n, 17an, 18an, 23an eta 30ean, eta bihartik aurrera ohe elastikoak izango dira Muniben. Horietan

ibiltzeko txartelak dendetan emango dituzte.

Erakusleio lehiaketa

Erakusleio lehiaketan izena eman daiteke abenduaren 12ra arte, 943761016 telefonora deituta. Oinarriak Udalaren webgunean daude ikusgai.

Gabon argiak

Udalak Gabon argiak jarri ditu herrian zehar, eta aurki piztuko dituzte. LED sistema darabilten argiak dira, eta hiru urtetako aurrekontua 19.118 euro da.

Irakurzaletasuna bultzatzeko

Jardun Euskara Elkarteak euskarazko irakurzaletasuna bultzatu nahi du, eta hainbat ekimen jarri ditu abian datozen egun eta asteetarako.

Ipuin kontaketa tailerra

Helduei zuzendutako ipuin kontaketa tailerra antolatu dute abenduaren 12, 15, 19 eta 22rako, 17:30etik 19:00etara. Amaia Etxebarriak emango du, eta, helduak tailerrean dauden bitartean, hurrek ipuinak sortzeko tailerra egingo dute. Interesdunek Jardunen izena eman beharko dute abenduaren 7a baino lehen.

"Ipuinak kontatzeko konfiantza garatzea, ahozko komunikazioa indartzea eta

haurrekiko harremanak bideratzea" du helburu tailerrak.

Liburuak, merkeago

Bestalde, liburuak merkeago erosteko ekimena ere jarri dute martxan. Abenduaren 12tik 17ra bitartean Bergarako Elkar Megadendan euskarazko liburuak erosten dituztenek erosketa txartela Jardunera eraman dezakete, eta bertan deskontua abonatuak dietek (%50ekoa helduen literaturan, %30ekoa gazte literaturan eta %15ekoa haur literaturan). Pertsonako bi liburu eraman daitezke. Euskarazko irakurketa sustatu eta euskal literaturaren produktzioa bultzatu nahi dute modu horretan.

Truke azoka

Azken urteetan bezala, liburu truke azoka ere jarriko dute martxan. Dagoeneko erabili ez eta egoera onean dauden euskarazko literatur liburuak Jardunera eramaten dituztenek liburu bakoitzeko txartel bat jasoko dute. Abenduaren 18an San Martin plazan egingo duten azokan txartelak liburuarekin trukatu ahal izango dituzte.

Irakurketa kolektiboa

Bukatzeko, abenduaren 18an, 12:00etan, Lev Tolstoi-ren *Zenbat lur behar ditu gizon batek?* liburuaz zatika irakurriko dute herriko eragileen eta herritarren artean. Jardun Elkarteak herriaren erdigunean irekiko duen lokal berrian izango da hitzordu hori.



NIRE USTEZ

JAIONE CARPINTERO

Aurreiritziak apurtzeko garaia

Euskal literatura eta musika azoka hasi berri den honetan, euskal kultura borborrean dago. Diskoak labetik atera berri dute talde askok Durangoko kulturaren plazan prest izateko.

Pozgarria da ikustea horietako talde asko emakumez osatutakoak direla. Euskal emakume musikariak azkenengo urteetan izan duen presentzia gorakada izan duela uste dut eta benetan alaitzekoa da hori.

Zaila da beraien lana. Aurreiritzi asko izaten ditugu plaza gainean ikusten ditugunean. Politikak diren edo ez diren errepertariz dugu beraien kantuetako hitzen atzean dagoen mezuari arreta handirik egin gabe.

Garaia aldatu direla uste dugu askotan, baina asko geratzen da egiteko oraindik. Euskal literaturan, adibidez. Badoa emakumea lurra eraiten poliki-poliki, baina, oraindik, bidean asko dago landatzeko. Bestela, hausnartu eta pentsatu, zenbat euskal idazle emakume ezagutzen dituzu? Eta gizonezkoak? Hara hor erantzuna.

Boluan frontoia estaltzeko asmoa aurrera doa

Proiektu teknikoaren idazketa esleitu du udalbatzak azaroko osoko bilkuran; Imara Ingeniaritza enpresak egingo du, 7.865 euroko aurrekontuarekin. Gainerakoan, batzordeetako gaien lanketari buruz eztabaida luzea izan zen hautetsien artean

Julen Iriondo BERGARA

Oposizioko alderdiak abstenitu egin ziren Boluko frontoiaren puntuan. EH Bildu forma arrazoiengatik, esleipen honen aurrean kontu-hartzaileak adierazi duelako ez dagoela "gastu horretarako diru izendapen nahikorik". Beraz, erabakiak ez duela legea betetzen eta aurreko agintaldian halakorik ez zutela onartzen gogorarazi zion koalizioak EAJri. Gobernutik adierazi zuten gastu honetarako kreditu aldaketa egingo dutela, eta hurrengo osoko bilkuran dena bideratuta geratuko dela.

Irabaziko Aiert Lizarralde, berriz, adierazi zuen frontoia

estaltzea ez dela "agian" Boluko bizilagunen behar premiazkoa: "Zenbat jendek eskatu die hor estalpe bat jartzeko? Ziurrenik hamarrek, hogeik... Baina Boluan 2.000 pertsona bizi dira, eta jakin behar dugu 2.000 pertsona horien benetako beharrak zeintzuk diren". Lizarralderi EAJtik adierazi zioten euren programan jasoa zutela asmo hori, eta programa hura betetzea dagokiela orain euri.

Asteleheneko osoko bilkuran, Indarkeria Matxistaren Kontra Egunarekin eta Euskararen Egunarekin lotutako mozioak ere onartu zituzten, eta EAJko zinegotzi Iñaki Arregik kargua

utzi zuen; Irune Galarragak ordezkaturiko du.

Eztabaida luzeak

Eztabaida luzeak izan ziren osoko bilkuran oposizioak agertutako zenbait kexaren kontura. EH Bilduk Gobernuari egotzi zion, adibidez, Sprilurrekin Larremendirako egindako lan-taren gaia Ekonomia Sustapen batzordean jorratu ez izana. EAJtik erantzun zuten zeuden berriak Hirigintza batzordean eta Tokiko Gobernu batzordean komentatu izan zituztela, eta Ekonomia Sustapenekoan landu ez bazen, zentzu horretan berri-rik ez zegoelako izan dela.

Bidegorri zati berrien planoak, Agorrosinen eta udaletxean

Gabonak arte egongo dira ikusgai; lehenengo lanak hil honen hasieran hasiko dira, autobus geltoki inguruan

J.I. BERGARA

Urteaga kalea eta autobus geltokia arteko -inguru hartan erreka ondoan doan bidegorriarekin egingo du bat- zatiaren lehen faseko lanak laster dira hastekoak. 144.668 euroko aurrekontua dute lanek, eta bidegorriko lanak aprobetxatuta autobus geltokia bera ere berantolatuko dute -haren atzeal-detik joango da bidegorri zati berria-.

Boni Laskurain kalearen hasieratik Ernai kaleko bidegorri hasierara arteko zatiaren lanek, berriz, 214.000 euroko aurrekontua dute. Proiektuaren exekuziorako kontratazio izapidea egunotan abiarazita, aurreikuspena da datorren udarako amaituta egotea lanak; izan ere, exekuzio epea sei hilabetekoa izango da, kontratua izenpetzen denetik.



Bidegorriaren planoak. OIHANA ELORTZA

Orain aurkeztu duten hirugarren bidegorri zatia Ernai kaletik Buruñao auzoko zubira joango da. Proiektua idazteko fasean dago egun, eta finantzazio publikoa eta pribatua izango dute lanek; inguruko enprekin harremanetan da Udala.



Hasi gara, urtero bezala, artisau-turroiak egiten.

Gogorra - Biguna - Gorringo txigortua - Pistatxo
Pontxe errusiarra - Laranja trufa - Cadiz - Txokolate pralina - Fruta
Deitu eta eska itzazu!

Ozaeta jauregia BERGARA | 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es | reservas@restaurantelasa.es | FB: koldolasajartetxea

LASA jatetxea

Afariak ostiral eta larunbat gau guztietan gure jangela berrian.
Giro jator eta atsegina. Musika-aureraketa onena.

Menuak aukeran

Eguneko menua: 29€
Karta berezia: 36€
Afari erromantikoa: 40€
Debagoiena: 48€

(BEZ barne)

Kinto-afari, despedida eta beste ospakizun batzuetarako aproposa.

Gabon jaietan abenduaren 24tik urtarrilaren 3ra itxita



Pol-Poleko lokala berritzeari ezezkoa

Astelehenean egin zuten batzarrean bazkideek ezezkoa eman zioten San Pedro kalean duten lokala berritzeko zuzendaritza taldeak egindako proposamenari: "Eraikin zaharra da eta obra handia egin behar da", adierazi du Bittor Alberdik

Xabier Urzelai BERGARA

Hirurogei lagun inguru batu ziren astelehenean ezohiko batzarrean. Landu beharreko gaiak bi ziren: batetik, datorren urtean Pol-Polek 75 urte beteko ditu, eta urteurrena zelan ospatu izan zuten berbagai: "Ditugun asmoen berri aurrerago emango dugu, badago denbora", adierazi du Bittor Alberdi presidenteak. Eta bestetik, mendi taldeak San Pedro kalean duen lokala berritzeko proposamena aurkeztu zuten.

Eraikin zaharra, kostu handia

Zuzendaritza taldeak egindako proposamenak ezezkoa jaso zuen:

"Batzuek proiektuarekin aurrea egin aurretik informazio gehiago gura zutela adierazi zuten, eta beste batzuek zalan-tzak erakutsi zituzten, ea Pol-Pol mendi taldea halako gastu bati aurre egiteko kapaz ote den".

Gauza asko esan ziren batzarrean, luze jo zuen gaiak. "Guk baietz uste dugu, kapaz garela obra ordaintzeko, eta lokal berriak aukera emango liguke lehen egiten ziren gauza asko egiteko. Egia da diru asko dela, lokala behar den moduan berritzeko 80.000 euro behar ditugu. Izan ere, San Pedro kaleko eraikinak oso zaharrak dira, Bergarako etxe zaharrenak daude

hor, eta lan handia egin behar da: egurrezko egitura konpondu, ustelduta dagoena kendu, hormak bota, komun berriak egin...". Horrekin batera, aurrekontu xumeago batekin egin zitezkeen obren gainean ere egin zuten berba, erdi-prezioan.

Azalpen gehiago eman

Ezezkoa jaso ostean, hurrengo pausoa zuzendaritza taldea ostera batzea izango da; hausnarketa egin eta aurrerago beste batzar bat egiteko asmoa erakutsi du Alberdik: "Behar diren azalpen horiek eman, eta lokala berritzeko proiektua hobeto erakutsiko dugu".

Martxan ditu BKEk Gabonetako zozketa eta material salmenta

Zozketan are sari hobeak izango dira aurten; arropa eta osagarriak erosteko aukera dute, bestetik, zaleek

Julen Iriondo BERGARA

Martxan du Bergara Kirol Elkartek urteroko Gabonetako zozketa. Aurtengo sariak izango dira: otar erraldoi bat -jan-edianak, BKEren kirol materiala, Realak ikusteko bi sarrera eta i-pad bat; lehenengo saria-; bizikleta elektriko tolesgarria -bigarrena-; eta bi pertsonarentzat asteburua -hirugarrena-.

Zozketarako txartelak salgai daude Agorrosin futbol zelaiko tabernan, Labegaraietako kiroldegian, Arkupe, Depor, Ariznoa, Bule, Irrintzi, Arrano, Dixula, Azpeitxi, Erreki, Kayak, Cafe Bergara eta Guria tabernetan, Sanchez ile-apaindegian eta Barcelo bidaietan.

Bestetik, eta hau ere Gabonei begira, salgai ditu BKEren futbol sailak taldeko kamisetak, poloak, txandalak, jertseak, motxilak eta poltsak. Eskaera egi-



Futboleko jantziak. BKE

teko bideak, hiru: bergarake@gmail.com helbidea; 679 25 90 08 zenbakia (Vicen); eta Agorrosin futbol zelaiko tabernan. Han bertan eta BKEren Bidekurtzetako bulegoan dago ikusgai material guztia. Eskaerak garaiz egiteko eskatu du zuzendaritzak.

Gazte taldearen urteko azken irteera

Abenduaren 11n egingo dute Pol-Poleko gazte taldearen urteko azken irteera. Eta, Kurtzebarrira joango dira, Eskoriatatik Atxorrotxera igo ostean. Eta Urkulu aldetik jaitsiko dira Aretxabaletara.

Irteera 08:45ean izango da, Pesako geltokian, eta asmoa da 15:30ean itzultzea. Izen-ematea Pol-Polen (astelehen, eguen eta egubakoitzetan, 19:00-20:00).



Pol-Poleko gazteen azken irteera Adarra mendira izan zen, urrian. POL-POL

Mutilen futbol talde nagusia eta saskibaloikoa, etxean

Sailkapenean laugarren dagoen Zestoa hartuko du Bergarak Agorrosinen, bihar -zapatua-, 15:30ean. Oraingoz igoerarako aurkari zuzen duen taldea zazpi puntura aldentzeko aukera dute mahoneroek. Saskibaloian, berriz, BKEk Goierri Quaker hartuko du Labegaraietan, bihar 18:00etan. Porrot bakarrarekin, lider da Goierri Quaker.

Gaur, Gipuzkoako Txapelketako bi partidu frontoian

Bi norgehiagoka jokatuko dira gaur -egubakoitza- Udal Pilotalekuan. 19:15ean hasiko da jaialdia: aurreneko partidua infantilen lehenengo urtekoena izango da, eta Bergarako Iker Etxanizek Legazpiko aurkaria izango du; bigarrena nagusien mailakoa izango da, eta Behar Zanako ordezkaria izango du aurkari Eneko Muguruzak.

DURANGOKO AZOKAN

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus

ARGIA



BIZI BARATZEA

23 €
19,50 €
harpideentzat

Zure baratzea sortzeko, moldatzeko eta eusteko behar duzun liburuak.



ILARGIAREN EGUTEGIA

4 €

Jakoba Errekondoren eskutik baratzea, fruitu arbolak, jardina eta basoa. Pello Zabalak aukeratutako eserak.



ALTZA PORRU

19,50 €
18 €
harpideentzat

Jakoba Errekondoren jakintza puntako 8 marrazkilarik umorez komiki bihurtuta.

Egileak egunero sinatuko ditu liburuak

ESKAERAK:
☎ 943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda

Bidaia, Josean Artzeren unibertsoan barrena

Gaur inauguratuko dute Laboratorium museoan *Ikimilikiliklik* erakusketa eta urtarilaren 8ra arte ikusgai izango da. Ikus-entzunezko sorkuntza da mostra hori, eta Artzeren eta Ez Dok Amairuko artisten mundua ezagutzeko aukera eskaintzen du

A.T./M.T. BERGARA

Gaur, egubakoitza, abenduak 2, Laboratorium museoak beste erakusketa bat inauguratuko du, 19:00etan: *Ikimilikiliklik*. J.A. Artzeren unibertsoa. Urta-rrilaren 8ra arte izango da hura bisitatzeko aukera.

Ohiko erakusketetatik aldentzen da museoak dakarren proposamen berri hori. Izan ere, ikus-entzunezko sorkuntza bat da. Alberto Lizarralde eta Carlos Rodriguez dira zuzendariak. Lizarralde honela deskribatu du zein den lortu nahi izan duten efektua: "Joseanekin [Artze] erakusketa bat sortzeko aukera komentatu nuenean, ideia zen ez izatea argazkiz eta testuz osatutako ohiko erakusketa bat, baizik eta zerbait desberdina; giro bat sortu nahi genuen". Hala, horren emaitza bisitariari erakusketan "murgiltzeko" aukera emango dion ikus-entzunezko muntaia bat dela azaldu du zuzendariak.

Artze, "diziplinarteko artista"

Lizarralde nabarmendu du Josean Artze "aparteko" artista dela, eta, hain zuzen, berezi egiten duen diziplinartekotasun hori islatu eta gogorarazi nahi izan dute *Ikimilikiliklik* erakusketaren bitartez.



Ikimilikiliklik. J.A. Artzeren unibertsoa erakusketaren zati bat. MORGANCREA.NET

Izan ere, besteak beste, Mikel Laboak abestutako *Txoria txori* eta *Gure bazterrak* abesti ezagunen egilea da Artze, baina, horrez gain, hainbat poema liburu idatzi ditu, eta audio grabazioak eta ikuskizun eszenikoak ere burutu ditu. Azken horien artean, azpimarratzekoa da *Ikimilikiliklik*, musika, poesia eta irudia uztartzen zituen ikuskizun multimedia, 70eko hamarkadan testuinguru kulturala astindu zuena. Eta, hain zuzen, lan horretatik hartu du izena Labora-

toriumen ikusgai egongo den erakusketak.

Zientzia eta kultura, eskutik

Erakusketa iragartzeko eginiko prentsaurrekoan, Maite Agirre kultura zinegotziak adierazi zuen kultura eta zientzia "kate beraren katebegiak" direla; hori dela eta, nabarmendu zuen Laboratorium zientzia museo bat den arren, hori baino gehiago, "gizarte museo bat" ere izan nahi duela, eta horregatik jasoko duela mostra hori.

Domekan Zabalotegin, Altunaren labor bat dakarren 'Kalebegiak'

Kalebegiak filma emango dute abenduaren 4an, domeka, 19:30ean, Zabalotegi aretoan (sarrera: 4 euro). Hamabi zuzendariren film laburrak batzen ditu lan horrek; tartean, Asier Altuna bergararrak Telmo Esnalekin batera zuzendu duen *Estropada eguna*. Donostia hiria da lan guzti hauek lotzen dituen gai komuna.

Orkestrak 3.044 euroko ekarpena egin dio Aspanogiri

Bergarako Orkestra Sinfonikoak Aspanogiren –minbizia duten haurren gurasoen elkarte– aldeko kontzertua eskaini zuen egubakoitzean Soraluzen. 300 pertsonatik gora izan ziren kontzertuan. Sarreraren bitartez eta 0. ilarako sarrera deritzon ekarpen solidarioarekin, 3.044 euro batu zituzten elkartearantz.

Gabonetako kontzerturako sarrerak salgai daude

Gabonetako kontzertua abenduaren 17an izango da Udal Pilotalekuan, 20:30ean. Musika Eskolak, Orkestra Sinfonikoak, Orfeoia, Aritzeta abesbatzak eta Udal Musika Bandak hartuko dute parte bertan. Sarrerak dagoeneko salgai daude www.kutxabank.es webgunean eta Zabalotegiko leihatilan, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

Magia erakustaldia eta tailerra Bergaran, Iñigo Almandozekin

Goiena komunitatea

Bizikasi / BERGARA

Udalak eta Migel Altuna Institutuko Bizikasi zerbitzuak magia erakustaldi-tailerra antolatuko dute datorren abenduaren 12rako, Iñigo Almandozekin eskutik. Informazio gehiago eta izen ematea, Bizikasin (943 76 93 94 edo info@bizikasi.com).

Ibabe, pandero jolerik onena

Mireia Ibabe bergararrak hirugarren urtez jarraian pandero jolerik onenaren garaikurra eskuratu du asteburuan Zaldibarren jokatu duten Euskal Herriko Trikitilari Gazteen 25. Txapelketan. Horrez gain, Ibabe eta Eneko Arbeo trikitilari azpeitiarra txapeladunorde izan dira bikotekako sailkapenean. Aurtengo txapelketan Itziar Nariara Mantzizidor eta Abaltzisketako Jugatz Oleaga izan dira garaileak.



IBON ERRAZUA URIA

GONBIDAPENA

EBAKI KUPOI HAU

Kids Karting

WWW.KIDSKARTING.ES

GOZATU 10 MINUTUKO SAIO 1 DOAN

Gonbidapenak balio du 3 urtetik 13 urtera bitarteko haurrek, pedal kartekin, bide-segurtasuneko zirkuituan edo oztopo-zirkuituan ibil daitezten. Kupoia astelehenetik ostiralera bitarte erabil daiteke, 2016/12/15era arte


Astelehenetik ostiralera 16etatik 21ak arte
Larunbatetan eta igandetan 12etatik 15ak arte

BIG KARTING (Gorbeia Merkatalgunea)

GORBEIA

www.centrocomercialgorbeia.com





Baietz 1000

Arrasateko dendariekin ere euskaraz.

Dendariekin
euskaraz,
pozik gainera!

 Arrasateko
euskalgintza

 ibai-arte

Euskararen kale erabilera %64 da

Oñati euskaraz bizi dela aldarrikatu eta ospatuko dute Euskararen Eguren bueltan antolatutako ekitaldien bitartez. Lehen Hezkuntzan diharduten 700 ikasle inguruk 'lipdub'-a egingo dute gaur, Urkoren 'Guk euskaraz' kantuen bi bertsio abestuta

Oihana Elortza OÑATI

Oñati euskaraz bizi da eta hori aldarrikatu eta ospatuko dute Euskararen Eguren bueltan antolatu diren ekitaldiekin.

Herriko ikastetxeak eta udala elkarrekin ibili dira ekitaldiak antolatzen eta udaleko euskara sailak jasotako datuek diote euskaraz bizi den herria dela Oñati. "Datu objektiboak dira euskararen kale erabilera %64koa dela eta ezagutza, %75ekoa. Oñati herri euskalduna dela esan dezakegu, inolako zalantza barik", dio euskarako udal teknikariak, Iñaki Akizuk.

Egonkortzen asmatu

Azken urteetako joerari erreparatuz, berriz, datuak kontraesankorrak direla aitortu du Akizuk: "Euskararen kale erabilerak gora egin du nabarmen. Ezagutzak, aldiz, behera, baita etxeko erabilerak ere. Ezagutza, 2001ean, %79 zen eta 2011n %75; lau puntuko beherakada izan da hamar urtetan. Garai honetan bizi izan ditugun migrazio prozesuek izango dute zerikusirik datu honetan. Euskararen kale erabilerak, berriz, nabarmen egin du gora: 2000. urtean %56 zen eta 2011n, %64. Bederatzi puntu egin du gora erabilerak, ezagutzak behera egin duen garaian. Hizkuntzak komunitatean duen bizi-indarraren seinale".

Akizuren esanetan, "argi dago hizkuntzaren bilakaera gizartearen gertatzen diren etengabeko aldaketaren eraginpean" dagoela eta hori kontuan hartu beharko litzateke aurrera begirako helburuak definitzerakoan. "Joera horiek aurreikusi eta euskararen ezagutza eta erabilera mailak, biak goranzko joeran egonkortzen asmatzea da hurrengo ur-

teetarako erronka nagusia", adierazi du euskara teknikariak.

Kantuan

Guk Euskaraz kantua aukeratu dute arratsaldeko *lipdub*-a egiteko; kanta beraren bi bertsio abestuko dituzte, Urkorena eta Xaramelarena. "Lehen Hezkuntzako 700 ikaslek hartuko dute parte. Orain arteko entseguak ikastetxeetan egin dituzte, eta gaur denen artean egingo dugu", dio ekimena koordinatzen ibiliko den Txatxilipurdi elkarte

Ainara Kortabarriak. *Lipdub*-aren bideoa gaur erakutsi gura dute. Batxilergoko ikasleek *Muxua* antzezlanaren ikusiko dute Santa Anan, 12:00etan. Arratsaldean, Gauargi taldearen emanaldia egongo da eta 18:00etan euskal kantuak abestuko dituzte familia giroan kontzejupean. Ikastetxeetako Guraso Elkarteek txokolata banatuko dute doan. Hezkuntza Mahaiak antolatu du aurten ere Euskararen Eguna.

Euskara nola bizi duten galdetu die GOIENAK ikasleei.

Ikuspegi zabaletik ekintza zehatzetara

ANDER, MARIA ETA ANDER ELKAR HEZI



ELKAR HEZI

Eskola komunitateak euskararen alde sutsuki lan egiten du aspalditik: Ulibarri programa, Euskara Batzordea, Euseria Ixuketan ekimena eta proiektuaren bitartez lan eginez; betiere, herrigintza helburu izanik. Aurten ere, Batxilergoko lehenengo mailakook Oñatin 2011n egindako kale neurketak aztertu, eta *Gu gazteok* ikerketaren egile Jone Miren Hernandezi egindako elkarrizketa ere irakurri dugu. Honen harira, eskolan euskararen erabileraren inguruko diagnostiko-ikerketatxoa jarri dugu abian. Ondorioak esku artean, Batxilergoko bigarren mailakoekin partekatu dira. Horien ikasturte honetako apustua handiagoa da: Euseria Ixuketan. Orain, aisialdirako guneetarako, euskarazko ekoizpenak bilduz, eskura jartzeko lanean dabilta. Laster jakingo duzue zer den! Gu Euskararen Eguneko ekintzetan parte-hartze zuzena izatera goaz, Tanntakaren *Muxua*-ko antzezleak elkarrizketatuta.

Euskaraz bizi nahi dut

ALAZNE, UXUE ETA ARANTZAZU URGAIN



URGAIN

Euskara guretzako ama hizkuntza da. Txikitatik jaso izan dugu eta beti ahoan eraman dugu. Etxean, kalean, lagunartean, eskolan... Egunerokotasunean erabiltzen dugu. Badira ez daudenak euskaraz hitz egitera ohituta, eta haiei laguntza eskaintzea ez dago gaizki. Txikitan etorri eta gure artera gerturatu zirenek errazago eskuratu zuten gure euskalkia entzunaren entzunaz. Beste askori, euskara ikastea ere kostatzen zaie; ondorioz, nahiz eta asko entzun, zaila egiten zaie euskaraz hitz egiteko ahalmena lortzea. Hala ere, badaude euskaldun batzuk gaztelaniaz egiten dutenak eta honek euskaldun askori bihotzeko zein belarriko mina egiten digu. Barruan amorrua eta egonezina sortzen digu, gure hizkuntza txikiaren orde, beste handiago eta galtzeko arriskurik ez dutenak entzutean. Gure ustez, euskarak botere berezia ematen digu beste hizkuntzek ematen ez dutena. Gure hizkuntza berezia da, eta, horregatik, haren alde lan egiten jarraituko dugu.

Euskara, gazteen bizitzaren oinarri?

TTAK IKASLEEN EUSKARA TALDEA TXANTXIKU IKASTOLA



TXANTXIKU IKASTOLA

Oñati leku pribilegiatua da euskararen erabilerari dagokionez eta uste dugu euskara dela ikasleen artean gehien erabiltzen den hizkuntza; herriko euskalkian, gainera. Gure iritziz, nork bere errealitatea du atzean (familiaren euskaltzaleasuna, jatorria, harremanak...) eta txikitatik dakigun zerbait beti da gogoko eta maitatua. Hala ere, teknologia berrietatik eta komunikabideetatik dator gaztelaniara jotzeko arrisku handiena eta beharrezkoa izango da etorkizunean eremu hauetan euskarak bere espazio propioa izatea, eremu hauen eragina gazteengan gero eta handiagoa delako. Gazteok euskararekiko joera izatea nahi badugu, ziur gaude euskaldun kontzientziatuok horretan eragin handia dugula eta euskara gero eta gehiago erabiltzeko jokabidea hartzea guztiaren giltza dela. *Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik.*

Sietevientos pasabidetik 3.631 auto egunero

Oñatiko Hiri Mugikortasunerako planaren baitan jasotako egitasmoak indarrean sartu aurretik, udalak trafiko neurketak egin ditu herriko bi puntutan: Unibertsitate etorbidean, Sietevientos bidegurutzean, eta Kalegoiengan, GI-2630 errepidean

Oihana Elortza OÑATI

Astebetean bi puntu horietatik egunean zenbat ibilgailu pasa diren neurtu du udalak. Auto horiek nolakoak diren ere ikusi du eta baita gidariek abiadura muga errespetatzen duten edo ez. Neurketen helburua da Sietevientos bidegurutzea arratsaldeetan ixteko egitasmoaren aurreko eta ondorengo diagnosi bat egitea.

Abiadura

Jasotako datuek diote Unibertsitate etorbideetik, Sietevientos bidegurutzetik, egunero 3.631 ibilgailu pasatzen direla, eta horietatik 21 ibilgailu astunak dira. Puntu horretan 30 km/h muga dago ezarrita eta gidarien %19k ez dute abiadura muga errespetatzen (bostetik batek). Kalegoiengan, bestalde, GI-2630 errepidean, batez beste, 10.598 ibilgailu pasatzen dira egunean, eta horietatik 429 astunak dira. Abiadura muga 50 km/h da gune horretan eta gidarien %8k ez dute muga hori errespetatzen.

Herriko Hiru Mugikortasunaren planean du jasota udalak Sietevientos bidegurutzea eguneko ordu gehienetan itxita egotea eta zamalanak egin behar dituzten ibilgailuak pasatzea bertatik. Oinezkoen bi eremu



Sietevientos bidegurutzea. O.E.

lotzen dituen puntua da pasabide hori, eta ibilgailuen pasoa murriztu gura da, oinezkoen mesedetan. Bidegurutze hori noiz itxiko duten ez dute zehaztu. Ramon Irizar kaleko lanak ez dituzte oraindik bukatu eta hango lanak amaitutakoan itxiko dute. Data, baina, ezin da jakin oraindik. Bidegurutze hori itxitakoan berriro egingo du ibilgailuen neurketa udalak. Aste bat hartuko du horretarako eta zenbat eta nolako ibilgailuak zer-nolako abiaduran pasatzen diren ikusiko du.

Txandakako sistema

Oñatiko Hiri Mugikortasun plan horretan datorren beste puntuetako bat da txandakako aparkatze sistema jartzea herrian. Abenduaren 15etik aurrera egongo da sistema hori indarrean. Herriarrek egin dituzte txartelen eskaerak eta onartutako eta ez onartutako zerrenda abenduaren 12an argitaratuko du udalak. Bestalde, ibilgailua bizi diren etxebizitzan erregistratuta ez duten egoiliarrek urtarri-la bukatu aurretik egin beharko dute helbide aldaketa.



NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

Bihar ere Euskararen Eguna

Bertakoa da, geurea. Izateko modua da, beste batzuegandik desberdintzekoa. Gauzak ikusteko, sentitzeko, bizitzeko modua. Aspalditik dator, baina oso modernoa da. Bizia da, egunerokoa. Baserrikoa eta hirikoa. Edozertarako balio du: gozatzeko, haserretzeko, ikasteko, erosteko, saltzeko, informatzeko... Hori guztia da euskara!

Bihar Euskararen Eguna dela aitzakiatzat hartuta, erakundeek *Zer egin dezaket nik euskararen alde?* galderari erantzutera animatzen gaituzte. Ez dago gaizki hausnarketatxo hori egitea, baina "euskararen alde" egin beharrean, egin dezagun "geure alde". Izan ere, euskararen erabilerak, batez ere, guri, euskaldunoi, egiten digu mesede. Hala ere, galdera hori denok egin beharko genioke geure buruari, ez bakarrik herriarrek. Jaurlaritzak, udalak, dendariek, enpresek, eskolek, kirol elkarteek... guztiek erantzun beharrekoa da. Ondorioak atera eta praktikara eraman.

Askok da geure alde egin dezakeguna, gure eguneroko portaera da gakoa. Aprobetxatu ditzagun euskara erabiltzeko aukera guztiak, izan daitezela urteko 365 egunak euskara erabiltzeko egunak.

Errefuxiatuendako izango da gaztetxeko kontzertuan batutakoa

Physis Vs Pelax eta Aitor Regueiro zuzenean arituko dira gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean. 22:00etan izango da kontzertua eta batuko den dirua Hotz Oñatirendako izango da, errefuxiatuei bideratzeko.

Hotz Oñati elkarteak antolatuta, Greziako errefuxiatuen egoera salatzeko jardunaldiak egin dituzte aste honetan kultura etxean, Asylum astearen barruan. Gaurko kontzertua ere egitarauaren barruan sartzen da eta batutako dirua errefuxiatuendako izango da. Josu Peña argazkilariaren *Lotsa* erakusketa astelehenera arte dago ikusgai erakusketa gelan.

Denboraldiko bigarren garaipena lortu gura du Aloña Mendik

Aloña Mendiko saskibaloitaldeak Zubikoan jokatu du asteburu honetan ere. Gasteizko Cosecha 1986 taldea izango du aurrez aurre. Talde arabarra oñatiarraren aurretik dago sailkapen nagusian. Joan den asteburuan Hotel Gran Bilbao Berrio-Otxoa taldearen kontra galdu zuten etxean, bederatzi puntugatik; beraz, Aitor Ugarteren taldea zaleen aurrean garaipena lortzera kantxaratuko da. Zapatuan da partidua, 18:00etan, Zubikoan.

Aurretik, 16:30ean, Izarraitz Muñoz Aloña Mendi eskubaloitaldeak Zarauzko Txikipolit taldearen kontra jokatu du.



TrikiTx

130 m²-ko ametsez
beteriko denda

Jostailu eta paper denda
Kale Barria 44 - Oñati
943 08 82 28



Euskararen arnasmune izaten jarraitzeko nahia

Euskararen Egunarekin lotuta hainbat ekintza daude iragarrita herrian gaurko eta biharko. Horietan parte hartzeko dei egin dute antolatzaileek ahaztu gabe euskarak 365 dituela eta Elgeta euskararen arnasmune sendoagoa zela orain dela urte batzuk

Larraitz Zeberio ELGETA

Euskararen Eguna ez da Elgetan oharkabea pasako. Gaurko eta biharko hainbat ekintza daude iragarrita —egitaraua behean—. Guztiak dira garrantzitsuak, baina berria delako eta herritarren parte hartze berezia eskatzen duelako aipamen berezia merezi du zapatu eguerdiko herri lasterketak. Hasieratik amaierara lekuko bat ibiliko da eskuz esku, eta herriko talde eta eragile askoren parte hartzea izango duelakoan daude antolatzaileak. "Ibilbidea motza izango da eta ez du zailtasun berezirik izango abiadura neurtua eramango baitu guztiok parte hartzeko moduan", esan dute euskara batzordetik. Lasterketa 11:30ean abiatuko da Mendizaleen Plazatik. Parte-hartzaileak 11:15ean elkartuko dira lekuko aldaketak zehazteko. Herritarrei dei egin diete lasterketa horretan parte hartuz euskararen aldeko pausoa emateko. Amai-



lazio Euskararen Egunean egindako irudi erraldoia. L.Z.

tutakoan puzzle erraldoi bat egingo dute plazan *365 egun!* leloa irudikatuko duena.

Euskara Elgetan

Elgeta herri euskalduna da, baina euskararendako arnasmune

sendoagoa zen orain urte batzuk. Horrekin ohartuta hainbat dira lanean diharduten eragileak eta martxan diren ekimenak. Topagunearen gidaritzapean Udalak eta Goibeko euskara elkarteak orain bi urte jarri zuten martxan

Elgetan Berbetan mintza talde dinamika. Hiru taldetan banatuta hemezortzi lagun elkartzen dira astero mintzapraktika egiteko. Aipatzekoa da taldeetako bat gurasoz osatuta dagoela.

Udala, bestalde, Uemako kide da eta Jakinbai zein Badihardugu moduko ekimenak babesten ditu. Euskara zinegotzi Janire Lazkanok azaldu du 2017ko aurrekontuan euskara ikasten ari diren herritarrendako diru-laguntza lerroa handitzea nahi dutela. Diru-lerro hori, egun, 600 eurokoa da eta azken urteetan guztia banatu izan dute. "Ekainean egingo dugu hurrengo deialdia eta interesatuek hilaibeteko epea izango dute eskaera egiteko".

Arnasmune tailerrak

Hurrengo urtera begira gurasoendako zein umeendako arnasmune tailerrak iragarri ditu udal arduradunak. "Uematik dator proposamena eta hiru orduko saioak izango dira. Aurreikuspena da urtarrilean egitea". Tailer horien helburua da udalerrri euskaldunetako herritarrek sentsibilizatzea eta ahalmentzea arnasmuneen garrantziaz ohar daitezen hizkuntza ohituratan euskararen aldeko hautua egin dezaten.

Aisa harrerera taldeak ez du aurtur aurrera egin. Ikastaro hori online egiteko aukera egonik Elgetan eskaintzeko saiakerak egingo dute udal ordezkariak.

Eskola diagnostikoa egiten

Herri Eskolan ere egun berezia izango da gaurkoa. Goizean *Euskaraz bizi nahi dut* margotuko dute ikastetxe ondoko aparkalekuan, eta 11:00ak aldera soka saltoan, kasu-kasu jolasean edo zapiaren jolasean aritu dira. 15:00etan eskolako sarreran elkartzeko dei egin dute. "Gelaz gela, talde bakoitzak bere leloa eta argazkia erakutsiko dizkie besteei. Jarraian denok batera *Txantxangorria* eta *Euskaraz bizi nahi dut* kantuak abestuko ditugu", azaldu dute zuzendari-tzatik.

Ikasturterako euskararekin lotutako bestelako egitasmoak ere badituzte ikastetxean, horien artean Hizkuntza Proiektuaren lanketa. "Aurtur sentsibilizazio eta diagnostiko faseak lantzea aurreikusten dugu", jakinarazi dute zuzendaritzatik. "Lehenengo fasean hainbat bideo eta artikulatu erabiliko ditugu errekurtsio bezala eta hausnarketa egingo dugu. Diagnostiko fasea lantzeko eskola komunitate osoari —gurasoei, ikasleei, irakasleei— galdeketa pasako dizkiegu eta gero ondorioak jasoko ditugu".

Eskolan aurreikusten dute euskararen diagnostikoaren emaitzak esku artean edukitzea ikasturte amaierarako. "Lan hori aurrera eramateko Eibarko Berritzegunearen laguntza izango dugu. Hilean behin mintegia eskaintzen digute eta errekurtsioak ere bai".

Ekintza sorta aste bukaeran

Abenduak 2, barikua

- **16:00** Txokolate-jana, Mendizaleen Plazan.
- **17:00** *Euskal Herriko kondairak* ipuin saioa, udal liburutegian.
- **16:00-19:00** *Euskaraz bizi nahi dut* materialaren salmenta, buztin gelan.

Abenduak 3, zapatua

- **11:30** Herri lasterketa, Mendizaleen Plazatik.
- **12:00** Hamaiketakoa, Mendizaleen Plazan.
- **12:30** Sorkuntza tailerra. *365 egun!* puzzle erraldoia, Mendizaleen Plazan.

Garrantzitsuak dira Euskararen Eguna moduko ekintzak? Zergatik?



JANIRE LAZKANO
EUSKARA ZINEGOTZIA

"Oso, egin eta eragindako aurrerapausoez hausnartzen dugulako. Egun hau ez litzateke euskararen egun urtean zehar euskara hauspotzeko lan eta politikak ez balira aurrera eramango. Elkarlanari esker aurrera goaz eta pausok ematen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugula esateko eguna da".



SAIOA ALBERDI
MAALA GURASO ELKARTEA

"Maala guraso elkarteak urtero hartzen du parte Euskararen Eguneko ospakizunetan. Aurtur ere txokolate-jana eskainiko dugu. Garrantzitsua da Euskararen Eguna ospatzea garrantzitsua den moduan urte osoan zehar egiten diren ekintzetan euskarari dagokion presentzia ematea".



AINARA IRIBAR
GOIBEKO EUSKARA ELKARTEA

"Euskararen Egunak garrantzia du pertsonok garrantzia dugulako. Euskara da, ezer bada, euskaldun bat dagoelako. Abenduaren 3ak balio digu gogorarazteko egunero dela gure eguna. Egunero-egunero gura dugu euskaraz izatea gure herria. Herriko pertsonon arteko elkarbizitza euskaratik egitea".



MARTA TORRES
ELGETAN BERBETAN

"Garrantzi handia daukatela iruditzen zait euskara bultzatu behar dugulako eta herritarrak euskaraz berba egitera gonbidatzen gaituztelako. Egun hori ospatuz euskararen erabilerari ere indarra ematen zaio, eta beharrezkoa ikusten dut. Euskara hor dagoela gogorazten digu egun honek".

Urtarrilean irekiko dute testigantzen bulegoa

Frankismoak Elgetan eragin dituen biktimen lekukotasunak jasotzeko irekiko dute urtarrilaren 16tik otsailaren 17ra bitartean. Udalbatzak, bestalde, martitzenean egin zuen azaroko osoko bilkura. Mirari Larrañaga da ongizateko arduradun berria

Larraitx Zeberio ELGETA

Elgetako Udalak jakinarazi du urtarrilean zabalduko duela frankismoak Elgetan egindako krimenen testigantzak eta dokumentazioa jasotzeko bulegoa. Uztaillean erabaki zuen Udalak Buenos Airesko epaitegi nazionalan zabalik dagoen frankismoaren aurkako auzian kereilatzaile gisa aurkeztea. Hala, diligentziak eskatu, frogak aurkeztu eta errekursoak egin ditzake. "Biktimei edo biktimen senitartekoei ate bat ireki nahi zaie salaketak plazaratzeko", adierazi du kultura eta turismo teknikari Ainhoa Bernabek. "Kereila kriminal honen helburua da udalerrian diktadura frankistak eragindako gizarte-riaren aurkako krimen guztiak ikertzea, zein baldintzatan egin ziren zehaztea, erantzule zuzenak eta zeharkakoak nortzuk izan ziren jakitea, eta, kasuan kasu, egozte, auzipetze, epaitze eta zigortze eskaera jartzeko erabakia hartzea". Bernabek gaineratu du kereilarako zenbat eta dokumentazio gehiago lortuz gero, orduan eta zailagoa egingo zaiela auzia errefusatzeko. "Frogak batu eta aurkeztu ahal izateko 1936ko uztailetik 1977ko ekainera bitartean jasandako erailketa, bortxaketa, tortura, bahiketa, desjabetze, eta abarren testigantzak eta dokumentazioa jasotzea ezinbestekoa da", jakinarazi du. Bulegoa udaletxean egongo da zabalik. Interesatuak hainbat aukera dituzte arduradunarekin harremanetan jartzeko: 943 76 80 22 telefono zenbakia edo turismoa@elgeta.net helbide elektronikoa.

Azaroko udalbatza

Martitzenean egin zuen Elgetako udalbatzak azaroko osoko bilkura. Eguneko gaien artean zegoen Mirari Larrañagaren zinegotzi kargu hartzea. Agur-

tzane Alkaldek utzitako hutsunea beteko du Larrañagak.

Izendapena egin ostean, udalbatzak aho batez onartu zuen Gipuzkoako Ur Kontsultazioaren estatutua aldatzeko proposamena. 2013an onartutako lege batek eskatzen duen tramite legala da.

Horrekin batera, bi adierazpen instituzional onartu zituen udalbatzak, biak aho batez. Lehenengoa indarkeria matxistarekin lotutakoa. Esparru horretan hainbat konpromiso hartu ditu Udalak; adibidez, udalerrian berdintasun esparruko politikak bultzatzen jarraitzea.

Bigarren adierazpena Euskararen Nazioarteko Egunarekin lotutakoa zen. Udalak konpromiso zehatzak hartuko dituela esan zuen euskara zinegotzi Janire Lazkanok —ikus 28. orria—. "Badakigu euskararen normalizazioak konpromiso zehatzak eskatzen dituela, eta, bereziki, instituzioei. Horretan jarraituko dugu bai Elgetan Ber-

betan bultzatzen eta finantzatzen lagunduz bai euskara ikasteko diru laguntzekin".

Aurrekontuaren lanketa

Osoko bilkurako galderen txandean, Gu Geu Elgetako Mikel Larreak galdetu zuen ea 2017ko aurrekontuaren lanketarako informazio gehiago bazegoen. "Ez dakit informazio pixka bat gehiago gehitzerik dagoen funtzio aldetik. Sailkapen bat dago eta bertan ez da ikusten partidak nola zehaztuta dauden", esan zuen Larreak. Iraitx Lazkano alkatearen erantzuna izan zen dagoen informazioa eskuragarri dagoela. "Aurrekontuaren lanketarako behar duzun edozein informazio zuen eskura dago gure eskura dagoen moduan. Bada hilabete aurrekontuaren lanketarekin dihardugula eta zirriborroa bidali genuela. Badakizue gure politika datu ekonomiko guztiak hiru hilean behin aztertzea eta ematea dela".

Mirari Larrañaga zinegotzi karguan

Mirari Larrañaga Zialtzeta gizarte-ongizateko udal arduradun berria da. Martitzenean hartu zuen zinegotzi kargua. Hain zuzen ere, udal hauteskundeetan seigarren joan zen Elgetako EH Bilduren zerrendetan eta Agurtzane Alkaldek udalbatzan utzitako hutsunea beteko du. Hark utzitako ardurak hartuko ditu. Elgetako eguneko zentroko langilea da Larrañaga. Kargua hartzerakoan, esker oneko hitzak izan zituen Agurtzane Alkalderendako "hilabeteotan egindako lanarengatik", esan zuen. Larrañagak azaldu zuen ilusioz hartzen duela ardura berria, eta agindu du bere onena ematen saiatuko dela. "Eguneko zentroko langilea naiz eta gertutik ezagutzen dut zerbitzu hori. Onena ematen saiatuko naiz. Ahalegina, behintzat, ez da egin barik geldituko", adierazi zuen.



Mirari Larrañaga. EH BILDU



L.Z.

Kontzentrazio batetik harago

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean hainbat ekintza egin zituzten Elgetan. Talde eragileak balorazio oso positiboa egin dute hainbat helburu bete zituztelako: aldarrikapenaren bueltan herritarrek elkartzea, indarkeria mota anitzak ikusaraztea, bertso musikatuaren bitartez kontzientzia piztea... "Ekitaldi hunkigarria izan zen, kontzentrazio batetik harago joan ginen".

Herrixa Dantzan saioa Escamot Catala musika taldearekin

Goiena komunitatea

Herrixa Dantzan / ELGETA

Abenduko Herrixa Dantzan saioa berezia izango da. Hileko azken igandea Gabon eguna izanik ez dugu dantzaldirik antolatuko. Horren ordean, abenduaren 9an, barikua, folk dantaldia emango du Kataluniako Escamot Catala taldeak. Taldekideek txangoa antolatu dute zubirako Euskal Herrira eta hogeit bat lagun etorriko dira. Afari-pasa egiteko, gainera, Eko Taloak enpresaren edatekoak eta talo goxoak izango ditugu 20:00etatik aurrera. Dantzaldia, betiko moduan, Elgetako Espaloia kafe antzokian egingo dugu eta Elgetako Udaren laguntza izango dugu.

Erretiratuek kultura astea egingo dute abenduaren 9tik 16ra

Goiena komunitatea

Xalbadorpe Elkartea / ELGETA

Lau ekintza daude iragarrita. Abenduaren 9an, barikua, Oñatiko Ikusi Makusi antzerki taldeak *Sala de espera* antzezlan eskainiko du Espaloia kafe antzokian, 17:30ean. Hurrengo hitzordua hilaren 13an izango da. Bergarako Alai taldeak kontzertua egingo dugu, 18:00etan. Hori ere kafe antzokian izango da. Gainerako ekintzak Ozkarbi elkartean izango dira. Hilaren 15ean, eguna, urteroko bingo saioan parte hartzera gonbidatzen ditugu bazkideak. 17:00etan emango diogu hasiera. Biharamunean, berriz, Gabonetako luntxa egingo dugu, 18:00etan.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK -6. JARDUNALDIA

J. M. Zubiaurre - Pello Larrea /
A. Telleria - A. Ibarluzea **18-07**
O. Erostarbe - G. Arizmendiarieta /
E. Garate - E. Maguregi **16-18**
J. Mañarikua - B. Arabaolaza /
A. Elorza - O. Sarasua **06-18**
D. Cantabrana - T. de Vega /
M. Beretxinaga - I.
Unzetabarrenetxea ---

PARTIDUAK, 7. JARDUNALDIA

GAUR, BARIKUA, 18:30EAN
A. Elorza - O. Sarasua /
M. Beretxinaga - I.
Unzetabarrenetxea
J. Mañarikua - B. Arabaolaza /
E. Garate - E. Maguregi
H. Gallastegi - O. Sarasua /
A. Telleria - A. Ibarluzea
O. Erostarbe - G. Arizmendiarieta /
E. Ormaetxea - A. Valle



Xinkonan, Gabonetako apaingarriak egin dituzte herriko zenbait gaztetxok. AMAIA TXINTXURRETA

Berrerrabiliz, eman beste buelta bat Gabon egune

Etxeko leihoak, ateak, paretak, zuhaitza... apaintzeko egunak iristear daude. Xinkonan haurrentzako Gabonetako apaingarriak egiteko ikastaroa antolatu dute. Helburua da berrerrabilpena bultzatuz eskulanak eta apaingarriak egitea

Maidar Arregi ANTZUOLA

Etxean batutako gauzeekin Gabonetako zuhaitza apaintzeko hainbat eskulan egin dituzte Antzuolako Xinkonan herriko zenbait neska-mutikok. "Ideiak hartu eta modu errazean apaingarriak egiteko jarraibideak ematen ditugu ikastaroan. Oso erraza da etxean daukagun materiala aprobetxatuta Gabone-

tako apaingarriak egitea", azaldu du Alaitz Jauregik, ikastaroko irakasleak.

Zenbait ideia

Kanpaiak egin daitezkeela azaldu du: "Kafe kapsulak hartu eta garbantzuekin bete; itxi tapa berritri kolarekin eta sokatxo batekin kanpaia edukiko dugu. Gero, brillantinarekin apaindu

daitezke". Beste aukera bat da poliespanezko bolak eta izarrak erosi eta horiek margotzea. Ondoren, hauek ere zintzilikatu edo itsatsi daitezkeela azaldu du Jauregik. "Modu entretenigarrian, saltsan, disfrutatuko dute gaztetxoek apaingarriak margotuz". Apaingarriak nola egiten diren ikusteko bideoa: goiena.eus/antzuola.

Euskara erakargarria eta desio-objektu bilakatu behar da

Euskararen inguruan hitz egiten ari ginela, asko irakatsi zidan bizipen bat badaukat ikasle ohi batekin

Goiena komunitatea

Pilar Etxaniz / ANTZUOLA

Bihar, abenduak 3, Euskararen Eguna ospatuko da. Eta horren harira, eskolan, euskararen inguruan solasean genbiltzala, asko irakatsi zidan bizipen bat daukat.

Korrika ospatzera gindoazen eta euskararen garrantziaz hitz egiten hari ginela ikasgelan "denok gara euskaldunak" esan nuen altuan.

Eta haur batek "no, yo soy andaluz" erantzun zuen.

Euskalduna eta Andaluzia

Orduan, Andaluzia herri ederra dela esan nion; eta "ze zortea duzun" gehitu nuen. "Biak zara, andaluziarra zure gurasoak han jaio direlako, oportetan joaten zarelako... eta euskalduna hemen jaio eta bizi zarelako, euskara ikasi duzu-

lako... ze zortea duzun!", gehitu nuen.

Berak baietz esan zuen, euskalduna eta andaluzia zela, biak, eta zorte handikoa zela.

Eta, hortik aurrera euskararekiko zuen jarrera onerako aldatu zitzaion ikasleari.

Ez naiz ni inor derrigortzearen edo errudun jotzearen aldekoa. Uste baitut ez duela funtzionatzen.

Erakargarria eta desio-objektu

Euskara erakargarria eta desio-objektu bihurtu behar dela uste dut; norberaren identitateari beste balio bat eranstendion zerbait bezala azaldu behar da.

Hiztun ezberdinen arteko elkar ezagutzak, komunikatu nahiak, eta enpatiatik sortutako onarpenak indar handiagoa duelakoan bainago.

Organo ikasleen kontzertua bihar, Antzuolako parrokiari

Bergarako Organo Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute bihar, abenduaren 3an, herriko parrokiari, 12:30ean. Eta abenduaren 18an, domekan, berriz, Jose Antonio Pascual organista eta irakasleak emanaldia eskainiko du. Kontzertu hau ere parrokiari izango da, eguerdiko hamabietan hasita, meza ondoren, hain zuzen ere.

Antzuolako EH Bilduren etorkizuna berbagai, bihar

"Zer izan behar du EH Bilduk Antzuolan? Zer eskaini behar die herritarrei? Zelako etorkizuna irudikatzen dugu? Eta nola egingo dugu?". Horri guztiorri erantzuteko batzarra egingo dute bihar Torresorotan, 10:00etan hasita. Kafeaz lagunduta, Peio Urizarrek hartuko du hitza aurrera. Ondoren, herritarren txanda izango da.

Betiko izarra lore bilakatuta

Gabonetako zuhaitzean izarrak zintzilikatzen ohi dira; Xinkonan, ideia horri beste buelta bat eman eta lore bilakatu dituzten apaingarriak egin dituzte: "Oso erraza da; kafea egiteko kapsulekin egindako loreak dira. Kolore ezberdinetan osatutakoak. Zuhaitzean edo etxeko atean jarri ditzakegu, gainera, zintzilik", azaldu du Alaitz Jauregi irakasleak.



Kafe kapsulekin egindako apaingarria. A.T.

Mikel Kerexeta: "Emaitzak emaitza, disfrutatzea da asmoa"

Ligaxka amaitzeko bi futbol partida falta dira, eta igoera faserako sailkapena lortu dute Antzuolako lehen erregionalekoek.

AKEko presidente Mikel Kerexetak eta entrenatzaileek balorazio positiboa egin dute: "Azken bi partida horiek etxean ditugu eta azkena, gainera, Bergararen kontra. Erreban-

txarako aukera ederra! Denboraldi hasieran herritarrekin taldea osatu eta futboleko disfrutatzea zen gure helburua. 23 mutilez osatu genuen taldea eta guztiek jokatzeko aukera izan dute", nabarmendu gura izan dute.

"Jokalarriak gustura ibili dira eta antzuolarren artean ilusio sumatu dugu. Partidaz partida joan gara. Hamar partidatik bederatzi irabazi ditugu. Galduetako bakarra Bergararen kontrakoa izan da".



Mojategin jokaturako ligako azken derbiko erretratua (2012), Uribarren baloiarekin, orduko kapitain Kerman presionatzen duela. JULIO CALLEJA

Aurrez aurre, lau urteren ostean

FUTBOLA Domekan indarrak neurtuko dituzte Mondrak eta Aretxabaletak (16:30, Mojategi). Bi talde horiek 2012an jokatu zuten azken derbia Mojategin, eta orduan 'Lutxo' Iturrino eta Alberto Albistegi ziren bi taldeetako entrenatzaileak

Xabier Urzelai ARRASATE

Azken lau urte hauetan ibilbide ezberdina izan dute Mondrak eta UDak. Arrasatearrek kategoria galdu zuten 2012/2013 denboraldian, eta hiru urte behar izan zituzten ostera ere Ohorez-

ko Erregional mailara igotzeko. Aurten, berriz, mailaz igo diren artean ezustekoa eman duen taldeetako bat bilakatu da Josu Zubiaren taldea, eta arrasatearrek 23 punturekin bosgarren postuan daude.

UDaren ibilbidea bestelakoa izan da, gozoagoa. 2013an laugarren amaitu zuten liga, 2014an hirugarren, eta joera positibo horrek saria izan zuen 2015ean, Hirugarren Mailara igota. Hala, urtebetez goiko kategorian egon

eta gero Aretxabaletako taldea mailaz jaitsi zen ekainean, baina garbi zegoen ligako oilarretako bat izango zirela. Eta 24 punturekin, eta hirugarren egonda, pronostikoek ez dute kalerik egin.

Inoiz baino lehiatuagoa

Azken urteotan Ohorezko erreregionalean pare bat talde indartsuk hasieratik hartu izan dute abantaila. Aurten ez, bost talde daude eta hiru puntuko aldearekin (Anaitasunak 26, Amaiak Batek 25, Aretxabaletak 24 eta Mondrak 23): "Oso liga parekatua da, polita, hemen partidu bat irabaztea oso zaila da, eta aurrealdeko taldeen kontra zailagoa oraindik", dio Gipuzkoako ohorezko erreregionaleko maila sakon ezagutzen dabilen Iñigo Velez entrenatzaile gasteiztarrek: "Azken lau partiduetan beherakadtxoa izan dugu emaitzei da-

Aloña Mendi behetik gora dator

Hamar partidutan garaipen bakarra batuta Aloña Mendi sailkapenaren atzealdeko postuetan murgilduta ibili da, baina oñatiarrek azken bi partiduak jarraian irabazi dituzte, eta orain arteko gol faltaren aurrean, deigarria izan zen joan den astean Ostadarren kontra lortutako 5-0ekoa. Horrek arnasa eman dio taldeari; hala, atzealdekoen kontrako borroka horretan asteburuan beste lehia bat izango dute, Martutene azkena da-eta.

Erregional preferentean, berriz, Bergara lan oso ona egiten dabil. Sailkapenean bigarren daude mahoneroak, baina kontrario gogorra izango dute zapatuan Agorrosinen, laugarren dagoen Zestoa.

gokienez, hainbat partidu berdindu ditugulako. Horri buelta eman gura diogu, garaipen gosez gaude".

Mondrako entrenatzaile Josu Zubiarendako ere deigarria da aurten dagoen parekotasuna: "Nik uste dut Gabonak aurretik geratzen diren hiru jardunaldietan ikusiko dela ze talde egongo diren aurrealdeko postuetan borrokan. Hor egon gura dugu, baina oraindik asko geratuko da, eta eutsi egin beharko zaio goialdean egote horri".

Arrasateko taldearendako garrantzitsua izan zen joan den astean Hondarribian irabaztea: "Aurreko hiru partiduetan taldea ez nuen txarto ikusten, eta pozik nengoen jokalaria egiten ari ziren lanarekin, baina ez ziren emaitzak iristen. Hondarribiaren garaipenak on egin digu".

Klubaren egun-erdia

Mondrako zuzendaritzako kideek Mondraren eta UDaren arteko derbia klubaren egun-erdi izendatu dute; hori horrela, Arrasateko taldeko bazkideek sarrera ordaindu beharko dute.




JOSU ZUBIA
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Urte asko daramatzat UDaren kontra derbi bat jokatu barik, esango nuke Atxabalpeko sasoiatik. Aste berezia izaten da derbiaren aurrekoa".



IÑIGO VELEZ DE MENDIZABAL
UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Lagunak ditut Arrasaten eta Aretxabaletan, eta entzun izan diet partidu bereziak izaten direla; ea bi taldeek partidu polita jokatzen dugun".



JULEN ZAITEGI
UDA-KO JOKALARIA

"UDako elastikoarekin ligan oraindik ez dut inoiz Mondraren kontra jokatu. Arrasatearra izanda Mondrak irabaztea gura izaten dut, baina oraingoan ez".



ANDER RUIZ DE AZUA
MONDRAKO JOKALARIA

"Pike polita egoten da gure artean, halako partiduak bereziak dira. Gainera, urteak dira UDaren kontra jokatzen ez duguna, gogoz gaude".



Beñat Rezusta, Bergarako pilotalekuan, eskuin eskuarekin pilota astintzen, artxibo erretratuan. IMANOL SORIANO

Irribarria-Rezusta, faboritoen multzoan

PILOTA Astelehenean aurkeztu zituzten Bilbon Eskuz Binakako Txapelketak izango dituen bikoteak. Pilotarien zerrendak ez zuen ezustekorik sortu, baina bai bikoteen osaketak; Rezusta eta Irribarria faboritoen artean aukeratu dituzte

Xabier Urzelai BERGARA

Eskuz Binakako Txapelketa faboritoen multzoan hasteak ez du aparteko mesederik egiten, horrek komeni baino presio gehiago dakarrelako, hasiera hasieratik. Iaz Beñat Rezustak presio horri eutsi behar izan zion, Irujorekin jokatzearen ordaina, eta finaleraino iritsi ziren. Irujoko atzamarrean min hartu zuenean amaitu zen partidua. Oraingoan, berriz, Buruz Burukoan erakustaldia eman zuen Irribarriarekin jokatu du Bergarako pilotariak, eta bikotea Aspek gin duen apustu sendoetako baten bilakatu da. Hala, askok faboritoen multzoan sartu badituzte ere, eurek etiketa hori gainerik kendu gurako dute.

Logikoa izango litzateke iazko txapeldunak izatea faborito nagusi, baina Olaizola II.ak eta Mikel Urrutikoetxeak ez dute elkarrekin jokatu; Urrutikoetxe aurrelari jartzea erabaki du Asegarcek, Beroizekin batera, eta Olaizolak Untoriarekin

jokatuko du. Hala, txapelketan estreinakoz egongo direnen artean daude Mikel Larunbe eta Danel Elezkano, eta baita Irribarria bera ere. Hutsunea utziko dute, kontrara, Pablo Berasaluzek –erretiroa hartuta–, Juan Martinez de Irujok eta Aitor Zubietak –min hartuta–.

Debuta, abenduaren 4an

Eskuz Binakako Txapelketak lehenengo partidua abenduaren 4an jokatu dute Rezustak eta Irribarriak (Zumarragan, 17:00). Eta, lehenengo partiduan Elezkano II.a eta Zabaleta izango dituzte aurrean. Bikote berria da, baina abuztuan jokatu dute Aste Nagusia torneoa irabazi zuten.

IRRIBARRIAK ESTRATINEKOZ JOKATUKO DU ESKUZ BINAKAKOA; REZUSTA ONDO IBILI DA UDAN

Bikote ezkertiarra

Txapelketako bikote gazteenetakoa osatuko dute Beñat Rezustak (Bergara, 1993) eta Iker Irribarriak (Arama, 1996). Irribarria iazko ezuste positiboetako bat izan zen.

Hala, bikote kuriosoa osatuko dute, biak dira-eta ezkertiarak: "Irribarriak partiduetan erritmo altua jartzen du, eta horretan laguntzen ahaleginduko naiz ni", adierazi du bergararrak. Aramakoa, berriz, pozik dago txapelketan egokitu zaion bikotekidearekin: "Ez egoteko moduan! Akaso, Altunaren itzalean egon da, baina uda paregabea egin du Rezustak".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Mondra-Aretxabaleta

Domeka. 16:30. Mojaitegi.

Martutene-Aloña M.

Zapatua. 15:45. Martute.

E. PREFERENTEA

Mondra-Eibar Urko

Zapatua. 16:00. Mojaitegi.

Aretxabaleta-Ilintxa

Zapatua. 17:30. Ibarra.

Bergara-Zestoa

Zapatua. 15:30. Agorrosin.

LEHEN ERREGIONALA

Aloña-Arizmendi

Domeka. 16:30. Azkoag.

Urki-Bergara

Zapatua. 17:30. Unbe.

Antzuola-Eibartarrak

Zapatua. 16:00. Estala.

EMAKUMEZKOAK

Mondra-Mutriku

Zapatua. 18:00. Mojaitegi.

Arizmendi-Orioko

Domeka. 11:45. Ibarra.

Bergara-Amaikak Bat

Zapatua. 17:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Mallabia

Zapatua. 18:30. Eskoriat.

Atxurre-Aretxabaleta

Zapatua. 11:30. Bakio.

GIPUZKOAKO TXAP.

Mondrate-Jaixki

Zapatua. 18:00. Musakola.

EMAKUMEZKOAK

Samaniego-Eskoriatza

Zapatua. 16:00. Tolosa.

SASKIBALOIA

EBA

Ulacia Grupo-MU

Domeka. 18:30. Zarautz.

EUSKADIKO BIG. MAI.

Aloña Mendi-Cosecha

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIPUZK. LEHEN MAILA

Cafes Aitona-MU

Zapatua. 20:00. Donostia.

GIPUZK. BIGARREN M.

Soraluce Berg.-Goierri

Zapatua. 18:00. Labega.

SENIORRAK EMAKUM.

Eskoriatza-Ayma

Gaur. 20:15. Eskoriatza.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Izarratiz M.-Txikipolit

Zapatua. 16:30. Zubikoa.

Ford Mugarri-Urduliz

Zapatua. 17:00. Iturripe.

EUSKADIK. T. NESKAK

Aloña Mendi-Urdaibai

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK

Elgoibar-Soraluce BKE

Zapatua. 17:45. Elgoibar.

PILOTA

Aretxabaletan

Egubakoitza, 19:00etan hasita infantilen mailako bi partidu.

Oñatin

Egubakoitza, 19:15ean hasita lau partidu. Infantil, alebin eta kadete mailakoak.

Bergaran

Egubakoitza, 19:15ean hasita bi partidu. Infantilak eta eskuz banaka nagusiak.

Arrasaten

Egubakoitza, 20:15ean hasita hiru partidu. Kadete eta gazte mailakoak.

ERRUGBIA ARTk Iruñean defendatuko du lidergoa

Joan den asteko garaipenaren ostean – 40-5 Uribealde taldearen kontra –, Igor Isasiren mutilak lehen postuan dira Elorriorekin berdinduta. Oraingo asteburuan, berriz, La Unica B taldeari egingo diote bisita, eta ligako seigarren garaipena lortzeko helburuarekin egingo dute Iruñera bidaia. Norgehiagoka domekan jokatu dute (11:30).

MENDI LASTERKETAK Ez dago lekuri San Silvestre Trailerako

Oraindik hilabete geratzen bada ere, dagoeneko banatu dituzte Bergarako San Silvestre Trail –Peugeot Etormobil Saria– lasterketako dortsal guztiak. Hantakuzetrail taldeko lagunek 300 lagunendako tokia aurreikusi dute abenduaren 31ko lasterketarako; bistan da asko direla urtea antxintxika eginez agurtu gura dutenak.

ATLETISMOA Yera Varela seigarren urtez Azkoitian azkarrena

Oñatiarrak ez zuen kontrariorik izan joan den zapatuan Azkoitiko XII. Herri Lasterketan eta seigarren urtez probako atletarik azkarrena izan zen. Irteeratik erritmo bizia ezarri nahi izan zuen eta kilometro guztiak lasterketa buruan egin zituen Aloña Mendiko korrikalariak. 10 kilometroak 31:30ko markarekin egin zituen.

IZOTZ HOCKEYA Jone Oianguren Espainiako selekzioarekin

Abenduaren 5etik 8ra Espainiako 18 urtez azpiko izotz hockeyko selekzioak kontzentrazioa egingo du Valdemoron, eta hautatzaileak Jone Oianguren deitu du selekzioarekin egoteko. Oianguren atezain moduan jokatzeko Gasteizko Sumendi taldean, ahizpa Ainhoa Oiangurenekin batera. Biak dira Hanka Labanka taldekoak.

ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA



- PROMOZIOAK: ETXEBIZITZAK SALGAI
- SUKALDEAK: AZKEN TENDENTZIAK
- ARMAIRUAK: PARETAN SARTUAK
- IGOGAILUAK: TEKNOLOGIA BERRIAK
- BIGARREN ESKUKO ETXEAK

bastidasukaldeak


12 hilabeteko finantziazioa, interes gabe!

INFORMA ZAITEZ!

zarautz
elizaurre 3, 20800
tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

azpeitia
perez arregi 9, 20730
tel./faxes: 943 15 05 10

bergara
ibargarai 36-38, 20570
tel./faxes: 943 76 70 58





Gelmako etxebizitzak.

Salmenta datuek hobera egiten jarraitzen dute

Batez ere, 30 urtetik gorako jendea ari da etxebizitza bila. Horiez gain, bi logelako etxeen kasuan, behar ezberdinengatik etxea saldu, alokatu edo dena delakoaren ostean etxe txikiago baina erosoagoa hautatzen dutenak ere badaude

ESKAINZA BALIAGARRIAK, AKATS TIPOGRAFIKORIK EZ BADAGO.

Iaz, urte beltz batzuen ostean, etxebizitzaren merkatua indarberritzen ari zen pixkanaka-pixkanaka. Aurten, egoera hori berretsi egin dela esan daiteke, eta salmenta datuek hobera egiten jarraitzen dute. 2016ko lehen bederatzik hilabeteetan, Espainiako Estatistika Institutuaren arabera, etxebizitzaren salerosketak %14,6ko gehikuntza metatu du, 2015eko hilabete berekin alderatuta.

Debagoienean ere nabaritu da joera hori. Ortuibar agentziako Gurutz Beitiaren esanetan, salmentak nahiko ongi joan dira, eta iazko antzeko erritmoan mantendu dira. Beitiaren iritziz, etxebizitza berriak eta bigarren eskukoak antzeko erritmoan saldu dira; izan ere, hauek elkarri lotuta egoten dira maiz: "Jende gehienak etxe berrietara egiten du salto, baina normalean, horren aurretik, bigarren eskuko etxea saldu behar izaten dute".

Gelmako etxebizitzak komertzializatzen dituen Bibai Inmobiliariako Zigor Aginagaldek ere etxebizitzaren salmentek egoera ona bizi dutela azaldu du: "Urtea gogor hasi genuen, sal-

menta dezenterekin; ondoren, Aste Santu aldera, egoera zertxobait baretu zen, baina uda ostean berriz ere areagotu dira salmentak".

Prezio eskuragarriagoak

Estatuko Higiezinaren Erregistro Estatistikaren datuen arabera, urteko hirugarren hiruhilekoan etxebizitzaren prezioa %1,4 jaitsi zen, apiril eta ekain arteko tartearekin alderatuta. 2007. urtean, prezioak bere maila gorenera iritsi ziren, eta handik aurrera, pasa den urtean %3,3ko igoera izan zuten arren, %27,5eko jaitsiera izan dute guztira.

Beitiaren esanetan, duela zazpi urteko egoerarekin alderatuta, prezioak nahiko onak direla esan daiteke, iazko kopuruei eutsita. "Egoerak hobera egin du, eta arrazoi horregatik, jendearentzat jada ez da hainbesteko erokeria etxe bat erostea".

Gelmako etxebizitzaren kasuan, iaz urrian salgai jarritako bi atartetako etxeek salmenta datu onak izan ostean, urte hasieran hirugarren atarte bateko etxeak hasi ziren saltzen. "Hirugarren

Aretxabaleta | 4. FASEA

Zure esku dago!

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.

Informatu zaitez!
2017. Urtarriletik aurrera

Azken etxebizitzak
5. eta 6. Atarietan.
Aukeran garaje itxiak.



**GRUPO
ORTUIBAR**

Informazioa: Ortuzal Promociones S.L. 943 761 118 | 943 794 000
www.grupoortuibar.com | info@grupoortuibar.com | Ibargarai 36 behea | Bergara

atartea komertzializatzearekin batera, prezioen igoera bat izan zen. Orain, gure aurreikuspenak oinarri hartuta, salmentak ongi badoaz, martxo aldera obrak guztiz bukatzerakoan, prezioek beste igoera bat izango dutela suposatzen dugu", dio Aginagalde.

Iturizar eta Erregetxoko etxeak

Ortuibar da Bergarako Erregetxo plazako etxebizitzaren salmentaz arduratzen den etxe agentzia. Bertan, jada eraikiak dauden eta 70-90 metro koadro artean dituzten hiru eta bi logelako azkenengo etxebizitzak saltzen dira. "Akustikoki, inguruko zaratatutako ekiditeko prestatuak daude. Horrez gain, etxebizitza guztian erabilitako materiala kalitate oso onekoa da; adibidez, jarri den egurrezko zorua", azaldu du Beitiak.

Bergaran bezala, Aretxabalean ere hiru eta bi logelako etxebizitzak eskaintzen ditu Ortuibar agentziak; hain zuzen, Iturizar plazan. Hiru logelakoek 90 metro koadro inguru dituzte eta bikoek, 60 inguru. Beitiak orokorrean orientazio oso ona dau-



Erregetxo plazako etxebizitza blokeak.

katen etxeak direla dio; izan ere, eguneko lehen orduetatik eguzki argia sartzen zaie. Guztira, bi atartetako etxeak saltzen dira, eta bat oraindik obretan

**2007A EZKERO,
ETXEBIZITZEN
PREZIOEK
%27,5EKO JAITSIERA
IZAN DUTE**

dago: "Eraikuntza fasean dauden etxebizitzaren kasuan, erosleak aukeran dauka etxea bere gustura egitea". Hala, eraikuntza eta hornikuntza zein fasetan dauden kontuan izanda, erosleek, hainbat gauzaren artean, aukera daukate material batzuk hobesteko eta ipinarazteko, aldatzeko egiteko...

Bi promozioetan, etxearekin batera garajea erosteko aukera dago.



Iturizar plazako etxebizitzak.

Gelmako etxebizitzak

Bibai etxe agentziak bi eta hiru logelako etxebizitzak saltzen ditu Gelmako promozioan. Zigor Aginagaldereen esanetan, lehen eta bigarren blokeetan, saltzeko dauden azken etxeak geratzen dira. Hirugarren blokean, ostera, 47 etxebizitza merkaturatu ziren, eta dagoeneko 30 bat saldu direla azaldu du. "Etxeak zona lasaian daude, baina erdigunetik minutu gutxira. Ho-

rez gainera, barrutik, etxeek goi-mailako kalitate berezia daukate".

Etxebizitza guztietan, erosleak %100eko finantziaketa lortzeko aukera dauka. Prezioei dagokierik, bi logelako etxeak 201.000 eurotik aurrera saltzen dira, eta hiru logelakoak 266.000 eurotik aurrera, biak BEZa kontuan izan gabe. Prezio horien barruan, 15 metro koadro inguruko garaje itxia ere sartzen da.

AZKEN AUKERAK!

GELMAko etxebizitzak

ESKURA EMATEA
2017ko lehenengo hiruhilekoan

SALDUTA

*** 2 logela 201.000 €- tik + BEZa**

*** 3 logela 266.000 €- tik + BEZa**

***Garajea barne**

T. 943 25 38 21 Deba kalea 3, 20500 Arrasate (Gipuzkoa)

www.inmobibai.com

%100

eko finantziaketa

Salmenta prezioaren %100eko finantziaketa eskaintzeko aukera dugu merkatuko salmenta oinetan.

245.500 € + BEZa etxebizitza honetan

84 m² erabilgarri

Zure etxebizitza saldu behar duzu?

EZ KEZKATU!!

Erreserbatu etxebizitza bat eta zurea saldu arte ez dugu eskrituratu

Zuri koloreko sukaldeen moda ez da aldatzen

Zura edota haren erreplikak ere tokia hartzen ari dira, sukaldeak natura aspektu bat bereganatuta. Gainera, bezeroak praktikotasuna gura du gero eta gehiago, teknologiararen eta garbitzeko errazak diren materialen bitartez

Azken urteetako joerarekin jarraituz, sukalde zuriak nagusi izaten jarraitzen du. Kolore sorta ugaria da, baina, sukalde argitze aldera, tendentzia ez da aldatu; izan ere, zuriak jende gehiena erakartzen jarraitzen du.

Lehen distira akaberarekin eskatzen ziren modu berean, orain, gehienbat, zetazko akabera daukaten matezko sukaldeak dira nagusi.

Zuria konbinatzeko orduan, egur kolorea da indarra hartzen ari dena, baita urdin eta horia. Gris, harri eta bisoi tonuetakoak ere gero eta gehiago ari dira eskatzen. Hala ere, naturarekin

loturiko aspektu bat lortu nahian, batez ere, egurra edota haren erreplikak ari dira erabiltzen altzarietarako. Modu horretan, sukaldeek Eskandinaviako estilo nordikoa bereganatzen dute.

Eskulekuetan, azken urteetako joera berak jarraitzen du: ateekin batera datoz eskulekuak modulu baxuetan, eta ezkutuan modulu altuetan, pomoak eta kirtanak baztertuta.

Tiraderak beheko moduluetan

Praktikotasuna lortzeko helburuarekin, tiraderak kanporantz irekitzen diren eskulekuekin etortzen dira. Carrascal Aroztegikoen esanetan: "Praktikota-

sun hori erosotasunean islatzen da; izan ere, tresna ezberdinak erraztasunez hartu eta gorde daitezke". Tiraderez gain, botilategiak, ogi-saskiak eta halakoak ere eskatzen dituzte; gehienetan, kanporantz irekitzen direnak.

Orokorrean, beheko moduluetarako sistema eta aukera ugari daude. Gainera, Jose Aranzabal sukalde altzarien dendako Arantxa Aranzabalen esanetan, erosotasunera begira, jendeak nahiago izaten du beheko moduluak pisuz kargatzea, aldi berean, goiko zonako altzariak sinplifikatuta: "Beheko moduluak betidanik izan dira irisgarriagoak".



Zuri kolorea nagusi den sukalde modernoa.

Goialdean tendentzia ugari

Goiko zonako moduluak dago kienez, behekoekin alderatuta, tendentziak ugariagoak ari dira izaten, bezeroaren arabera gustuak ezberdinak direlako. Era horretan, bisagren bidez ezker-eskuin irekitzen diren atee-tako orriez eta gorantz irekitzen diren ate eraigarri tolesgarriez gain, baldak dituzten ate gabeko moduluak ere espazioa hartzen hasi dira. Beira-arasak,

berriz, jada ez dira hainbeste eskatzen.

Gorantz irekitzen diren ate eraigarri tolesgarrien kasuan, Bastida sukalde dendako Ramon Bastidak motordunak ere badi-tuztela azaldu du: "Atean bertan botoi bat izaten dute, eta hura sakatuta atea automatikoki gorantz edo behegantz egiten du. Botoiaz gain, urrutiko agintearekin datozenak ere badi-tugu. Ekonomia hobera egiten ari den

**Erregetxo
UTE**
Bergara



Salmenta informazioa

Ortelbar, SL: 943 761 118

Lotzen, SL: 943 761 123

www.promocioneserregetxoplaza.com

2 eta 3
logelako
AZKEN
ETXEBIZITZAK



Beheko eta goiko moduluetan, eskulekuak modu ezberdinetan eramaten dira.



Sukaldeak zurezko materialarekin konbinatuz, natura aspektu bat lortzen da.

**ESKULEKUAK ATEKIN
BATERA DATOZ
MODULU BAXUETAN,
ETA EZKUTUAN
MODULU ALTUETAN**

**GOIKO ZONAK
SINPLIFIKATU EGITEN
DIRA, ETA BEHEKO
MODULUAK PISUZ
KARGATU**

heinean, ate hauek dituzten ar-mairuak gero eta gehiago ari dira eskatzen. Pixkanaka-pixkanaka, puntako teknologia produktu ezberdinetan ezartzen ari dela esan daiteke".

Garbitzeko errazak

Testurei erreparatuz, bezeroek garbitzeko errazak direnak bi-lutzen dituzte, gehienbat; modu horretan, pertsonen hatzekin kontaktuan egotera prestatuta

daude. Jose Aranzabal sukalde altzarien dendakoek diotenez, erosotasun hori "betidanik izan da bezeroen lehentasunetako bat". Gehienak testura leunak izaten dira, batez ere, zeta motakoak, eta distirazko akabera-ekin zein matekoak. Horrez gain, sukaldeko txoko batzuetarako, zuraren imitazioak bezalako efektu naturaleko testurak hasi direla eskatzen dio Arantza Aranzabalek.

Nanoteknologia merkaturatzen

Carrascal Aroztegiko Gema Carrascalen esanetan, material geruzatua saltzen dute bereziki. "Prezio-kalitate aldetik nahiko erakargarria izaten da, gogorra eta mantentzeko erraza". Gainera, orain dela bizpahiru urte, material nanoteknologikoa sartu zen merkatuan. "Azkeneko urteetako nobedadea da, eta, besteak beste, hatz markak ekiditen ditu".

Ikusten ez diren etxetresnak

Hozkailuen, kanpaien, labeen eta mikrouhin-labeen kasuan, herdoilgaitzak direnak eskatzen dira. Bastida sukalde dendako Ramon Bastidaren esanetan, integratuak izaten dira gehienak; modu horretan, kanpotik ikusezinak dira. "Konkretuki, lehen aipaturiko motordun eraigarri tolesgarri asko etxetresnak gordetzeko altzarien ateetarako erabiltzen dira".

**MATERIAL
BERRITZAILEEK
HATZEN MARKAK ETA
URRATUAK SAIHESTEN
DITUZTE**

Jose Aranzabal



- **SUKALDEAK**
- **ARMAIRUAK**



Paretan sartutako eta ate irristailuko armairuak

Herritar arrunton etxebizitzak gero eta txikiagoak egiten joan diren neurrian, altzariak eta espazioak ere aldatzen joan dira. Horren eraginez ere, armairuak instalatzeko era berriak daude, espazioa aurrezten dutenak

Hala, adituek diotenez, paretan sartutako armairuak "geratzeko etorri dira", Aranzabal Sukaldeak altzari dendaren iritziz: "Etxebizitza guztietan dago horman sartutako armairua; arina da, leku handia du gauzak gordetzeko eta denetarik espazioei ondo doakie. Arroparako armairuetan bereziki, ez da bolada bat; ez du atzera bueltarik joera horrek".

Barruko espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzeko, armairu horiek "barrak, zapatatara leku bereziak, tiraderak, apalak... izaten dituzte", Carrascal dendako arduradunen esanetan.

Helduleku pertsonalizatuak

Barruko aldea ahalik eta ondoen antolatu behar den moduan, espazioa aurreztu nahi bada, kanpoaldeko detaileak ere zaindu egin behar dira. Horrela, bada, armairuak paretan sartuta izateaz gain, ate irristailuak edukitzen dituzte, irekitzerakoan eta ixterakoan gelan ez dezaten lekuri hartu. Eta hori gutxi balitz, heldulekuak ere minimalistak dira, gehienbat; koloreari dagokionez, armairuaren kolore berekoak edo urre edo zilarrezko akaberadunak.

Joerak joera, batzuek orridun ateak nahiago izaten dituzte; kasu horietan, egurrezko hel-

dulekuak, luzexkak, oso boladan daude.

Edozelan ere, heldulekuen joera minimalistak hori zertxobait atzera egiten hasi da azkenaldian, Aranzabal dendaren esanetan: "Helduleku landuak, pertsonalizatuak, gero eta gehiago eskatzen ditu jendeak; oso gauza politak egiten dira".

Bainugela funtzionalak

Bainuetan ere espazioa aprobetxatzea eta praktikotasuna dira irizpide nagusiak. Elementu gutxi ipintzen ditu jendeak, eta bizitasuna ematen zaie argite-riarekin eta paretako estaldu-rekin.



Paretan sartutako armairua, oheburukoarekin bat doana.



Armairuen barrualdea modu funtzionalean banatzen da.



Eskatu zure aurrekontua!

- Euskarazko zerbitzua.
- Pieza original guztiak barne.
- Benetako 24 orduko zerbitzua.
- Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak.



Emergentzia-telefonoa DOAN IGOGAILU GUZTIETAN

- Azkenengo urtean 300 bezero berri.
- Orotariko zerbitzua 100 €-tik aurrera.

www.bertako.eus
info@bertako.eus

GARAIA Goiru 1A
20500 Arrasate

Industrialdea 6
20270 Anoeta

Tel.: **943 90 34 50**
691 64 79 65

Teknologia nagusi Bertako Igogailuetan

Gardentasuna eta teknologia du oinarri Bertako Igogailuak enpresak; erabiltzaileak arazoren bat duela jakin aurretik, enpresari matxuraren berri emango dion modulu bat hasiko dira ezartzen igogailuetan, teknikaria berehala konpontzera joan dadin

Marka guztietako igogailuen mantentze-lan eta instalakuntzan espezializatuta dagoen Bertako Igogailuak izan da azken urte honetan bezero gehien batu dituen enpresa, 300 bezero berrirekin. Igoera honek aldaketa garrantzitsuak ekarri dizkio bai enpresari eta baita bezeroei emandako zerbitzuari. Oinarrian, kalitate ezin hobe preziorik onenean eskainita. Alde batetik, Arrasateko lantokia mantentzeaz gain, Anoetan lantoki handiago bat hartu behar izan dute, 500 metro karratuko leku bat, bertako ingeniariak eta biltokia jartzeko.



Bertako Igogailuak enpresaren *Pasarela* izeneko zerbitzu berria.

Teknologia berrien ezarpena

Urtarriletik aurrera, posible den igogailuetan beste zerbitzu bat ematen hasiko dira: *Pasarela* deritzon zerbitzua. Teknologia berriko zerbitzu horrekin, bezeroen segurtasuna eta ongizatea bermatu nahi da. Hala, bezeroa igogailuaren matxuraz jabetu aurretik, igogailuak berak enpresari abisua emango dio *modulu* horren bitartez, eta, era horretan, aukera dago teknikari bat lehenbailehen igogailua konpontzera joan dadin. Gaur egun, ez da posible igogailu guztietan teknologia berri hau jartzea, baina, modelo askotan posible izanda, hasi dira hainbat lekutan ezartzen.

Arrasaten aitzindari

Lehen aldiz teknologia berri hori izango duten igogailuak Arrasaten jarri dituzte dagoeneko, eta, erabilera handia dutenez, igogailuen erabiltzaile eta jabeentzat oso positiboa izango da. Izan ere, igogailua gelditzen denean, agian, konturatu baino lehen Bertako Igogailuak enpresako teknikari bat konpontze lanetan arituko da.

Zerbitzu hori ematea ez da diru kontuagatik, bezeroekin izan nahi duten konpromiso tinkoa baizik. Bertako-ek batez beste 100 euro ingurutan eskaintzen du bere kontratu osatuena –pieza guztiak barne dituen–, eta, gainera, momentu oro, bezero guztiek askatasuna mantentzen dute kontratu horrekiko. Hau da, beraien kontratuek ez dute penalizaziorik eta derrigorrezko iraunkortasunik.

Informazioa eta gardentasuna

Urtarriletik aurrera izandako bezeroen igoerak eta teknologia berriak jartzeak aurrerapausoak ekarri ditu. Esaterako, bezeroek hilero txosten bat jasoko dute beraien igogailuan eginiko lanen ezaugarri zehatzekin. Jasoko dutena ez da paper soil bat izango. Lanean emandako denboraren, aldatutako piezen, haien gaineko informazio eta argazkien eta egindako lan zehatzen gaineko txosten osatua izango da. Era berean, sei hilabete behin, bezeroek hamasei orriko aldizkari bat jasoko dute, bezeroek izan ditzaketen abantaila berri guztiei buruz informatzeko.

UGARTE

OÑATI

> HORMIGOIZKO EGITURAK
 > IGELTSEROTZA
 > ZAHARBERRITZEAK
 > PROMOZIOAK

ERAIKUNTZAK

943 78 05 54

663 973 164

ugarte@cnes-ugarte.com









carrascaladapt
sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA, ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

FENIX MATERIAL BERRIA



Argia oso gutxi islatzen da



Arrastoen aurkako digitala



Bakterioen aurkakoa eraginkorragoa



Garbitzeko erraza



Hidrofugoa



Ukitzean leuna da



Urragogorra



Bigarren eskuko etxebizitzak salgai.

Bigarren eskuko etxeak, gorantza doan joera

Debagoienean etxebizitza jabetzan izan nahi dutenen artean, gero eta gehiago dira berria erosteko aukera baztertu eta bigarren eskukoetara jotzen dutenak, duela hamarkada bat ez bezala; gehienbat, prezio merkeak dira horretarako arrazoiak

Etxebizitza erosteko orduan, hainbat aukera egon daitezke, eta norberarentzat egokia den bizitokia hautatzeko hainbat irizpide darabil jendeak: tamaina, kokapena, prezioa... Horrez gain, erosteko edo alokatzeko aukera dago.

Erosteko hautua egiten dutenen kasuan, eraikuntza berriko pisu edo etxeak eros daitezke,

edo, bestela, bigarren eskukoak. Duela urte batzuk, krisi ekonomikoa baino lehenago, batez ere, joera nagusia etxe berriak, hau da, eraikuntza berrikoak erostea zen. Gaur egun, ordea, beste aukera batzuek indarra hartu dute; hala, esaterako, etxebizitza erostea erabaki duen hainbatek bigarren eskuko etxebizitzaren aldeko apustua egiten du. Gai-

nera, bigarren eskukoaren artean ere denetarik topa daiteke: duela urte gutxi eraikitakoak, zaharragoak, tamainaz handiak, txikiak...

Eskaria badago

"Etxebizitza erosteko orduan, gaur egun jendeak bilatzen duena prezio ona da", azaldu dute Arrasateko Gertu etxe agentzia-

tik. Hain zuzen, agentzia honek, bigarren eskuko etxebizitzekin egiten dute lan, eta, azaldu dutenez, sektore horrek badu bere eskaria Arrasaten eta inguruetan. Gauza bera gertatzen da Bergara aldean, Korosti agentziatik azaldu dutenez.

Bigarren eskuko etxebizitza erosteko joera hori, gainera, gorantza doa gure eskualdean, Gertutik azaldu dutenez. "Bereziki, azkenengo sei hilabeteetan igarri dugu gorakada", diote.

Eskaria gero eta handiagoa den arren, Arrasate aldean eskaintza oraindik ez da horren zabala. Izan ere, gaur egun oraindik gutxi dira jendeak salgai jartzen dituen etxe "onak". Dena den, halako eskaintza bat dagoenean, "zitzu bizian saltzen da", diote Gertu agentzian.

Erosleen joerak

Gaur egun saltzen diren bigarren eskuko etxebizitzaren artean, erosleen joera da etxe "zahar samarrak" bilatzea, modu horretan prezio murriztagoa ordaintzeko. Izan ere, salneurria etxebizitza aukeratzeko orduan faktore erabakigarria da kasu askotan, diote Gertun.

Korostitik gaineratu dutenez, eskaria igotzeaz gain, bigarren eskuko etxeak merkeago saltzen dira orain, jendeak "100.000tik beherakoak" erosten dituelako. "Jendeak bigarren eskuko etxea saldu nahi du, eta prezioa asko jaisten dute", azaldu dute. Hala, duela hamarkada bat prezio horretan "egoera kaxkarrean zeuden etxeak bakarrik" aurki zitezkeen; "orain, aldiz, etxe onak saltzen dira prezio horretan".

Azken urteotan, soldaten jaitzierarekin, herritar askoren eros ahalmena ere murriztu egin da, eta horregatik gertatzen ei-

da joera hau. Hala, adituek diote jendearentzat lehenago baino erabakigarriago dela prezioa, eta, ondorioz, bestelako esijentziak ere ez direla lehen beste-koak. Zentzu horretan, Korostin diote zenbaitek nahiago dutela etxean zaharberritzeak egin etxe berria erosi baino.

Beraz, inguruotan etxea jabetzan izan nahi duten askorendako aukera ona da bigarren eskukoak erostea, azkenaldiko joerek erakusten dutenez.

Zerga murriztagoak

Bigarren eskuko pisuek eta etxeek prezio aldetik duten beste abantaila bat zergena da. Izan ere, ordaindu beharreko zergak baxuagoak dira berrietan baino.

Hala, ondare transmisioaren gaineko zerga ezartzeko orduan, aplikatzen duten ehunekoa desberdina da etxebizitzaren zenbait ezaugarriaren arabera.

Hala, eroslearen lehen etxebizitza baldin bada, eta etxebizitza horrek 110 metro karratu baino gutxiago baldin baditu, zergarik baxuena ezartzen zaio, hau da, %2,5ekoa.

Bestalde, erositako etxebizitza bezeroak bigarren etxetzat erabiltzeko eskuratu badu, salneurriarekiko %4ko Ondarearen Transmisioaren Gaineko Zerga ezarriko diote.

Aldiz, etxebizitza berri bat erostean ordaindu beharreko balio erantsiaren gaineko zerga %10ekoa da.

"ETXEBIZITZA EROSTOKO ORDUAN, GAUR EGUN JENDEAK BILATZEN DUENA PREZIO ONA DA"

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA

San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA

aroztegia@ugartearoztegia.com



Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·
Tarimak · Egur lanak



Euskal sortzaileen eta euskal kultur zaleen urrezko egunak

349 nobedade daude gaur ateak zabaldu dituen 51. Durangoko Azokan: 210 liburu, 41 disko, 16 aldizkari, bi bideo eta bestelako 27 ekoizpen. Debagoienean ekoiztutako produktuak ere izango dira berrikuntzen artean, aurreko edizioekin alderatuz kopuru txikiagoa bada ere. Azokaren zortzi gunetan askotariko aurkezpenak egingo dituzte

Aitziber Aaranburuzabala ARRASATE Transmisioari begira Ikasle Eguna estrategikoa da Gerediaga elkartearentzat, eta, egun hori mantentzeko asmoarekin, ohi baino aurreratuago dator aurtengo Durangoko Azoka. Gaurtik martitzena bitartean kulturaren plaza izango da, beraz, Durango. *Bizitzekoa da!* da aukeratu duten leloa, Azokara urtero joaten direnei eta Azokara inoiz gerturatu ez direnei ere gonbida-pena egiteko.

Atzera begirakoa izan zen iazkoa, Azokaren 50. urteurrena aitzakia hartuta; aurtengoarekin, baina, etorkizunera begiratzea da antolatzaileen asmoa, pauso txikiak, baina, era berean, garrantzitsuak emanda.

Etxeko uzta eta saltokiak

Iazkoarekin alderatuta aurrekontu txikiagoa badu ere, oparoa da oraingoan ere eskaintza: 246 erakusleho eta 200 kultur ekitaldi baino gehiago batu dituzte-eta egitarauan. Debagoieneko edo eskualdearekin lotura duten bost stand izango dira: Mauka Musikagintzarena, Juan Karlos Irizar musikariarena, Arantzazu Edizio Frantziskotarrena, Mondragon Unibertsitatearena eta euskara elkarteek bultzatutako Badihardugurena. Arrasateko Gose taldeak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartek ez dute stand propioirik izango.

Hala ere, aipatutako saltokietan, gainera, Debagoieneko labela duten askotariko ekoizpen gehiago izango dira -ikus goiko taula-. Egileetako batzuk Azokan egongo dira euren jarraitzaileei azalpenak eman eta sinadurak botatzeko prest; horien artean, Arrasateko John Andueza idaz-

lea. "Orain dela bi urte oso gustura jardun nuen, makina bat sinadura bota nuen; Azoka aukera ona da irakurleen iritziak bertatik bertara jasotzeko", dio Anduezak. Ruper Ordorika ere Azokan izango da bihar, Elkarren erakusleihoan. Beste batzuek, berriz, argitaletzekoen eskuetan utzi dituzte euren produktuak. "Donostian egin genuen aurkezpena, aurtengo ez dut-eta Duran-

goraino hurbiltzeko aukerarik izango", esan du Gerardo Markuleta, Oñatiko itzultzaileak. "Urtero moduan bueltatxo bat egingo dut, zer dagoen ikusi eta egun pasa", esan du Aretxabale-tako Igor San Juan musikariak.

Inurrientzat, Argizaiola saria 1992. urtetik ematen duten omen-saria da. Urte txarretan, argia izan direnak gogoratu gura di-

tuzte sari horrekin. Askotariko arlotakoek jaso izan dituzte. Aurtengo, hogeita bosgarrena, oinarritzko kultur langileek jasoko dute; hau da, euskal eta euskarazko munduan ehunka inurrik egin duten lana gorai-patuz horrela. Gerediagakoen esanetan, "asko dira omenduak izan daitezkeen inurriak, baina denen izenean lurralde bakoitzeko pertsona batek jasoko du saria". Honako pertsona hauek jasoko dute, bada: Kepa Mendia Landa (Araba), Justo Alberdi Artetxe (Bizkaia), Jaime Albillos Arnaiz (Gipuzkoa), Patxika Erramuzpe (Ipar Euskal Herria), Carmen Belaza (Nafarroa) eta Jose Ramon Zengotitabengoak (diaspora). Sari banaketa bihar, zapatua, iluntzean San Agustín kultur gunean egingo dute.

Azoka Telebista ere bai

Goiena arduratzen da euskal hedabideen arteko elkarlana sustatzeko sortu zen gune horren kudeaketaz. Landako gunean dagoen platoan egingo dituzte aurtengo zuzeneko saioak. *Azokan gaur* izena duen eguneko bi magazine egingo dituzte, goizean bat eta arratsaldean bestea. *Amaia DJ* saioa ere arratsalde- ro egingo du Amaia Txintxurretak; nahiz eta gaurkoa 13:00etan izango den. Era berean, gaur Ikasle Eguna dela-eta, Goienaren *Galdegazte* saioa grabatuko dute; Arrasateko Institutuko ikasleek Hesian taldeko Zuriñe Hidalgo elkarriketako dute. Aipatutako saioez gainera, bestelako kultura elkarriketa eta kultur ekoizpen gehiago eskainiko ditu Azoka Telebistak.

Landakoguneko pantailan, tokiko telebistetan eta *streaming-goiena.eus*- bitartez ikus daitezke saio horiek guztiak.

Debagoieneko sortzaileak Azokan

LITERATURA

JOHN ANDUEZA ARRASATE *Lepoan hartu*. Gazteentzako eleberria. Elkarrek argitaratua.

IÑAKI BERISTAIN, XABIER

EUZKITZE ETA EDUARDO URARTE ARANTZAZU *Nikolas Segurola: fraide, artzain eta bertsolari*. Biografia. Arantzazu Edizio Frantziskotarrak argitaratua.

JOSE ANTONIO AZPIAZU OÑATI *Hielos y océanos. Vascos por el mundo*. Saiakera. Ttartalok argitaratua.

JOSUNE MURGOITIO ARRASATE *Colores prohibidos*. Eleberria. Autoekoizleen standean izango da salgai.

GERARDO MARKULETA OÑATI Haurrentzako ipuinak. Hainbat libururen itzulpen sorta egin du. Ereinek argitaratua.

GERARDO MARKULETA OÑATI *Isil-mandataria*. Eleberria. Jean Echenozen eleberria frantsesetik euskarara itzulita. Meettok argitaratua.

PATXI LARRION BERGARA *Feriatzaileak*. Eleberria. Susak argitaratua.

MUSIKA

RUPER ORDORIKA OÑATI *Guria ostatuan*. Pop-folka. Elkarrek argitaratua.

JUAN KARLOS IRIZAR OÑATI *Izarra*. Pianoa. J.K Irizar zigiluak argitaratua.

DIRTY BROTHERS ARRASATE *Mondra calling*. Punk-rocka. Autoekoiztua. Musikazuzenean standean izango da.

IGOR SAN JUAN ARETXABALETA *Izarrrik gabeko zerua*. Pop-rocka. Gaztelupeko Hotsak-ek argitaratua.

ZINGIRA OÑATI *Bidaia*. Rock progresiboa. Autoekoiztua. Musikazuzenean standean izango da.

Abian da Jokin Zaitegi itzulpen sariketaren aurtengo edizioa

Bob Dylan musikari estatubatuarrak idatzitako 100 kantako sorta bat itzultzea da aurtengo helburua

A. A. ARRASATE

AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak 2002an abiarazi zuten Jokin Zaitegi lehiaketa; helburua, urtero banatzen dituzten Literatura Nobel saria jaso duen autorearen lana euskaratzea.

Babeslerik ezak behartuta, bertan behera utzi zuten sariketa pare bat urtez, eta, iaz, Arrasateko Udalaren laguntzarekin jarri zuten martxan berriz ere. Aurtengo, Laboral Kutxaren laguntza ere izango dute.

Hiru kanturen lagina

Aurrekoekin alderatuta, ezohikoa izango da parte hartzen dutenei eskatuko zaiena, ezohikoa delako, era berean, musikari bati ematea Literaturako Nobel saria. Gogoa eta gaitasuna duen edonork har dezake parte, eta kantu sorta bat itzuli beharko du beka eskuratzen duenak. Horretarako, antolatzaileek proposatutako lagina euskaratu beharko da, eta aed@aedelkatea.eus helbidera bidali 2017ko urtarrilaren 9 baino lehen.



Bob Dylan. F. ANTOLÍN HERNÁNDEZ

Oinarriak eta lagina

Aipatutako lagina eta sariketaren gaineko oinarriak helbide honetan daude: elkarargitaletxea.com/jokinzaitegi.

Froga edo laginaren itzulpen onena egiten duenak 2.000 euroko saria irabaziko du Dylanen kanta sorta osoa itzultzeko. Diru erdia jakinarazpena egitean jasoko du eta beste erdia lan amaitua entregatu ostean. Lan amaitua urriaren 30a baino lehen entregatu beharko da Elkar argitaletxean.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza salgai Fraiskozurin. Hiru logela, egongela, sukaldea eta nagusiendako egokitutako komuna. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. Dena kanpora begira. Argitsua. 687 57 84 23

Oñati. 90 metro koadroko etxebizitza salgai Errekalde auzoan. 4. solairuan. Eguzkitsua. Harremantarako: 697 76 15 69 edo 634 49 15 83

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Ferrerías kalean. Guztiz jantzia eta berokuntzarekin. Oso argitsua. 669 66 54 99

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Familia euskaldun batek Antzuolan etxebizitza behar du errentan. Bizitzera sartzeko moduan egon beharko luke. Presazkoa da. 669 41 20 52 edo 646 44 93 75

Bergara. Etxebizitza behar du errentan. Bi logelakoarekin nahikoa da. Berdin da jantzia ez badago ere. 632 77 35 38

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 659 90 85 13

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan Arrasate pasealekuan. Autobus geltokitik gertu dago. 632 31 18 70 edo 632 20 19 41

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Torreakuan. Deitu 11:00etatik 12:30era edo 17:00etatik 18:30era telefono honetara: 653 72 31 58

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Etxeko lanak egin eta bikote nagusi bati laguntza emateko emakume bat behar dugu.

Ordutegia adostuko genuke. 620 36 87 60 edo 635 71 17 29

Bergara. Bi nagusi zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona ardurasua behar dugu. 9:00etatik 14:00etara. Maltzutasuna baloratuko da. Baita Bergarakoa izatea ere. 650 09 72 39

Oñati

Ile-apaintzailea
behar da.
615 71 71 62

402. ESKAERAK

Arexabaleta edo Arrasate. Arratsaldetan orduka lan egingo nuke. Lege paperak eta esperientzia dut. 610 99 42 03

Arrasate edo Oñati. Hel-duak edo haurrak zaintzeko, zein etxeko lanak egiteko prest. Euskalduna. 675 70 27 47

Arrasate, Arexabaleta edo Eskoriatza. Mondragon Unibertsitatean irakasle ikasketak burutzen ari den Kurdistango neska gazte eta ardurasua prest edozein motatako lana egiteko. Ingelesko maila oso ona. Haurrekin, zaintza edota edozein motatako garbiketa lanak burutzeko prest (taberna, jatebete, atariak...) dagoena. Edozein eskaintza mota entzuteko prest. Eskerrik asko. 653 01 44 16 (Emel) edo 612 28 98 30

Arrasate, Bergara eta Oñati. Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Arrasate. Etxeko langile moduan eta garbiketari arituko nintzateke. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkatz. 696 30 19 10

Arrasate. Garbiketak egiten edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 634 91 51 56

Bergara edo Arrasate. Arratsaldetan bulego eta abarrak garbitzen edota umea eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 610 34 97 88

Bergara edo Arrasate. Garbiketari eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka edo jardun osoz. 632 56 92 32

Bergara. Kaixo! Irakasle ikasketak dituen neska euskalduna naiz eta haurrak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna zaintzan eta partikularretan. 659 29 14 63

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko eta sukalde laguntzaile moduan aritzeko. Bietan dut esperientzia. 637 18 07 23

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 697 86 49 00

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen edota garbiketak egiten lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo egun osoz. 602 10 25 04

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edota garbiketak egiten lan egingo nuke, orduka. Astelehenetik domekara. 654 59 00 98

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edota garbiketari lan egingo nuke. 602 81 88 16

Debagoiena. Neska ardurasua gertu garbiketari egiteko eta ume zein nagusien zaintzan aritzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. 697 20 00 86

Debagoiena. Neska etxeko garbiketari egiteko gertu. 695 58 88 61

